

MUJIKATAR TENE

Gogo - Oñazeak

IRU EKITALDIDUN ANTZERKIA.



LOPEZ-MENDIZABAL'enean,
1934—TOLOSA'n: ~ ~ ~

ANTZEZ-NOTIÑAK.

Ana Joxepa "Xalxape"	60 urte	(Atso efiti txukun atsegiña).
Ander	27 »	(Ana Joxepa'ren semea.)
Lizarbe'tar Andoni	30 »	(Jaun gazte lerdena).
Antxeta'tar Endika	65 »	(Jaun aberats aundikia).
Terese anderea	55 »	(Antxeta jaunaren emaztea).
Elixabete	22 »	(Aben iloba, maitagarria).
Txomin	40 »	(Ostalari baretsu ta astiduna).
Karmele	35 »	(Txomin'en emaztea).
Soloeta jauna	50 »	(Txomin'en bezeroa. Aberats-ondatu antzekoa).
Tximutx	50 »	(» » Alper, arlote nafax-antza)
Pikutegi	28 »	(» » Langilea.)
Azpeiti	24 »	(» » »
Marixabel	30 »	(» » » -andre itz-jarioa.
Pepitatxo	10 »	(Neska=koxkor lotsagabea).
Neskame bat	20 »	
Txomin'en beste bezeroak.		

ORAINGO ALDIA.



GOGO-OÑAZEAK.

IRU EKITALDIDUN ANTZERKIA.

LENENGO EKITALDIA.

Uri txiki bateko "Bar-restaurant" izeneko jatetxe-edaritegi txukun bat. Eskuitik lenen, etxe bafurako atea; ondoren salmai edo "mostrador" egokia; onen ufengo sukalderako atea.

Ezkefetik tokiak amairik ez du, bafuan azenatzen da; baña au alde bitan bananduaz, antzetzokiaren erdi ingururaño datofen leiafezko itxitura bat. Lenengo erdiak jantokia iduri; goikoak edaritegia; ta eskuiko salmaitik biak ageri. Itxituraren leiafak-zear eta onen gañetik ere goiko alde ikusi egiten da.

Goitik erdi-erdian kanporako ate zabal leiarduna. Ezkefetik lenengo aldean, kanporako beste ate bat bafuan ustez izango da. Alde bietan: maitxo, alki ta abar onelako tokietan oi bezela; guztiak txukun eta egoki jafiak. Bear-beafeko da maitxo abetako bat ezkefetik lenengo aldean itxitura ondoan jartzea.

LENENGO AGEÁLDIA.

(Karmele, Tximutx, Soloeta jauna, bezeroak eta gero Txomin).

(Oiala jasotzean Karmele salmaian dago langile antzeko bezero bat baxo erdi edaten afean duala. Soloeta jauna, ezkefetik lenengo aldean dagoen maitxoan jafita, zerbait artu ondoren izpafingí bat irakurtzen geldituta. Goiko aldean baita, leiafezko itxitura-zear ageri dirala beste iru bezero basefitar antzekoak maitxo baten jokoan. Tximutx goiko ate zabalean, kanpoan dijoazen norbaitzuei begira bezela.

Oiala jaso ta bereala, edaten zegon bezeroak Karmele'ri "Tori" esanda berea ordaintzen dio ta eskua burura jasoaz agur egin ondoren goitik irteten du, Tximutx'en ondolik igaroaz. Au bafura sartzen da.)

Tximutx—(salmai ondora dijoala, Karmele'ri) Eztaifaten batzuk edo igaro dira ortik oraintxe. Olde-on eta jolas gogodun neska-mutil gazte taldea... Bazkari ona egiteko itxaropen nik baño ohea izango dute-tal

- Karme**le—(*ixekaz*) Berengana inguratu zaite. Bazkaldar bat gora-bera ez da gaur oien maian ezer asko ezagutuko.
- Tximutx**—(*lendik aterea zeukan baxo ardoa artuaz*) Ez ditut nere ezagunak, geiagoko gabe berengana ofela inguratu nadin. Ez naiz ofen lotsagabekoa. Gañera, ni bezelako beartsu arloterik ez du iñork aldamenean nai izaten, Karmele.
- Karme**le—Egia. Baña zeran bezelakoa izan nai dezunez, ez dezu noski gauz ofetaz zer esanik izango?
- Tximutx**—Bai orixe! Zeren etua det nik Jaungoikoak onelakoa egin ba-nau?
- Karme**le—Jaungoikoak ez du bear ez bezelako gauzarik egiten. Zuk ofelakoa izan nai dezulako zera zu beartsu arlote, Tximutx.
- Tximutx**—(*indañez*) Neuk onelakoa izan nai detalako... ez! Ludi ontan gauzen banaketa gaizki egiña dagolako... bai!
- Karme**le—(*astiro*) Betiko leloa ori zure gisakoen artean.
- Tximutx**—Noski. Begi afean daukagun egia da-ta. Ludi ontan ez gera guziok berdin bizi! (*ixil-unea*) Batzuk, (*esku biak kanporontz erakutsiaz*) ofela: bapo jan ta edanaz. Bezteok, (*esku biaz baita bere burua erakutsiaz*) onela: beartsu, arlote, goseti...
- Karme**le—(*ixeka geiagoz*) Egia diozu. Ludi ontan ez dago gauzen banaketa ondo egiña ez. Batzuk, beti lan-pean, beti neke-pean asko ta asko ikusten ditugun bezela. Besteak, beti atsedean ede-fer, beñere lan eta neke gabe, zu beti arkitzen zeran bezela...
- Tximutx**—Betiko leloa ori ere, zure gisakoen artean.
- Karme**le—Noski. Begi afean daukagun egia da-ta. Lanaren banaketa berea jaso nai izan ez duanak, sariarenean ez du ezer eskatzeko eskubiderik.
- Tximutx**—(*lotsagabez*) Ez naiz eskubide ofen gura. Lanaren saria ñatar argala oi da-ta. Egundo lanik egin gabe nai guzia dutenak, asko dira ludian.
- Karme**le—Baita beste asko, zu bezelako alper pardelak elikatzeko lan egin bear dutenak.
- Tximutx**—Tira, Karmele, sermoerik ez det nai.
- Karme**le—Ez naiz ni ere alperik jardun gura.
- Tximutx**—(*edan ondoren*) (*ez-aditu egiñaz*) Ain alpefik!, duan jardun beañez ziñake. (*praka-zakeletik dirua atera ta salmai gañean utziaz*) Tori: Baxo-erdi au ordaintzeko lain besterik ez det. (*sakel zofoa ateriaz*) Etzait txintik ere gelditzen!... ai!... ai!... ai!... bazkari ona egin al izateko itxaropen edefa!
- Karme**le—Zor dizkidazun baxo-erdiana artu al izateko itxaropen edefa!
- Tximutx**—(*lotsagabe*) oil... nik zofak ordaindu?... ori ere esan!
- Karme**le—Jakiña: ori ere esan! Nork ikusi du egundo Tximutx bear dan gauz bat egiten?
- Tximutx**—(*bereala*) Ezta bear ez danik ere.

KarmeLe—Ez ba; ezer ez egiteaſen; alpeſen alpeſez.

Tximutx—(*jarduera aldatuaz*) Entzun KarmeLe; zuretzat onura da, zor dizudanik ez ordaintzea.

KarmeLe—Geiegi aberastu ez nadin izango da.

Tximutx—Ez. Beste gauz batengatik zaizu on dizudan zofik ez ordaintzea. Ara: bereala aituko dezu. Iñori artzekorik izan ezta, salmai ontan ez zenduke nagusitasunik. Guztien otsein, guztien menpeko izan bearko zenduke.

KarmeLe—Ez dakit zer esan nai dezun.

Tximutx—Argi dago ba, (*ixil-unetxua*) (*bitarte guzian Soloeta jauna noizik bein besteai begitu, abek diardutena entzunaz beſiz ere irakurten gelditzen da*). Bear bezela berea ordaintzen dizunari nai-ta-ez beti ondo egin beaſez arkitzen zera; naiz eta atsegin ez zaizun notiña izan. Arpegi ona jafi bear, ondo egin bear, ematera etortzen zaizu-ta; bere bear zera-ta. Entzun nai ez dezun gauzaren bat esan dizula; aſefe gabe entzun egin bear. Nai ez dezun edo bear ez dan gauzaren bat emen egiten duala: zuk apal-apal jasan egin bear. Zu beti, onera ematen datorkizun guztiaren otsein.

Gauz neketsu ta gogoſa oſtera, beti burua makurtu beaſa. Baña, neke ta jasan-bear oſen aringafi gaituzu ni ta ni bezelako zor ordaintzale txafak. Beñere emen azalduko ez ba'gintzaz-ke obe zenduke-ta, gure gain nagusi izateko azkatasuna ematen dizugu.

KarmeLe—Ez dago gauz oſen antz aundirik; beintzat, etxetik jaurti ezin zaitut.

Tximutx—Etxetik jaurti ezin baña, nai guzia esan bai. Ni bezelako zor-ordaintzale nolabaitekoari, pufuxtadaxua efex....

KarmeLe—(*beti ixekaz*) Gizajo efukafia!

Tximutx—Naikoa efukafi. Zofik ez ba'nizuke, nola ausartuko ziñake jarduten didazun bezela jarduten, eta agintzen didazun bezela agintzen? (*antzartuaz*) "Kendu zaite ortik Tximutx, traban zaude-ta". "Jeiki zaite ortik, Tximutx, beste batek exerri bear du-ta". Joan zaite"... "Ixildu zaite" "Alde egin zazu"... Ta orla beti, menpekoai bezela agintzen.

Guzia, baxo-erdi batzuk zor dizkitzudalako. Dizutan zofak nere gain ematen dizun nagusitasunak, ez al du txindi apur ofek baño geiago balio?... (*ixil-unea*) Bai ondotxo!

Zordun ez ba'nitzaitzuke, zikin arlote bat naizen oni ere, zuk ondo egin bear. Zarpalu onen ere, menpeko izan bear... Oſa zergatik on ez zaizun, nik nere zofa ordaintzea. Guztien menpeko izan beaſaren nekea arintzen dizut onela.

KarmeLe—Izketan jakintsu bat dirudizu, Tximutx.

Tximutx—Izketan, eta... egiteetan dirudit orixe: Naizena,

KarmeLe—(*ixeka aundiagoz*) Soñeko jantzian ere bai.

Tximutx—(*ben*) Laister, ofetan ere bai.

KarmeLe—Bai? Ardo orde z jaboya erosteko asmotan ote zera?

Tximutx—Nitzaz arduratuko dan emazte on bat artzeko asmotan.

KarmeLe—Zu ezkondu, Tximutx?... ja! ja! ja!

Tximutx—Zergatik algara ori KarmeLe?

KarmeLe—(*pañez*) Ez da gogo makala bear. zurekin, alper pardel ofekin ezkontzekol

Tximutx—Aaaaa...ra! Zuri entzunda, edozeñek esango luke oraindaño ez dala alper pardel bat ezkondu, (*une ontan, Txomin eskuiko atetik sartu, ta auferatu gabe, entzuten atean gelditzen da*).

KarmeLe—Nik ez det beintzat zu bestekorik ezagutzen ezkondata.

Tximutx—Bai orixe; besterik uste ba'dezu ere. Gertatzen dana da, zenbaitek garaiz ezkontzen jakin izan duala. Amaren magaletik, emaztearen besoetara jafaituan; bere gain iñoiz bizi izan gabe; ta iñork ez daki ofelakoak emazte gabe zer izango ziran.

KarmeLe—Zu bezelakoak, ezkondata ere, zer diran ezagun izaten dute.

Tximutx—Ez guztiak. Garaiz zu bezelako emazte langile zintzoa artzen jakin duanari, nork igafi ezkondu gabe, bere gain, zer izango zan?

Txomin—(*auferatuaz*) Zera izango uke! Eure buruaz berdin nai ote gaituk?

Tximutx—(*Txomin'gana bira emanda*) Ofetan ezer txafik egiten al det, Txomin? Ez da iñor ludi ontan, deunen bat izan ezik, bere burua besterena baño txafagotzat duanik.

KarmeLe—(*Txomin'i*) Afapa zazu oril

Txomin—Ez efex, izketan beintzat.

Tximutx—(*goiko aterontz dijoala*) Ez beste ezertan ere ik.

Txomin—(*Tximutx'i*) Zer esan dek ori?

Tximutx—(*atetik*) (*tolez aundiz*) Ire bazkaria emazteak irabazi dikala onezkero; baña nik nerea nola edo ala irabaztera joan egin bear detala. (*bijoa*).

Txomin—Lanean edo? (*bitarte ontan zutintzen da Soloeta jauna, izpaingia tolestu ta sakelian gordeaz*).

BIGAREN AGEALDIA.

KarmeLe, Txomin ta Soloeta.

Soloeta—Tximutx ori baño notin lotsagabeagorik! Zurekin euki duan izketaldia jasan ezifnik egon naiz, KarmeLe.

KarmeLe—(*salmaetik kanpora irtenaz*) Zer egingo zaio ba Soloeta jauna! Ori ofelakoa da. Eta oketena da, ezin degula etxetik jaurti.

Soloeta—Bai, bai!... Beti emen dezute.

- Karme**le—Eta orain aldian beñere baño geiago.
- Txomin** —Zure efuz, Karmele.
- Karme**le—(ben) Nere efuz? (Soloeta'ri) Ara nere senafaren ateraldia, Soloeta jauna!...
- Txomin** —Zertan ez dezu etxetik jaurtitzen?
- Karme**le—Nik? Eta noizko zaitut? Euli bat uxatzeko ainbat kemen ez dezu, ta nik, emakume batek, efiko pardel lotsagabeai ere gogor egiteko aña izan bear ote det?
- Txomin** —(beretzat lasai-lasai) Nai dezunean ba'dezu bai, kemena (Karme'le'ri) Zu zera agitz salmaian zaudena-ta.
- Karme**le—(asefe-xamar) Bearko egon; zu egoten zeran baño zintzoago.
- Soloeta** —(jostari) Karme'le'ri) Badaki etxea zaintzeko zu bakarik naikoa zerala-ta.
- Txomin** —(len baño lasaiago) Ori esan beza Soloeta jauna. (zirikatzaile) Baña alaz guziz, Tximutx nafax ofek nai beste baxo-erdi edaten dizkio ordaindu gabe.
- Karme**le—(asefe) Ez nakizu geiegi berotu, Txomin! (salmaia erakutsiaz) Egon zaitte zu emen zintzo-zintzo, egotea dagokizun bezela, bear diran eraz gauzak egiteko.
- Soloeta** —(pañez) Txomin beti or ba'legoke, Karmele, iñoiz ere ordaindu gabe edango lioke nai beste Tximutx'ek.
- Karme**le—A zer egia! Zor dizkigun baxo-erdi guziak, berau salmaian dagola edanak ditu. Zer nai du geiago Soloeta jauna: ez dira lau egun somatu nuala berak eskatu gabe "tori" ta ematen.
- Txomin** —(bereala) Esan zazu baña, nola gertatu zan. Etxean ostatuz daukagun Lizarbe'tar Andoni jauna zegon or garagardoa artzen (ezkeřetik lenengo aldean dagon maitxo
- erakutsiaz), eta Tximutx gogaikafi ori emen zebilkion gañetik kendu ezinda...
- Soloeta** —(itza-etenaz) Beste askori bezela: zerbait kendu naiez.
- Txomin** —Bai. Ezin jasanik nengon zarpañu ori alako jaun bati itz ematen ikustea; ta emendik alde egiñaz Lizarbe jaunari pake-emateafen, baxo-erdia neretik eman nion. Ofen bila zebilien ba.
- Soloeta** —Ofelakoan gogaikafi jartzen da, bai.
- Karme**le—Eta noizko dituzu prakok, gogor eginda ez bidaltzeko?
- Txomin** —Alpefik da! Ofek ez du lotsik.
- Karme**le—(piper) Zu zera lotsik ez dezuna, Txomin, ori jakinda gauz ofen efua neri jaurtitzeko, len egin dezuna bezela!
- Txomin** —(lasai-lasai) Emakumea! Olgeta pizka bat gabe ezin izaten zaitut ezpain-zořotz ipiñi; ta nik politen onela arkitzen zaitut.
- Soloeta** —Ja, ja, ja! Au Txomin!...
- Karme**le—(alaituta) Au senar kaikua daukat, Soloeta jauna! (Txomin'i) Ez dakit zer esango nizuken!... Zoaz kaiara, ia Anton-Xiku itxasotik etofi ote dan; eta kraba edo zerbait ofela afai piñik ekafi ba'du, artu zaizkiotzu; badakizu Lizarbe jaunak

ezer danik naien afai prexkua duaġa-ta.

Txomin —Ikusten?... Nere emazteaz ezin nindeke adizkideegi egon, neskame lanak arazteko eskubidea artzen dit bereala.

Karmeġe—(atsegiñez) Tira... tira... begia baño naiago dezū or ziar ibi-
li-ta!...

Soloeta —Nik ikusten detana da, Lizarbe jaun ori guztiz aintzat dezū-
tela. Senafa, baxo-erdiak duan ematen ofen eskean dijoakionak
gogaitu ez dezan...

Txomin —(itza-etenaz) —Berak ere geiegitan eman dizkio, ofengatik
du beti gañean.

Soloeta —(berean) Emaztea... kaiako afairik prexkuenak etxeratzen,
berari atsegin zaiola-ta...

Karmeġe—Datorkigunari atsegin ematetik gure irabaz-bidea...

Txomin —*Eta Lizarbe jaunari atsegin eman al izatea norbere pozkafi*
baita.

Karmeġe—A, bai! Iñori ezer kendu gabe, jaun gazte au bezin on eta
atsegiñik, gutxi.

Soloeta —Ondo ezagutzeko oraindik aldi laburtxoa dezute... nere iri-
tziz.

Txomin —Iru ilabete etortzen asi zala; astean iru egun emen igarotzen
ditu. Zuk ondo dakizu-ta, gure etxe ontan, ostatuz asko euki
izan ditugu, ta notin onak; baña Lizarbe jaun au, befiz diot,
gutxi bezelakoa da.

Soloeta —ġala ere Jauregi'n ez omen dute ba begiko beren ilobatxoaren
senartzat.

Karmeġe—Badakizu; Antxeta'tafak aundiki utsak dira, ta ageri danez,
Lizarbe jaunak ez dakar markes-etxe-jauntzarik.

Soloeta —Ez ori bakafik; ezta jator-izen garbirik ere. (*ezkutu aundiz*)
Ez omen du guraso ezagunik. Sa...sikoa.

Txomin —Ofetaz. Zer efu du berak?

Soloeta —Berak ez. Nai-ta-ez, bere sendiaren orban izatea besterik ez.

Karmeġe—Guztiz sendi onak azia omen da ba. Guraso-orde onak...

Soloeta —Antxeta'tar Endika jaunak besteri nai baña, alabatzat azi
duan emaztearen ilobatxo zurtzarentzat...

Txomin —Zer geiago eskatu leike ba, Lizarbe jaun au dan baño, bere
jatofia alde bat utzita?... Gizonaren izakera on guztia du. On-
berrea, ondo ezia, kistar zintzoa, azkafa, izakeraz atsegiña, abe-
rats edo beintzat irabazi aundiak dituna... Zer geiago eskatu le-
zake gizon bategan?

Soloeta —ġizu: anderetxoa bera ere ez da edozein. Emakume gutxi
ġlixabete ainbateko. Ona, edefa, aundikia, aberatsa... Ez nola-
nai ere aberatsa. Txiki-txikitan guraso gabe umezurtz bakafa
gelditu zan, eta aita-amaen aberastasun aundiak osorik ditu. Ga-
ñera ezpai gabe, izeba-osabarenak ere beretzat; eta... ez makalak.

- Karme**le—Antxeta jaunak ez du bere aldeko iloba baña...
- Txomin** —Berdin da; bererik ez du; ta au umetzat azi du.
- Soloeta** —Ta guztiz maite. (*bitarte ontan eskuiko bigaŕen atetik neska-me bat sartzen da, eta Soloeta egon dan maiko ontzi utsak jasota, sartu dan tokitik ateratzen da*) Ofengatik ba, Lizarbe ere... goitik dabil...! (*ixil-unetxoa*) Nun ezagutu ote du Elixabetek Lizarbe au?
- Karme**le—Donosti'n, igaz, udaldia igarotzera joanda; mutila an bizi da-ta.
- Soloeta** —Ez alpefik!... Ez du bereala osabaren baimenik izango. Ona, baña... aundiki afoa da bere osaba.
- Txomin**—Maitasun sutsua ba'diote elkafi, eragozpen guziak gutxi.
- Soloeta** —Agitz ofela oi da, bai.
- Karme**le—Esaerak diona baña: afozarik ez arantza gabe; maitasunik ere ez, nekerik gabe. Ta oiek ere nai guztia dutela, zorionbidean arantza mingafi.
- Txomin** —A! Ezkontza geienak oi dute zerbaiten eragozpena, maitasunaren sendogafi; ta gerora, nork daki! Antxeta jaunak baietza emango ba'du ere.
- Soloeta** —Ori askotxo izango da... (*une ontan Ana Joxepa Xalxape agertzen da goiko atean*).
- Karme**le—Bada beintzat ezkontza ori dala ta ez dala, oraingoan zer esana ugari Ibergain'en.
- Soloeta** —(*Ana Joxepa ikustean*) Emen datoŕen onek ere, izango du ba ezkontza ofetza z zer esana. Baña... banoa.
- Txomin** —(*Ana Joxepa ikusita*) oi! Ana Joxepa Xalxape!
- Karme**le—(*ixilik, Txomin'i*) Itz egin zazu ixilago, gizona!
- Soloeta** —(*paŕez*) Gero arte. (*joaten da ezkeŕetik lenengo aldetik baŕuan aienatzen dala*).

IRUGAŔEN AGEŔALDIA.

Karme, Txomin eta Ana Joxepa.

- Ana Jox.**—(*sartuaz, Txomin'i*) Xalxape, bai; Xalxape; baña, nor da xalxetan nazu detan notin ori?
- Karme**le—(*paliatzaŕe*) Iñor ez, Ana Joxepa; ez da iñoiz entzun nasketa zale zeranik. Ez zaiozu jaramonik egin nere senar ganora-gabe oni.
- Txomin** —(*lasai-lasai*) Oi...! Edozeñek esango luke, goitizen ori nik jafia dezula, emakumea! Ez dizu ba efi guziak ofela deitzen?
- Karme**le—(*bereala ta asaŕe*) Zaude ixilik gizona!... Ori da itzak erasateko gogoa eukitzen dezuna!
- Ana Jox.**—(*Txomin'i bare-bare*) Baita zu... "Alpeŕondo" deitzen dize.

Txomin —Ondo deitua. Ez det ukatzen alper-xamaña naizenik.

Karmele—Ajolagabea bai beintzat.

Txomin —Ez naiz ni uskeri origatik asefetuko, Ana Joxepa.

Ana Jox.—Ez ni ere. Asefetuta ikusi nai nazu baña.

Karmele—Ortantxe atsegin artzen du onek. Ez det nik au bezelakorik ikusi.

Ana Jox.—Ezagutzen det bai. (*mantalpean dakafen bonbiltxo bat atereaz*) (*Karme'eri*) Jafi zaidazu emen txiki bat ardo-aundi goxoa.

Txomin —Txiki bat? Zu beti pitinga.

Karmele—Ta zuri zer? Joan zaite emendik, gizona, umien gisa beti jardun gabe.

Ana Jox.—(*Karme'eri*) "*Egufondo*" giza joari eraman nai diot zerbaiten bizigafia artu dezan. Neu txiroa, ta neu baño txiroagoak ere arkitu egiten ditut nabilen tokietan.

Txomin —(*adar-jotzale*) Bai, eskupeko onak ematen dizkitzuten aberatsak ere arkitzen dituzu zuk za^t iltzan tokietan.

Ana Jox.—Guztirakoak aintzat naukaten agiria...

Txomin —Bai orixe!...

Ana Jox.—Guztiai on-egiten, ez du edozeñek jakiten, Txomin.

Txomin —Nik jakin nai nituzkenak dira, zure on-egite oietako batzuen sariak; eta... zenbait sariren edestiak. (*Karmele salmaira joan eta Ana Joxepak eskatua jartzen du*).

Ana Jox.—Bai, eee? Ez nago ba iñoren jakinmirik sendatzeko!

Txomin —Badakit bai, ixilpekoak ondo gordetzen berdiñik ez dezuna. (*ixil-unea*) *Ana Joxepa'k gañeko gona jaso, ta onen bañatik daraman sakeletik txindia ateratzen du*) Nik ez dakit zer dala-ta, jafi zizuten zuri Xalxape izengoitia.

Karmele—(*Ana Joxepa'ri bonbil ardoa emanaz*) (*Txomin'i, asafe*) Orixe da jarduteko gogoia daukazuna, gizona! Ez ote dezu or beste zeregiñik, emen alpefikako befiketan jardun gabe?

Ana Jox.—Ara gauzak kezkatzen zaituna, Karme! (*Karme'ri txindia emanaz*) Utzi zaiozul Berau aspertuko da jarduten.

Karmele—Nere senafa jardutzez aspertu?... Bai befitxua ez ba'litz...!

Txomin —(*berean*) (*Ana Joxepa mantal-pean bonbila gordetzen ikusita*) Baña, Ana Joxepa!... Atso mozkoak bakafik erabili oi dute mantal-pe ezkutuan bonbil ardoa.

Ana Jox.—Bai mozkor ez diranak ere! Ez det egundo ardo tanta bat edan, baña gaur bonbil ardo au mantal-pean daramat. (*une ontan ondo jantzitako gizon bi sartzen dira goiko atetik, ta Txomin'i "Eup Txomin!" oju egin ondoren, goiko aldean ezketetik bañena joaten dira*).

Txomin —(*sartu diranai erantzuten*) Eup, adiskideak! (*abiatzen da aien-gana*).

Karmele—(*ojuka*) Txomin! Ez aztu Anton-Xiku etofi dan ikustera joateaz, e?...

Txomin —(*geldituta*) Uste det, aztu egin zaitala, Karmele; ta obe dezu neskameetako bat bidaltzea. (*joaten da goiko alde ezkefetik bañura*).

Ana Jox.—Ja, ja, ja!

Karmele—Ikusten dezu ori? neskameak beste lanik ez ba-luteke bezela!... aii! abek gizonak Ana Joxepa! Emakumeak lan eta ardurapean ler egiten gabiltzala ikusi afen, ajola gutxi; beren buruak ondo erabili ezkeru, or konpon! beste guzia. (*lenengo aldean auffera etortzen dira*).

Ana Jox.—Zure senafarena bakarik ez da ori. Beste geiagorena ere bai.

Karmele—Nerea berdintzekorik ez da ludian!

Ana Jox.—Ez zuk ustel!... Garai batean nik ere beste ofenbeste esaten nuan.

Karmele—Senafa bizi zendunean... Oraín baña, nai bezela bizi zera. Zure semea, onez gutxi bezelakoa da.

Ana Jox.—Bai orixe! Beste seme-alabak umetan zerura eramán, eta Ander au bizitz ontako pozkafi utzi zidan.

Karmele—Bera ona, ta ondo irabazi..., al Antxeta jaunén jauregiko lorezai izatea, amaikak artuko luke gaur Ibargain'en. Irabazi ona, etxe edefa bizitzeko jauregi bañutian, ta beste laguntasun asko...

Ana Jox.—Lan galanki egin beafa ere bai baña, nere seme gizajoak. Ba al dakizu ze sañak ditun jauregi ofek?

Karmele—Alaz guziz; Ander zure semea sendo ta langilea da.

Ana Jox.—Guztiaren bear izaten da.

Karmele—Eta nor ez? Gauz guzietan oi gera agitz, al degun guztiaren bear... Zuk beti izan dezu jaun oien laguntasun aundia.

Ana Jox.—Ofi eskefak ba! Bestela...! Lan ugari bai batean eta bestean, eta askotan sari ontxoak ere; baña... beste askotan!... lan eta naigabeen ordain-sari, neretik zerbait eman beafa.

Karmele—Eskar-gaiztoz ordaintzen ez bazaituzte ala ere.

Ana Jox.—A...! Guztira oi da. Baña neretik ipiñi beafa safi. Oraín bezela: Emen nabil egun abetan Egufondo'nean gizajo oni txirak sendatzen, eta, nola kendu nezaioke nik ezer sendi oni nere lansari? Iñola ere ez. Irabazi bear duana gaxorik dagon txiroaren etxean, ezer ematekorik ba'da, eman egin bear lan egiñaz gañera, (*bonbilla erakutsiaz*) Au bezela: neretik ordainduta eraman bear, beretik erosteko ez daukan efukañari.

Karmele—Bada zure beafa Ibargain'en, bai. Amaikari on egin diozu zeu beartsu izanafen. Baña Jaungoikoak ofela ordaintzen dizu. Zartzaro ona seme zintzoaren ondoan ematen dizu Antxeta' tafén bidez.

(*Bitarte ontan, Txomin salmaira ta ostera dabil, bonbil eta edontziak eramán eta ekafi bañukuak moñitzen bezela*).

Ana Jox.—(*Txomin nola dabilen ikustean*) Zuk kontuk esango dituzu Karmele, baña zure senafa zintzo dabil bezeroak mofitzen.

Karmele—Apetak ematen diona egiten.

Ana Jox.—Egin beintzat... Guri ere betiketari dijoakigu aldarte ontan astia-ta, banoa nere au eramatera (*abiatzera egiten du*).

Karmele—Ni ere bai neskameetako bat kaiara afai bila bidaltzera, Anton-Xiku'k ezer ekafi ba'du edo... Zuen anderetxoaren senar-gaia dauka ostatur, emen izaten dan egunetan, eta guztiz afai prexku zalea da.

Ana Jox.—Badet jaun ofetxengana etofi beafa. Beti etortzekotan naiz, baña badakizu guretarikoai gertatzen zaiguna: aundiagoak diranetara aurkezten lotsa edo...

Karmele—Ene! Ez zazu bildufik izan, edozein atseginez artzen dakiena da-ta. Batez ere zu, zatozen etetik etofita...

Ana Jox.—Oker zoaz, Karmele ez dakafet uste dezunik.

Karmele—Ez litzake afitzekoa izango. Lizarbe'tar Andoni jauna zure nagusi etxeko anderetxoaren senar-gaia izanik, eta itxura denez, zure ander etxeko ofek ixil edo eskutuka ibili beafa du bere ofekin.

Ana Jox.—Ez da ezer ofelakorik. Ez dizut ba esan beti etortzekotan eta ausartu ezinda nagola. Zuk uste dezuna ba'litz, beste era bat litzake.

Karmele—Uste nuan ez igartzeafen esango zendula.

Ana Jox.—Ez emakumea. Ander nere semeak gudaritzan ezagutu zuan jaun au, eta bere lagun-mutil izan zan. "Asistente" erderaz esaten dan bezela.

Karmele—Ander Lizarbe jaunaren asistente?

Ana Jox.—Bai, emakumea. Zerk afitzen zaitu?

Karmele—Ez nekian jaun au gudaría zanik.

Ana Jox.—Izandua. Orain ez da.

Karmele—A!...

Ana Jox.—Nere semeak asko zor dio; guztiz ona izan zan beretzat, eta Jaungoikoak ala naita, orain gure artean degunez, ez nuke gelditu nai ama onek biotz bafenean beretzat gordetzen duan esker-on eta onginaia azaldu gabe.

Karmele—Ba... Ana Joxepa, igo zaite oraintxe berarengana, etxean dago, ta ondo artuko zaitu. (*eskutik lenengo atea erakutsiaz*) Goazen; neronek lagunduko dizut.

Ana Jox.—Ez bainaiz asmo ofezaz etofi!

Karmele—Ta zer? Ez zaizu bestela noiz-nai egokituko etxean arkitzea. Beti or dabil ba, bere maitearen ondoren...

Ana Jox.—(*bere buruari begiratu ondoren*) Ez nago ba txukun-txukuna ere ofela, batengana onela aurkezteko baña...

Karmele—Ondo zaude emakumea. Goazen.

Ana Jox.—(bere buruari befiz begiratu ondoren) Zaude ba; Lenengo Egufondo gizajoari eraman egingo diot au; ta bereala etofiko naiz. (une ontan Txomin befiz salmai'ra etofi, ta bertan gelditzen da).

Karmele—Baita. Ofela obeto da.

Ana Jox.—Bai. Gero arte ba.

Karmele—Gero arte. Ni ere sukaldera noa neskamea kaiara bidaltzera. (Joaten dira biak salmai-au'etik igaroaz, Karme le eskuiko biga'fen atetik eta Ana Joxepa goitik).

Txomin —(besteak dijoazela) Ai ai ai!... Karme le!... Karme le!... Txomin'i esan, baña ara Txomin orain bere tokian zintzo...

LAUGAREN AGEÑALDIA.

Txomin, Lizarbe'tar Andoni, ta gero Karme le.

Txomin —(ezke'etik bañuan dauden norbaitzuei) E! Tomax! begiak argi, eramango dik bestela (norbaitek bañutik) "Ez diat bildufik, neretzat dek! (sartzen da Lizarbe'tar Andoni eskuiko lenengo atetik).

Lizarbe —(salmaira gabe, lenengo aldean geldituta) Karme le bañuan al da, Txomin?

Txomin —Bai, jauna. Deitzea nai al dezuz?

Lizarbe —Zeuk esatea berdin izango da. Adiskide bat datorkit oraingo bultzian, eguna emen igarotzera, ta nerekin bazkalduko du. Au da esan nai niona; bazkaria birentzat jafi dezan.

Txomin —Ongi da; nere kontu. Esango diot Karme le'ri. (sartzen da Karme le, joan dan atetik).

Lizarbe —(Karme le ikustean) Ara nun datofen bera.

Txomin —Entzun Karme le? Lizarbe jaunak dio, adiskide bat datorkio-la gaur, beronekin bazkaltzera...

Karmele—Ondo da jauna; zer jana izango dute.

Lizarbe —Ofela uste det; ondo ematen zale zera-ta.

Karmele—Poztutzen nau ofezaz.

Lizarbe —Bakoitzari berea, Karme le.

Txomin —E'ta nere emazteari ostalari onaren ospea.

Lizarbe —(pa'ez) Bai, bai, zuzentzaz dagokion ospea du.

Txomin —(Lizarbe'gana urbilduaz) Eskefikasko... Adiskideren bat datorkio beraz?

Lizarbe —Adiskide aundi ta on bat, bai. Zeregin batek dakar onera, ta biok emen egokitzen geranez, elkafekin bazkalduko degu.

Txomin —(salmaian dagoan tokitik) Jakinmiñez nabaitzen dezunari, ez zaiozu ezer esan, Lizarbe jauna.

Lizarbe —Ez det zure emaztea iñoiz ere ofela nabaitu izan, Txomin.

Karmele—(lotsatuta) Gizon befitxuagorik!

Txomin — (*berean, Lizarbe'ri*) Emakumea, jakinmiña ez ba'da, ez da emakume.

Karmele— (*asefe*) Eta gizona, befitxua ba'da, ez da gizon-erdi ere.

Lizarbe — (*pañez*) Ez zaite ofegatik minberatu Karme; zure senafa jostari ari da-ta.

Txomin — Ez, jauna, ez: benetan ari naiz.

Karmele— Jardun zazu ba, nai dezun eraz; ofetarako ohea zera-ta. (*Lizarbe'ri*) Galde ori egin dizut ba, lentxeago emen izan det zu ikertu nai zaitun andre bat, eta laister etortzekoan gelditu danez, adiskide ori badatorkizu, bere ikerpena ufengorako utzi dezala esango diot andre ofi.

Lizarbe — Nor da bera?

Karmele— Ana Joxepa Xalxape deitzen diozun bat.

Txomin — (*Burutik egindako deiari bafuak baietz bezela erantzun ondoren*) Ana Joxepa Xalxape'k Lizarbe jaunaz itz egin nai dua-la?... Ea xalxaren bat dakarkizun.

Lizarbe — Zer ba, naspil-zalaren bat al datorkit?... Nor da bera?...

Karmele— Ez bezaio nere senafari jaramonik egin. Andre on bat da. Xalxape goitizena du, baña ez iñor naspiltzen ibili-zalea dalako.

Lizarbe — Ez dakit nor izan diteken... (*beñiz ere buruaz baietz bezela erantzunda, Txomin ezkefean goikoaldetik bafura joaten da.*)

Karmele— Jauregi'ko lorezaiñaren ama.

Lizarbe — Ander'en ama?

Karmele— Semea gudaritzan zure asistente izana dala edo esan dit...

Lizarbe — Egia. Ta ondo mutil zintzoa... Baña ez nekian bere amak ofelako goitizena zuanik. Naspil-zalea ez ba'da, zergatik goitzen ori?

Karmele — Lan mota guzitakoak egiten dakien oietakoa dalako edo... ez dakit. Edozertan daki: jostun..., sukaldari.... osalari.

Lizarbe — Besterik ez?

Karmele— Guzitara berezia da. Aurgintzetan laguntzale: Ana Joxepa. Iñun txefi-ilketarik ba'da, lukainka-odolkiak egin eta urdaiak gazitzeko: Ana Joxepa. Ezur atereak beren tokitan jartzeko: Ana Joxepa... Iñor il ba'da, ilotzak jantzitzeko: Ana Joxepa... Ludi ontara oker-bidez etofi dan efukafia ixilpeko tokira eramateko: Ana Joxepa. Ipoteka ta diru artu-eman kontuan bitartekotzat: Ana Joxepa. Egokien jositako alkandorak, Ana Joxepak egiñak. Isterikoa sendatzeko ta aundituak sornatzeko enplasturik onenak: Ana Joxepak. Ebaki ta...

Lizarbe — Ja ja ja!... Ez da makala Ander'en ama ori! (*Txomin ezkefetik ta goiko aldean leiafar-zear, jokoan ari diranai mai-ondoan gelditzen da abei begira*).

Karmele— Berdiñik ez du.

Lizarbe — Ez da efex ofelako bat berdintzen. Andre atigafia!... Pozik

ezagutuko det ba Ana Joxepa diozun ori-ta, datofenean aurkeztu zaidazu, berekin izketaldi bat euki dezadan.

Krrmele—Bakafik ba'zaude, ezta?... (*une ontan goitik Ander ta Pikutegi sartzen dira. Ordukariari begitzen du Lizarbe'k*).

Lizarbe—Ene, bultziaren ordua det! Banua laisterka. (*abiatzean Ander ikusita*) Agur, Ander! (*joaten da, ezkefeko lenengo aldetik bafura*) (*Ander'ek burura eskua jasoaz agurtzen du*) jokolariak zutintzen dira ta Txomin'i zerbait ordaindu ondoren, goitik joaten dira. Txomin salmaira igotzen da; ta Karmele, sartu diranak buruaz agurtuta, eskuiko bigaŕen atetik joaten da).

BOSGAŔEN AGEŔALDIA.

Txomin, Ander ta Pikutegi.

Pikut. —(*salmai ondora datozela*) Ori dek agur maitekoŕa egiten dikan jaun ofek, Ander.

Txomin —Ez al dakik Pikutegi, maitearen etxean, ormetako aŕi zaztefetaraŕokoak maitagaŕi oi dirala?... Ander, Antxeta'eneko jau-regi baŕutian bizi dek mutil.

Ander —(*entzun=gor egiŕnaz*) Atera bi baxo-erdi Txomin.

Pikut. —Bi baxo-erdi ta... beste zerbait geiago ere bai, Ander.

Ander —Zer nai dek ?

Pikut. —Mokarutxo bat; zerbait.

Ander —(*Txomin'i*) Zer dezute?

Txomin —Okela edo aŕaitik?

Pikut. —Lukainka mutur bat aski da, gizona!

Ander —Muttur luzea baŕa. Atera, Txomin. (*Txomin'ek ematen dio eskatua*).

Txomin —(*zirikatzaŕe*) Orduan... agur argia Lizarbe jaunak Ander'i. E, Pikutegi?

Pikut. —Uuu!... Ofelako jaun batek, guretarikoai egin oi ez dion bezelakoa.

Txomin —Ai danez, anderetxoak bere senar-gaiaz itz egiŕteko ixilpe-xamaŕez bear du, ta... baleike Ander'gan berak bear duan gez-nari zuŕa izatea.

Ander —(*janaz*) Ez dute nere beafik. Bestetik, Lizarbe jaunak, Jauregi'ko anderetxoa baŕa lenagoko ezaguna nau; ta ezagun aundia.

Pikut. —I...? Ago ixilik mutil!... nungo ezaguna? Ik ez ba-dek egundo Ibergain'dik iŕora irten! (*jaten du*).

Txomin —Gudari izan zan beintzat.

Ander —Eta gudaritzan, Lizarbe jaunaren asistente.

Pikut. —Ez dek egia!

Ander —Egi-egia.

- Txomin** — Nola baña, jaun ori gudarí ez bada?
- Ander** — Lenago ala zan.
- Pikut.** — Ofela ba'da... ez dek afitzekoa egiten dikan agufa.
- Txomin** — Gudarietakoa izan da beaz?... Ez zendun nagusi txafa izango! Gizon obeagorik ...!
- Ander** — Ondo ezagutzen det bai. Berari zor diot Euzkadi'ko lur maitea edertzen duan eguzki argia ikustea, ta nere amaren abots ezitia entzunaz onen ondoan bizi al izatea.
- Pikut.** — (*beraala*) Zer ba, mutil?
- Txomin** — Ara! (*ixil-unea, jan eta edaten dutela*).
- Pikut.** — Edestu zak, mutil, gertatu ori. Zer izan uan?
- Ander** — Euzkotar askori gertatu oi zaiona. (*ixil-unea*) Joan nintzan ba gudaritzara, euzkotalaioi atzeñian egin-arazten diguten mofoitza ori egitera, nere amaren magalean ikasitako euskera beste izkuntzik ez nekiela.
- Pikut.** — Ez agoan besterik jakitera beartua ere-ta.
- Txomin** — Bakoitzak berea.
- Ander** — Ez dute gudaritzan ori ofela aitzen... Ba zan gure buru, sargento begi gofi, tafar bat; basakarana baño beltzago. Itxazertzean gelditzen dan apakiña legortutakoan oi dan baño igarago, ta piper miña baño efeagoa. Utx bat. Ara Zegama'ko maldetan ipiñi ezker, aizeak eramango. Ain zan ezereza!
- Pikut.** — Nungoa ote zan bera!
- Txomin** — Zera...! Ez beintzat Aizkofin jaioa.
- Pikut.** — Zitalen bat izango zan.
- Ander** — Esango diat. Istruzioa edo dalakoa ikasten ba, ta... itzik ez nioan ulertzen! Ura zan lana!... Aren marmarketal aren gaizki esateal... Aren biraoa, oker egiten nuan bakoitzean. Ezin jasan izaten nuan!
- Pikut.** — Koldafen bat...
- Ander** — Koldafa baño ere geiago. Bein, an zebilen bestetan baño ere kordar eta pipefago; ta bira erdi bat oker eman nualako, jeiki zan oin puntetan, eta birao zikin bat esan ondoren, plast! eta belafondoko₂ bat eman zidan.
- Txomin** — Ara!
- Pikut.** — Bat baño geiago artutakoa nauk neu ere.
- Txomin** — Eta?...
- Ander** — Eman zidan belafondokoak baño geiago minberatu nindun, naskagafi aren mingain loa Jaungoikoaren aurka ausartzeak. Ez dakit egundo ezerk ainbeste sutu nabon! Eldu nion lepazamañetik, eta... luñera jaurti nuan!... Antxe oinpean zapal-zapal egingo nuan, beste lagunak kendu ez ba'ninduten.
- Txomin** — Mutil...!
- Pikut.** — Ez eban txafa egin!

- Ander** —A!... laister nintzan itzalpean lotuta. Ez toki edefean, ene Jaungoikoa! noiz-baño-noiz gudaiburu epaikarien aufera eramango ninduten zai.
- Pikut.** —Eta?...
- Txomin** —Zure buruaz etsiko zendun?
- Ander** —Banuan ziorik asko ere. Igartzen nuan nere efuarentzat gudari legeak zigor gogofa zutela,... Ta koldar aren gaiztakeria epaikariai esaten jakin ez!... Ura zan lafia!... Leotz ilun artan igaro nitun orduen lafia ez zait inoiz aztukol!
- Pikut.** —Guzia eurea ez dan izkuntz bat jakifinezagatik!
- Txomin** —Ori dek. Beren izkuntza guretzat beafeko; gurea berentzat ez.
- Ander** —Ontan, nere kapitan Lizarbe'tar Andoni au, espetxeko zaindari bat lagun zuala, nengon tokira etofi zitzaidan. Guziz tamal, euskeraz galde egin zidan; "Baña, zer egin dek, mutil?" Ez dakit nola esan, nere bañuan igaro zana euskera gozoz kapitana ala mintza zitzaidanean; ez nekian ba euskelduna zanik... Poza, bildufa, itxaropena, atsekabe samina...; erabat biozkada berdineza sortu ziran nigan; eta guzien indafak jaurtita bezela, bere onetan erori nintzan... Baita egia aitortuko dizutet: negafari eman nion!
- Pikut.** —Ez zan gutxiagotako! (*Goitik, basefitar antzeko gizon bat sartzen da, ta goiko aldean ezkefeko maitxo baten jartzen da leiafari=ziar agerian*).
- Ander** —(*edesten jafaituaz*) Eldu nindun, jeikitzen laguntzeko, baita gerta zitzaidana edestu arazi ere. Nerea entzunda esan zidan: "Zuk egin dezunarentzat, gudari-legeak zigor gogofa dute; baña ez estutu: emen daukazu euzkotar anai bat, eta nere al guzia zu gaizkatzen jakiko det. Ez det inola laketuko afortzaren izkuntza ez dakizula-bide, koldar batengatik, zugan efu-nekerik erori dedin." (*ixil=unea*).
- Pikut.** —Eta...?
- Ander** —Esan bezela egin ere: ordu-bete baño len nintzan azke. Ta ez au bakafik. Une berean bere asistentetzat deitu nindun; eta berekin ezin esan bezin ondo gudaritza-aldia igaro nuan.
- Txomin** —Ofa!
- Pikut.** —(*afituta*) ez diok gutxi zor jaun ofi, Ander!
- Ander** —Asko.
- Txomin** —Ta... ala beafa; befiz ere eure nagusi izango dan itxurak daude.
- Ander** —(*iriparez*) Ez dakit ba...! Ez nuke besterik nai!... Nik artu nuan poza, orain neure anderetxoaren maitale emen azaldu zanean! (*ixil-unea*) Baña... ez dakit nere poza ames-uts biurtuko ez ote dan.
- Pikut.** —Baietz uste diat. Nik entzun detanez, Antxeta'tar Endika jaunak, etxe-jauntza aundiki bat edo geiago besapean ez daka-

fenik ez du nai ilobaren senartzat.

Txomin —A!... ezkontzarik geienak eragozpen bidetik joan oi dituk apaizarengana.

Ander —Ofelako bat ba'litz!... (*Karmele ateratzen da eskuiko bigarren atetik, ta unetxo baten goiko maitxoan zerbait norik eman zai dagon basefitafari begira gelditzen da*).

Karmele—(*salmai ondora urbilduaz*) Baña Txomin: Ez al dezu ikusten gizon ori zai daukazula?... Au ganora!... Kontu-kontari jartzen zeranean, ez dezu jakiten noiz amaitu. Au lana!... Norberak danean egon bear; bestela...! Ikusten ba, beti emen ezin egon nindekela, sukaldean, sukalde ta abar zeri begitu bear aundiak ditudala, ta ala ere, ezin emen zintzo begitu. Au lana!

Txomin —Emakume befitxu abek ere ba...! Utserako istilua besterik ez. (*Karmele'ri*) Zer dezu? gizon ori zai?... Ba, bear duana emateko ez dezu senafari oju egin beafik. Ixil-ixil, ta apal-apal bear duena eman ta bira ostera ere sukaldean begitzera. Ofela zera bear bezelako etxeoandrea.

Karmele—(*asefe*) Bearko zuregatik! (*joaten da goiko aldean maian zai dagon basefitafagana, ta onek eskatua emateko bezela, gero salmaira, emendik zerbait eramanaz*.)

Txomin —(*Karmele'ri zirikatzaile*) Andrak maitagarrien dira, langile diranean.

And. ta Pik.—Ja, ja, ja! (*joaten da Karmele bigarenetik*).

SEIGAÑEN AGEÑALDIA.

Txomin, Ander, Pikutegi ta Azpeiti.

Azpeiti —(*goineko atetik, besoa jasota, ojuka*) Pikutegi'ren bila inor ba'da, betor Txomin'enera!

Txomin —Ara Azpeiti zalaparta!

Pikut. —(*Azpeiti'ri*) Aundia dek xapuen leloa! Nun dabiltzan adierazi egin bear. Beti ere: Klin!... Klon!

Ander —Ja, ja, ja!

Azpeiti —Aizak, Pikutegi: xapua, Azpeiti'n; baña... santuak ere bai.

Pikut. —Emen dek Aita Saniñixio katilura!

Azpeiti —Aizak: Xapua dek xomofo bat, Azpeiti'n bezela beste eñietan ere sortzen dana: baña Aita Saniñixio bezelako semerik, Azpeiti'ko urian bakarik.

Ander —(*Pikutegi'ri*) Eldu eiok orri!

Pikut. —Baña, xapua beti xapu; santuak jaio ziran eñietan ere.

Azpeiti —Artuko zendukete besteetan alako Seme Aundi baten aintza. Baña... zuenik ez dezute-ta inorenaz afotu bear. Euzkotaña zala-ta, a zer pozik esaten dezuten "Gure Iñaki Aundia"...!

- Pikut.** — Esango ez diagu ba? Euzkotar bezela.
- Ander** — Abendari elduta...
- Azpeiti** — Bai, eeeee?... Ba., Aita Saniñixio guztiona ba'da, xapuak ere banatu egin bear dizkiagu, ta ez zuen solo ta baratzetan sortzen diranak ere azpitiafai egotzi.
- Txomin** — Egia; Azpeiti.
- Ander** — Ez adi baña origaitik asefetu.
- Azpeiti** — (*Ander'i sorbaldan joaz*) Ez nago gaur euaz asefetzeko. (*Txomin'i*) Atera bi baxo-erdi, txuritik. (*Ander'i*) Joku bat egin diat, Ander.
- Ander** — Zer joku?
- Azpeiti** — Nai bezela, jostaketan, irabazi besterik ez dekan jokua.
- Ander** — Nik...?
- Azpeiti** — Bai. Urmeneta'kin partiru bat eskuz-esku, amasei tantora, sakea azke.
- Ander** — Nik jokatzeko?...
- Azpeiti** — Bai; datofen igandean, ik Urmeneta'ren kontra jokatzeko.
- Pikut.** — Beronen befi gabe jokua egin?
- Ander** — Jokatuko dek euk nai ba'dek!
- Azpeiti** — Ez eik ofelakorik esan jokua nola dan jakin gabe.
- Ander** — Dan bezela dala ez diat jokatu nai.
- Azpeiti** — Entzun zak baña!... Amar ogerleko egin dizkiat. Galtzen ba'dek nere bizkar; eta irabazten ba'dek, biok erdi bana. Gaizki al da?
- Pikut.** — Ez da gaizki, ez; iretzat joku ona, Ander.
- Txomin** — Polita jokua!
- Ander** — Joku ona naiz txafa; zer dala-ta nere befi gabe egin bear dek ik Azpeiti?
- Azpeiti** — Mutil... gaizki etofiko al zaizkik bost ogerleko oiek?
- Ander** — Gaizki naiz ondo: ik agintzen al dek nere buruaz?
- Pikut.** — Ez diok gauzeari alde ortatik begitu bear, Ander.
- Azpeiti** — Nik beintzat uste onez egin diat.
- Txomin** — Jakiña. Ta nai bezela bost ogerleko irabazteko bidea.
- Ander** — Ez dago gaizki nai bezela! (*Azpeiti'ri*) Ik bai, nere bizkar nai bezela irabaziko itukek, batere neke gabe.
- Azpeiti** — Ta galtzen ba'dek?... Nere bizkar dijoazen amafak befiz irabazteko, ik baño neke aundiagoak artu bear.
- Ander** — Euk nai-ta.
- Pikut.** — Ik Ander, Urmeneta'ri partiru ori... lo agola ere irabaziko diok!
- Azpeiti** — Bai, gizona!
- Ander** — Ez dakigu!... Urmeneta, ondo jan, eta nai bezela ibili, ezertan nekatu gabe...; ni baña aspaldiko egunetan lepaka loretegi-rako altxifi jasotzen. Esan zak Pikutegi, zer lan dan ori, gaur ortan abil nere lagun-ta.

- Pikut.** —Bai...! neke aundiko lana da; baña gau-ta-egun atsedean gabe, ari baintzake, ere, ik ez dek Urmeneta'ren bildufik.
- Ander** —Nola izango dek ba au, pelotan, eskañu aren bildur?
- Txomin** —Ez dakit nola ausartzen dan ere, onekin jokatzen. (*neskamea eskuiko bigafen atetik sartu, ta goiko aldean-zear, ezkefean bafura igarotzen da*).
- Azpeiti** —(*neskameari*) Eeee...up!..... zer?... begitu ere egin gabe?... Pikutegi emen dagoalako edo?... Ario panpoxa! (*Pikutegi'ri*) Ire andregaiia mututu egin dek...
- Pikut.** —Bai, emakume ez ba'litz.
- Ander** —(*Txomin'i*) Zenbat da Pikutegi'rena ta nereea?
- Txomin** —Laurleko bat.
- Azpeiti** —(*Ander'i*) Ta...? Zertan gera, adiskide?
- Ander** —(*Txomin'i berea ordainduaz*) Ez diat jokatu nai.
- Azpeiti** —Mutil...! Siñalia galdu araziko diak!
- Ander** —Or konpon, ontzufeá bota ba'dek ere.
- Azpeiti** —Ez diak ofelakorik egingo!
- Ander** —Bai, bai!
- Pikut.** —Nik, jokatu egingo nitek, Ander.
- Txomin** —Bai nik ere!
- Ander** —(*legor*) Nik ez! (*abiatzen da goitik kanporontz*)
- Azpeiti** —(*Ander'i besotik eldu ta geldituaz*) Ez adi joan, mutil, itz egin bear diagu-ta.
- Ander** —Bai..., nere nagusiak ori esaten ba'du!
- Azpeiti** —Ire nagusia, onera natoñela ikusi diat, bere andrearekin egurastan Añorbe'rontz dijoala; eta... anderetxoa beñiz... zubi ondoan senargaiáz izketan, i non aizen ardura aundigabe, an egongo dek.
- Txomin** —Ez; aren senargaiia, emen etxetik da.
- Ander** —Berdin da; nagusiak etxean egon edo ez, nik nere bearbuna bete bear det, artu bear genduna artu degu ta, goazen Pikutegi (*abiatzen dira*).
- Azpeiti** —Baña Ander...!
- Ander** —Ez diat nai. Lanera goaz.
- Azpeiti** —Irabazi besterik ez dekan jokua ofela utzil
- Ander** —Ufengorako ofela joango zaik, iñoren buruaz agintzeko auserdia!
- Azpeiti** —Origatik dek? (*joaten dira Ander ta Pikutegi goiti*.)
- Txomin** —Ez dek beretik aterako gaurkoan ori, Azpeiti.
- Azpeiti** —(*berea edan, eta ordainduaz*) Atera ez? Bai, bai!... Paliatuko det nik ori.
- Txomin** —Ez dakit ba...!
- Azpeiti** —Bai, gizona, bai. Ikusiko dezu oraindik... Baña, orain ba'noa. Gero arte, Txomin. (*joaten da goitik*).
- Txomin** —Gero arte, Azpeiti.

ZAZPIGAREN AGEÁLDIA.

Txomin eta Karmele.

Txomin —(*salmaia txukunduaz*) (*beretzat*) Nere atxoak gaur, zeregin aundiak ditu bañu ortan. Sukaldean sartu da, ta... norik atera bertan zeregin aundiak ditula buruan sartzen ba'zaio!...,..... Ta nik ordu ontan Bizkai'gana joan bear, ari jasotzeko jokuaupadea iñork jaso ote digun jakitera. (*ixil-unetxoa, salmaia garbitzen ari dala*) (*zaztafa jaurti ta bat-baten*) E!... Deitu egin-go diot. (*eskuiko bigařen atera joan eta bañura deika*) Karmele! (*ixil-unetxo baten ondoren*) Karmele! (*salmaira biurtu ta beñiro au txukuntzen jafaitzen du*).

Karmele—(*eskuiko bigařen atean sartuaz*) Deika al ziñan, Txomin?

Txomin —Deika nintzan bai, Karmele... Onara etofi bear zerala esan nai nizun, Bizkai'gana joan beafa daukat-eta.

Karmele—Orain?

Txomin —Bai; oraintxe.

Karmele—Zertara baña?

Txomin —Zertara?... Esan gabe ere, igefi bear zenduke...

Karmele—Uste dezu, ez detala igertzen?

Txomin —Zertan galdetu orduan?

Karmele—Izango dezute joku-traturen bat orain ere.

Txomin —Bai, ta zer?... Ez beintzat etxerako kaltean. Nik jokuak antolatatu; ta zuk joku-egunean emen nai aña saldu... Egia ezta?

Karmele—Bai... baña... orain ezin joan zindezke. Badakizu Lizarbe jaunak beste bere lagun bat dakafela bazkaitara, ta Koxme'kin jatera baita maixua dator; oiek goian. Emen bean baita zortzi basefitar ditut, añobiko argiñak, batzar bat dutela-ta. Ezin zindezke joan Txomin, ezin zindezke. Nik sukaldekoari lagun egin bear diot.

Txomin —(*astiro*) Orduan... neskame bat bidal zazu onara ta zaituko du berak.

Karmele—Neskameak aruntz eta onuntz, beste zeregiñetan ari dira.

Txomin —Ba jafi zazu emen nai dezuna, nik orain joan egin bear det.

Karmele—Ederki eman ere! etxean onenbeste lan dagola!

Txomin —Zer lan gero! Emen garai ontan ez ba-dabil iñor; ta sukaldean ere egunoro baño geiagorik ez. Lan ugariagorik izaten degu beste egun batzutan! Ni banoa. (*abiatzen da goirontz*).

Karmele—Baña gizona! Dagoana dagon eraz utzita: Nora zoaz garai ontan?

Txomin —(*lasai-lasai*) Esan dizut... Ez da gaur gure etxean astirik ezik.

Karmele—(*aseñe*) Ondo da! Ez da gaur gure etxean astirik ezik, baña, zu al zera beñi azke or-ziar ibili bear dezuna? Besteok noiz?

Txomin —A!... nai dezunean!... Zoaz oraintxe... zoaz.

KarmeLe—Orain?... onek esango ditunak!

Txomin —Nik esango ditudanak, ez; ni geldituko naiz emen, eta joan, joan... Ez neri esan beti azke or-ziar nabilenik. Joan zaite, joan, bereala.

KarmeLe—Baña gizona: nora ta zertara ni joan?

Txomin —Orduan... zer esaten ari zera?... Nik ba-det nora ta zertara joan; zuk ez; geldi zaite etxean. (*abiatzen da goiruntz*).

KarmeLe—Gizona!... Txomin!... (*Lenengo ezkefalde bañura erakutsiaz*)
Ara nun datofen Lizarbe jauna bere adiskideaz! geldi zaite gizona!

Txomin —(*atetik, lenengo buruaz ezetz, gero eskuaz agur egiñaz*) Gero arte. (*bijoa*)

KarmeLe—Jaungoiko maitea! au senar kaikua eman zenidan... Zuk eman, edo... nik artu..... A! txafagoak ere oi dira-ta!

ZORTZIGAREN AGEĀALDIA.

KarmeLe, Lizarbe ta Anduaga

Lizarbe —(*Anduaga'kin ezkefeko lenengo aldetik izketan sartuaz*)
Oraindik amabietara, garağardoa artzeko lain asti ba-degu.
Exeri zaite, (*Ezkefean lenengo aldetik leiafezko itxitura ondoan dagon maitxoan exertzen dira*).

Andua. —Ordu ofetan, jaun ofen etxean egon bear naiz.

Lizarbe —Esan dizut: elkafekin bazkalduko degu.

Andua. —Atsegin izango det ofetan. Etoñiko natzaizu, ikerpen ori eginda.

Lizarbe —Eskefikasko.

Andua. —Eskefak, zuri. (*KarmeLe salmaitik jetxi ta abekgana etortzen da*).

Lizarbe —(*KarmeLe ikustean*) Ara emengo nere etxeoandrea, Anduaga. (*Karmeleri*) Jaun au, gaur nerekin izango dan bazkaldafa, KarmeLe.

Andua. —Poztutzen naiz ezagutzeaz.

KarmeLe—Berdin, ni ere.

Lizarbe —Etxekoandre adikor, opatsu ta on-ona nere au.

Andua. —Badirudi.

KarmeLe—Eskefikasko. Baño Lizarbe jaunarentzat ona izaten ez da zail. Berez da ezer txafik ez diana.

Andua. —Baita; aintzat daukat berau ere.

Lizarbe —Afotu egingo nazute.

Andua. —Jakingo ote zenduke afotzen?

- Karmele**—Ori! (*aldatuta*) Zer bait artu nai al dute?
- Lizarbe** —Bai; garagardoa.
- Karmele**—Bereala. (*joaten da eskuiko bigafen atetik, eta bereala befiz irteten du*) (*salmaian gelditzen da*).
- Lizarbe** —Beraz, beste egiteko gabe, bezero ori ikustera etofi al zera?
- Andua.** —Beste egiteko gabe. Bezero ona det; eta onelakoai, urtean bein ikustaldi bat neuk egiteko oitura det... Ez det nai izaten saltzale-mofoien gain bakafik utzi, erostun-kikoa eukitzea.
- Lizarbe** —Zu beti azkafa. Ofela saltzen dezu nai guzia, ta onaroan zaude.
- Andua.** —Esaten ari zeran ori ere ba...! Bost urte besterik ez dira gudaritza utzi ta daukazun ola ori jañi zendula. Asieran, ogei langile zenduzen, orain eundik gora. Ez dakit geiago eskatu leiken. (*eskuiko bigafen atetik neskame bat sartu, ta salmaian Karmele'k eman dion bonbil garagardoa ta ontziak ipintzen dizkie*) (*ixil-unea bitarte ontan*).
- Lizarbe** —Bai; lan asko ta irabazi onak ditut nik ere Jaunari eskefak, zerbaitetan adu ona bear det.
- Andua.** —Zertan ez dezu zuk adu ona oraindañokoan? Guzia ondo irteten zaizu, (*olgetan*) eta... gauz guzietan bikain izateafen, biotzak maitatu nai izan dizunean,... zuzen-zuzen... inguru abetako anderetxo aundikiengana jo dizu.
- Lizarbe** —Aundikiengana ez; Elixabete on, atsegin, eder zoragafiagana.
- Andua.** —Berdin da. Aur zoragafi ori aundikia ba'da, ofetan zure adu ona.
- Lizarbe** —Edo nere zoritxafa.
- Andua.** —Ez al zaitu berak maite?
- Lizarbe** —Maitasun sutsuz.
- Andua.** —Orduan...
- Lizarbe** —Zuk esan dezu, Anduaga: Elixabete aundikia da. Baña ni...
- Andua.** —(*uste-oso*) Zu, Andoni, emakume aundiki baten laingo gizon zintzo, jakintsu ta aberatsa.
- Lizarbe** —Guzi ofen gain izen aundiki bat beafeko ba'zait bere lain izateko?
- Andua.** —Maite dezunaz ezkondu al izateko eragozpen al zaizu izen aundikidun ez izatea?
- Lizarbe** —Eragozpen aundi.
- Andua.** —Bere izen aundi ta guzti, ez da zure lain.
- Lizarbe** —(*tama!*) Jaungoikoa afen!... ez ofelakorik esan, Anduaga! Elixabete, onoitu ta Jaungoikozalea da. Badaki zenbaterano aintzat artu bear diran ludiko aunditasunak; eta ez dio nigan akatzik arki-arazten nere jatofi ezkutu ilunak; gurasoak nor-tzuk ditun ez dakian sasiko onen izen txiroak...
- Andua.** —Ofela izanik...

- Lizarbe** —Guraso-orde ditun bere osaba-izebak dira ofetan beste iritzi bat dutenak. Berentariko batez izan ezik, ez diote ezkon-tzen utziko. Gutxiago nerekin.
- Andua.** —(*ixil-une baten ondoren*) Ta zer?... Berealatik lortu nai de-zun zoriona iritxi al izateko luzagafi bat besterik ez da ori, zure maitea bere buru-jabe izatera eldu arte itxaron beafa.
- Lizarbe** —Eragozpen ofek konturatu arazi nau baña maitasunik garbi ta edefenez bere jatofi aundikiaren izen garbia ematen didan emakumearentzat, jatofi ezkutu baten izen kutsutua besterik ez detala, ta...
- Andua.** —(*bereala*) Jatofi ezkutua dezulako ez du kutsurik zure ize-nak; ez onik ez txafik. Dezun izena zeure-zeurea da; iñorgan-dik artu gabe zeuri ezafia, ta zeure izakera zindoaz aundikitua.
- Lizarbe** —(*tamal aundiz*) Adiskide on bezela, neretzat itz pozkafiak dituzu, Anduaga. Eskefikasko... Baña, ez dakizu ezkutuaren itzalpean ludira jaiio giñanon gogo-oñazearen befi!... Ez dakizu zer dan, guraso nolabaitekoen susmoa biotz bafuan nabaitzea!... Ez dakizu zer dan, gurasoak ditugunik aipatzeaz lotsatu bear izatea..... Ez dakizu zer dan, emakume zoragafi baten maita-sunean biotza gozatuaz; ixileko oñaze ori arintzeko itxarope-nak poztu gaitunean, zio beragatik maitearen neke-bide izatea!...
- Andua.** —Kezka oiei leku ematekotan, Andoni, maitasun ori ezintzat uztea onena.
- Lizarbe** —Biotzaz ezin leike nai danik egin; beregan sortu bear duan indar bat da naia.
- Andua.** —Adimen zuzen-bidetik ibiltzen ere, ondo daki.
- Lizarbe** —Afen!... Aipatu ere ez ofelakorik!... Nere lei ta ardura guz-tien zergatia, Elixabete da; bizia baño naiago det bere maita-suna.
- Andua.** —(*edatez amaitu ta jeikitzen da*) (*iñipafez*) Ez da efetz zure gai-tzari osagaia arkitzea! Aundiki bat maitatzetik zoritxardun zerala, egiz esan dezakezu bai.
- Lizarbe** —Nor zanik nekien baño len maite nuan.
- Andua.** —Sinisten det. Gauzak datozen eraz artzen jakiteak, naigabeak arintzen ditu, ta ez zaite ofen kezkatu izan.
- Lizarbe** —(*zutinduaz baita*) Jakite ori, Jaunzoikoaren naia ontzat ar-tzen ez danean, gereikokeria oi da.
- Andua.** —Artu ba ontzat onbide dan eraz, eta lasaitu zaite.
- Lizarbe** —Ze gauz efexa dan onu ematea!
- Andua.** —Zure lekuan, eginkizun efexa litzaket.
- Lizarbe** —Bai ote?
- Andua.** —(*ordukaria begituta*) Baietz uste det. Baña... orduak ba-dijoaz, eta nere egitekora noa. Gero itz egingo dezu.
- Lizarbe** —Bazkaldu bitartean. Zai gelditzen nakizu.

Andua. — Pozik izango naiz gaur zure bazkaldar.

Lizarbe — Ezingo dizut eskañi sendi arteko gozamenik zure etxean zuk bezela; badakizu sendi gabeko gizajo onek, an bezela emen ere, ostatu-etxeko gela uts, otzean, bizi-toki ituna detala-ta...

Andua. — (*alaitsu*) Maitasun kabi berora, nai dezun txoria ekartzeko, utzi kezkok afen, bestela... beti ostaturik-ostatu orma otx artean bizi bearko dezu. Entzun?

Lizarbe — Ez naiz asmo ofetan. (*abiatzen dira ezkefeko lenengo aldetik bañura*) Lagunduko dizut.

Andua. — Zertako, emen bertan txaideia bitarte bizi da-ta? (*sartzen da Ana Joxepa goitik*).

Lizarbe — Ateraño bederik... (*joaten dira*).

BEDERATZIGAÑEN AGEÑALDIA.

Karmele, Ana Joxepa, gero Lizarbe.

Ana Jox.— (*Karmele'gana salmai ondora joanda*) Emen nazu ba, Karmele. Etxean izango da noski, edo atera da Lizarbe jauna?

Karmele— Ementxe zan arestian, kanpotik etofi zaion adiskide batekin, baña ara non dijoazen (*ezkefera lenengo aldeko bañuko aldera erakutsiaz*) Ertortzeko esan dizut, eta ala beafa, jaun ofekin ir-tetzera dijoa..... Edo... ez! badiruri bera emen gelditzen dala. Itxoin zazu pizka bat.

Ana Jox.— Zertako?... Ufengoan etofiko naiz.

Karmele— Ez: zaude. Lizarbe jauna bera, zurekin izketa aldi bat izan naiez da.

Ana Jox.— Ofela izanik...

Karmele— Bai. Exeri zaite, Ana Joxepa; ea etortzen dan. (*lenengo alde eskuian alki bat eskeintzen dio*)

Ana Jox.— Esketikasko (*exertzen da*) (*Goitik, bezero bat sartu ta salmai ondoan gelditzen da*).

Karmele— Bereala natorkizu, orain sartu dan ofi bear duana emanda. (*joaten da salmaira ta bezeroak eskatua ematen gelditu da*).

Ana Jox.— (*beretzat*) (*adi-adi ezkefalderra begira*) Nere begiak lausotzen asi dira, baña... Lizarbe'tar Andoni deritzan jaun gazte onen begi-tartea ezagutzeko lain, emendik ikusten det... Arpeikera ori, Eftotaxokoen da... Ezpairik ez det: au Katalin gaxoaren semea da iñola ere, (*oldoxtun*) bai! ez nabil oker nere buruauste onezaz. Ez!..... Aren izen-abizenak ditu,... Adiña ere... or nun-bait! Eta sasikoa dala...! nor izango da ba, bera ezta?... (*biotz-ikaraz*) Ene Jaungoikoa! Afigafiak dira zure erabakiak! Nork

esan umetxo ura gerora nere semearen gaizkale izango zanik?... Eta... Jauregiko anderetxoaren senar...? (*ikara aundiagoz*) Josu! Ene Josu maitea! abek gauzak!..... Ba-dator... Bera da! Au Eñotatxo'tafa da! Bai, bai..... Ez daki asko norekin itzegitera datofen! Ez daki... ez... ez... onek ezin lezake ezer jakin... ezin,, ezin.....! (*sartzen da ezkeřetik Lizarbe ta Karmele salmaitik jetxi ta urbiltzen da baita ere. Joaten da ere goitik bezero sartu beřia*).

Karmele—(*Lizarbe'ri*) Ara emen Ana Joxepa... Ander'en ama; Lizarbe jauna.

Ama Jox.—(*artetsu*) Eñan zazu "Xalxape", emakumea; ez bildur izan.

Karmele—(*bare*) Eñan detana esan nai nuan ere. Au Ana Joxepa!

Lizarbe—Badakit goitizen ori dezula; baita gaizki jafia dala ere.

Ana Jox.—Gaizki edo ondo, ofela deitzen didate Jauna. Ez da uste ona araztekoa baña...

Karmele—Ibargain guztiak maite zaitu.

Lizarbe—Ezaungafi ona.

Ana Jox.—Ustez ez diot iñori gaitzik egin iñoiz ere, al guzvia on; baña beste batzuk ere badira on egin zale. Esker-onak nakar gaur zu ikertzera, jauna, ta onek adierazten du zu ere ofela zerala.

Lizarbe—Ander'en ama zerala esan du Karmele'k; augaratik igartzen det nai dezuna. Zure seme zintzoak baña, bere erabeonaz ordaindu nindun lagun-mutil izan nuan aldian.

Ana Jox.—Bere amak baña, ez zaitu ordaindu; ezagutu gabe, afezkero zure izena biotz-erdian daraman afen.

Karmele—(*eskuiko lenengo atea erakutsiaz*) Igo zaitetze goiko gela nagusira. Au baño toki egokia goa dezute itzegiteko.

Ana Jox.—(*bereala*) Nigatik ez; ez daukat ixilpekorik esateko; ta ez det nai luzatu, gogaikafi izan ez nadin.

Lizarbe—Gogaikafi iñolaz ez; zu ezagutzeaz poz aundia det. Bai nuan zurekin izketaldi bat egiteko gogo.

Ana Jox.—Eskefikasko.

Karmele—Baña Lizarbe jaunak...

Lizarbe—Ez; nigatik ere ez.

Karmele—Onenbeste sartu irten dabil emen eze...

Lizarbe—Berdin da. Garai ontan alde ontatik, ez dabil iñor.

Karmele—Ez beste ontatik ere asko. Nai dezutena ba.

Ana Jox.—Zenbat eta mañadi gutxiago igo bear, poza go ni.

Lizarbe—Asko nekatzen edo?

Ana Jox.—Gaxo nago.

Karmele—Zu gaxo? Ez dirudizu!

Lizarbe—Zer dezu ba?

Ana Jox.—Biotza... biotza nolabait..

Karmele—(*añituta*) Zuk, Ana Joxepa? Beste guziak sendatzen ain gogor ikusten ba'zaitut!

Ana Jox.—Ni gogor? a, gaxoa!

Lizarbe —(*eskutatu nairik*) Ez da gauz aundia izango, Ana Joxepa! Onik zaude.

Ana Jox.—(*itun-xamar*) Osalariak ardura aundiak ematen dizkate.

Lizarbe —Mingafi zait.

Karmele—Ezer ez nekian. Noiztik zaude ofela?

Ana Jox.—Aspaldi. Estutasun aundiak ematen dizkit. (*artetsu*) Onelako gaitzak, jakiña dago: gutxien uste danean... klas! eta Jaungoikoaren aufera eraman oi dute.

Karmele—(*añituta*) Au Ana Joxepa!

Lizarbe —Ez dezu baña benetan ori usteko?

Ana Jox.—Zergatik ez, ofela ba'da?

Lizarbe —Ain artetsu esaten dezu!

Ana Jox.—Zer egingo det ba?... Jaungoikoak nai duana ontzat artu, ta Beregana aurkezteko, al baitik ondoen gertuta egon. Izan bedi Berak nai duanean eta nai duan eraz.

Karmele—(*añituta*) Au andrea!

Lizarbe —(*beretzat*) Andre atsegiña! (*Ana Joxepa'ri*) Ondo egiten dezu Jaungoikoagan ustea jafita, datorkizunaren bildur ez izatea. Egín bedi guban Bere naia... Baña, exeri zaite; zutik neketan egon gabe; ta gauz itunak utzita, alaiagoatzaz itz egingo degu. (*Karme*le ta *Lizarbe*'k, *lenengo aldean ezkefetik leiar ondoan dagon maitxo inguruko alkiak ipintzen dituzte bertan exertzeko*)

Ana Jox.—(*beretzat; oldoztun*) Bai!... bai!... Au Katalin Eñotatxo'koaren semea da!... Ez det ezpairik... (*biotz-ikaraz*) Ene Jaungoikoa!!!...

Lizarbe —(*maitekor, alki bat eskañiaz*) Exeri zaite, Ana Joxepa. (*exertxen da, au*).

Karmele—Ni, banoa nere egitekoetara. Gero arte.

Ana Jox.—Bai, zoaz Karme; gero arte.

Lizarbe —Agur. (*joaten da Karme*le salmai aldera).

AMARGAREN AGEÑALDIA.

—
Ana Joxepa ta Lizarbe.

Lizarbe —(*Ana Joxepa'ren ondoan exeriaz*) Biotzez eskartzen dizut ikerpen au, Ana Joxepa. Zu ezagutzeaz atsegin aundia det. (*maitekor*) Ander'ek ainbeste aipatzen zuan amatxo kutuna!

Ana Jox.—(*pozik*) Ofenbeste aipatzen nindun?

Lizarbe —Beti zutzaz ari zan. Bere ardurak, zuretzat; bere kezkek, zuretzat. Espetxetik azkatu nuanean, bere burua azke ikustez

baño, zuri naigaberik eman gabe igaro al izateak poz aundia-
goa eman zion.

Ana Jox.—Gizajoa! Beti da ona neretzat. Ez nuan gertatu zitzaionik jakin, Gudaritza aldia bete, ta etxeratu zan arte. Orduan edes-
tu ziran guzia... A, jauna! zenbat zor dizugun! Zugatik daukat
gaur semea etxean, zuri eskefak.

Lizarbe —Zure seme aldez egindakoa, kistar eta euzkotar bezela bear-
kun bat betetzea besterik ez nuan egin. Ander'ek, erdera ez ja-
kilea beste eburik ez zuan. Gudari-legeak zigor gogofa dute be-
re gaidikoaren aurka asaldatzen dan gudariarentzat, eta zure
seme gizajoa zigorpe ofetan erori zan... Baña ez efu gaiztoz;
sarjento birao-zale gaiztoak bere kistartasun eta euzko-izatea
mindu zitulako. Kistar eta euzkotar bezela zegokidan ba egin
nuana egitea.

Ana Jox.—Ama gaxo onen biotza irabazi zendun beintzat. Orduan gu-
dari ziñanez, orain ere ofela ziñalakotz beti ańisko edo gaitzu-
fean uste zinduztan; nere otoitzak augatik sutsuago izan dira,
ezer txafik gerta ez dakizun...

Lizarbe —(*bereala*) Utzi nitun nere gudari-galartzuak!...

Ana Jox.—Ala jakin det, bai.

Lizarbe —Orain burdiñola baten jabe naiz, eta beste arazo batzuk ditut.

Ana Jox.—Gudari izatez gogaitu edo...

Lizarbe —Ez zan nere ustea. Ezta ańotz-gudalostean aritzea ere, nere
euzkotar izakeraz ondo artzen dan bizpidea ere... Aitatzakoa
nuan gudaria, ta jakiña, umetan bere zaletasunak ezafi zizki-
dan; ofela gudari egin nintzan. Baña... ez nuan nere onik...
(*ixil-unea*).

Ana Jox.—(*beretzat*) Aitatzakoa gudaria zuala... guzia bat! (*ixil-unea*).

Lizarbe —Oldozti nabaitzen zaitut, Ana Joxepa...

Ana Jox.—Bai... zutzaz eta zure aitatzakoatzaz oldozten nengoan... Do-
nosti'n ezagutu nuan ba Anoeta'tar Imanol zeritzan gudalburu
jaun bat, eta zure izeneko semetzako bat zuan... (*Ana Joxepa'ri*
entzunaz, Lizarbe gelduta, ańituta, agertzen da).

Lizarbe —Noiz?

Ana Jox.—(*oroituaz*) Noiz... noiz... orain ogeita bost urte inguru...

Lizarbe —(*arduri*) Eta... zenbat urte zitun orduan semetzako ofek?

Ana Jox.—(*oroituaz baita*) Bost...? Bai, bai: bost zitun mutil koxkofak...

Lizarbe —(*ńituta*) Ana Joxepa!.. Au ala beafa!.. Umetan ezagutu nin-
duzun!

Ana Jox.—(*makal*) Bai;... bai;... ezagutzen zinduztan... (*Ana Joxepa on-
do=ezak makalduta bezela gelditzen da*).

Lizarbe —(*lańituta*) Zer dezu?... Makal nabaitzen zaitut... ondo-eza
al dezu?...

Ana Jox.—Ez da ezer... Ustekabeko zafasta onek, gaxotu nau. Ain det

biotz makala!

Lizarbe —(*bildurti*) Gaxoa!... Zer artu nai dezu, Ana Joxepa, bizkortu zaitzan?... Esan... zer ekafiko dizut?... Karmele'ri deituko diot.

Ana Jox.—Ez, Jauna; ez zaitte estutu. Bereala joango zait...

Lizarbe —Karmele'ri deituko diot, zerbait ekafi daizun.

Ana Jox.—Zertako?... Ez; ez, deitu. Ondo nago... (*Lizarbe eskuiko bigafen atetik joaten da*).

Ana Jox.—(*ixil-une baten ondoren*) (*bakafik*) Jauna!... Jauna!... Ene Jaungoikoa!... arigafiak dira zure erabakiak!... Katalin gaxoaren semea niganatu dezul!... Berau nere semearen gaizkaleal!... (*biotz-ikara aundiz*) Eta... Elixabete'ren senar?... Ene Jaun aundial! Zuk dagizu!... (*eskuaz biotza estutuaz*).

AMAIKAGAREN AGEĀALDIA.

Ana Joxepa, Lizarbe ta Karmele.

(*Eskuiko bigafen atetik sartzen dira Lizarbe ta Karmele*).

Karmele—(*maiteki*) Zer dezu, Ana Joxepa?

Ana Jox.—Ezer ez, Karmele; Txakal-alditxo bat. Ain nabil nolabait!... Baña igaro zait... Ondo nago... Lizarbe jauna bildurtu egin da...

Karmele—Ezta gutxigotarako!...

Lizarbe —(*kezkatu*) Benetan ondo al zaude?

Ana Jox.—(*zutinduta*) Bai; bai jauna.

Lizarbe —(*Ana Joxepa geldiaraziaz*) Baña... nora zoaz?

Karmele—Ori! Exeri zaitel!... Zerbait artu bear dezu. Salda bero pixka bat edo...

Lizarbe —Bai; zerbait bizigafi...

Ana Jox.—(*bizkortuta*) Ez; ez. Orain ondo nago. Ezer artzeak, kalte egingo lidake... Etxera noa.

Lizarbe —Ez afen! Joaterako, atsedean artu zazu...

Ana Jox.—Ondo nago. Onelakoxe aldiak izaten ditut; eta... au ez da ezer! txafagoak agitz!

Karmele—Ofa Ana Joxepa!... Efi guziaren osalari izanik, berau gaxo dagola!

Ana Jox.—Ez ba...!... Azitarako gelditzeko nintzala uste al zendun?

Lizarbe —Ja, ja, ja!

Karmele—Azitarako edo beintzat...

Ana Jox.—Beintzat... ni ere banoala beste guzien bidean.

Karmele—(*oarkebe*) Bai... bai...

Lizarbe —(*jostari*) Oraingoz baña... bide ori exerita eman zazu, berdin joango zera-ta. Exeri zaitte, exeri. (*lenengo alxia eskeintzen dio, ta Ana Joxepa exeritzen da*).

Karmele—Ez dezu ezer artu nai beraz?

Ana Jox.—Ezta ezertxo ere. Eskefikasko.

Karmelet—(Lizarbe'ri) Orduan... besterik agintzen ez ba'dezu...

Lizarbe —Ez. Joan zindezke. (Exertzen da len bezela Ana Joxepa'ren ondoan).

Karmelet—Ondo da. (goruntz joan eta salmai ondoan geldituta, beretzat) (Ana Joxepa ta Lizarbe'ri begira) Lizarbe jaunak, Ana Joxepa'z egoteko gogoia du.... Izan ere, Jauregi'ko anderetxoarentzat mandatari obeagorik ez!... Ofatx! orain ere "xalxapean"!... Eta kutsu oneko xalxa!... Eskupeko onenbat lortuko du orain ere! (joaten da eskuiko biga'ren atetik).

AMABIGAËREN AGEËALDIA.

Ana Joxepa ta Lizarbe.

Ana Jox.—Zerbait urduri netofen zu ezagutzera, lendik zure izenak, eta aldi ontan nigana eltzen ziran zure befiak, Anoeta'jaunaren semetzakoa ote ziñan buruaustez jafi nindulako; eta berbera zerala ikustean nere biotzak artu duan astindua, jasan al izateko baño aundiagoa izan du, ta makaldu egin zait... Ai jau-na! Ezer gutxitarako nago... Ezerez batek arazten dit...

Lizarbe —Biotzeko gaitzak agitz, ofela oi dira... Zaindu egin bear zera; zaindu.

Ana Jox.—Nola baño zafazta abetatik gure burua zaindu, ez-gertarazitzea, bizian ezin bai ba'da?

Lizarbe —Artez diozu... Orain bezela... (ixil-unea) Izan ere alabear aundienetako bat da, gertatzen zaiguna... Nork esan bear zidan, gudaritzan izan nuan mofoi zintzo Ander, umetan ezagutu nindun baten semea zanik?

Ana Jox.—Eta ume ziñan garaian, nere magalean atsegiñez eukitzen zinduztan garaian, neretzat ain maitagafi ta maite ziñan garai artan: nork esan bear zidan, gizon izatera eltzen ziñan garaian, seme baten gaizkale on izango zinduztanik?

Lizarbe —(jostari) Ori jakin izan ba'zendu, geiago ta geiago maiteko ninduzun... ezta?

Ana Jox.—(ixil-une baten ondoren) Maite zinduztan baño geigo... ez dakit... ez dakit.... Guraso geranon biotzetan, zutzaganako maitasun berezia sortu oi du efukiak...

Lizarbe —(oldozkor) Bai...! Zurtza edo...

Ana Jox.—(ausartu eziñik bezela) Bai... bai... (ixil-unea).

Lizarbe —Zerbait artu-emana al zendun nere gurasotzako aietzaz?

Ana Jox.—Bai....; Donostia'n ziran aldi artan safi oi nintzan beren etxean... Gerora, Burgos'a joan ziñaten...

Lizarbe —Bai... bai...

Ana Jox.—An bereala emaztea il zan... eta ez nuan geiago zuen befirik izan. Anoeta jaunak neretariko bati bere befiak bidaltzea baño auforia^{goko} arazorik bai zuan eta. Emaztea bizi izan ba' litz, besterik izango zan...

Lizarbe —Bai, jakina... emakumea emakumeaz... Gaxoa! Gazterik il zan. Doi-doi beretzaz oroitzen naiz.

Ana Jox.—Gaztetxo ziñan bai; eta ezin ondo oroituko zera... Seme izanda bezin maite zindun, maitasun xamur-xamufaz. Ofela agertu zan bere azkenaian ere, ama bezela; zitun ondasunak zuretzat utziaz.

Lizarbe —(*añituta bezela*) Egia! Ikusten det nere befi ondo dakizula...

Ana Jox.—Jakin ez? Bai, bai... Anoeta jauna, berez legor-xamafa zan, baña on-ona zuretzat.

Lizarbe —Ain ona...! Aitarik onenak bezela, irakatsi ta mendu nindun. Gizajoa! Galdu nuan ura ere!

Ana Jox.—Il zan?

Lizarbe —Aspaldi!

Ana Jox.—Ez nekian...! (*ixil-unea*) Gelditu ziñan ludian bakar, bakar...

Lizarbe —Bai, Ana Joxepa: bakar, bakar... Ageri danez zuk nere befi ondo dakizu, baita... guraso ezagunik gabea naiz-eta ere, ezta?

Ana Jox.—(*maka!*) Bai, jauna, bai...

Lizarbe —(*jakinmiñez*) Ez zuten nere gurasotzakoak nere jaiotzaren befirik ezer?... Zuk ezer ez al dakizu?

Ana Jox.—(*biotz=ikaraz*) Ez, jauna; ez zekiten ezertxo. Añfik ez zutelako, emaztearen naiez Aur-etxetik atera zinduten, eta guraso ezagunik ez zendulako artu ere, inoiz jaberik izango ez zendun itxaropenaz, maitatu ta gero zu gabe geldi ez zitezzen.

Lizarbe —Aitatzakoak ofela esan oi ziran bai... Ez zan ez, jaberik azalduko zitzaidan bildur aundirik.

Ana Jox.—Ez dezu beren beafik ere. Gurasorik ez zendun, ezagunik beintzat, eta ofen sari, gurasotzako on-onak eman zizkitzun Jaungoikoak...

Lizarbe —Bai; guraso ditudanak baño obeak beintzat...

Ana Jox.—Ori... ezin esan diteken gauza da, Lizarbe jauna.

Lizarbe —Nola ez, agerian dago-ta?

Ana Jox.—Agerian ez... (*ixil-unea*)

Lizarbe —Alabeafak, edo obeto esateko Jaungoikoak, umetan ezagutu ta maitatu ninduzun ofengana batu nau. Zutzaz gogo-idekia izan nai det Ana Joxepa.

Nai al dezu, bere semea efiko Aur-etxe batera jaurtitzen duan ama baño biotz gabeagorik?... Eta bere izena semeari ukatzen dion aita baño dongeagorik?...

Ana Jox.—Ez jakin... ez jakin... Gerta liteke ez bizi izatea ere...

Lizarbe —(*ezpaiez*) Alabear aundia litzake jaio nintzanetik inor gabe

izatea...

Ana Jox.— Bai baña, gerta litekena, ta, zertako ofetzaz oldoztu?

Lizarbe — Nik oldozten det, eta asko.

Ana Jox.— Benetan?...

Lizarbe — Burutik kendu ezin detan gauza danez..:

Ana Jox.— Alegindu zaite ba kentzera, oldozte ori zure biziaren mingafi izango zaizu bestela.

Lizarbe — Ofela zait....

Ana Jox.— Ba... ez zenduke bear. Oroitu zaite maitasun eta eskefenez beste gurasorik izan ez ba'zendun bezela, gurasotzako on aietzaz, eta oroipen ori, zure izatearen pozkafi izango zaigu.

Lizarbe — (*itun*) Gaxoa! Zuk ez dakizu zer dan sorkun ilun baten oben-kutsua nor beregan eramatea!... Zuk ez dakizu, bere jatofia gizartean lotsaz ixildu bear duanaren gogo-oñazea!.... Jatofi ori bizibidean lotsagañizat artetutzen zaionaren gogo-oñaze lañia!....

Ana Jox.— (*biotz-ikaraz*) Egia, egia... ez dakit... ez dakit... Baña... Jaungoikoafen! ez dagizula oñaze ofek sortu zindutenentzat gofotorik biotzean sortu! (*une ontan neskamea eskuiko bigafen atetik sartu, ta goiko atera joaten da, bertan kalera begira geldituaz*).

Lizarbe — (*minbera*) Zer ezafiko dit gofotoa ezta?....

Ana Jox.— Efukia....

Lizarbe — Aien obenak, ni egin nindun efukigafi esan dizudan zioagatik. Ezin oroitu ditut gofoto gabe....

Ana Jox.— Lizarbe jauna! Ain ona zeran ofek, barkatzen ez al dakizu?

Lizarbe — Biotz bera naizen onek, nere gurasoai barkatzen ez dakit.

Ana Jox.— Jaungoikoa iraintzen dezu.

Lizarbe — Zuk badakizu nere befi; baita Jauregi'n gertatzen danaren befi ere. Nere jatofiagatik ez ba'litz, ez litzake bertako jauna Elixabete ta nere ezkontza aurka.

Ana Jox.— Jauregi'ko jaunak, afokeria du arazo ontan itungafi. Ezin ba zuzen ibili bere usteetan...

Lizarbe — Ez naiz Antxeta jaunaren aurka.

Ana Jox.— Ez dakit nola ez....

Lizarbe — Ain maite duan bere ilobatxoarentzaz, berari dagokion beste teko senaia nai izatean, zuzen dago. (*Goiko atean Pikutegi agertzen da, neskameaz maite-maite izketan geldituaz*).

Ana Jox.— Orduan zure buruaren aurka zera.

Lizarbe — Arteza dana aintzat artzen dakit; eta nere zoritxar guzien efudun, aben-zioa nigan ezafi zutenak egiten ditut. Entzun ba, nere gurasoentzat gofotoa besterik ezin nezakela.

Ana Jox.— Mingafi zait ba, berentzat dezun gofoto ori. Zure amarentzat dezuna batez ere.

- Lizarbe —(*susmadun*) Badirudi onura diozula....
- Ana Jox.—(*ezpaiez*) Ez dizut ezetzik esaten... (*ixil-unea*)
- Lizarbe —Nola lezaioke ezagutzen ez dan bateri onura artu?
- Ana Jox.—(*bildurti*) Zergatik ez bere zoria ezagun zaigunean? (*ixil-unea*)
- Lizarbe —Iduritzen zait, Ana Joxepa, bere zoria baño zerbait geiago ere ezaguna zaizula nere amagan... (*ixil-une luzea*) Ez da ofela?... (*ixil-unea*) Ez didazula erantzun nai?...
- Ana Jox.—Esan dizut zure gofotoa mingafi zaidala. Ofen aurka, bear guzia egingo det: Ez zazu ezetsi zure ama gaxoa, on-ona zan!
- Lizarbe —Ana Joxepa! (*biotz ikaraz*) Zer entzuten det?... (*yoranez*) Zuk ezagutzen zendun?
- Ana Jox.—(*biotz-ikaraz baita*) Bai!
- Lizarbe —Nere ama ezagutzen zendun?
- Ana Jox.—Ezagutzen nuan, bai, Nere besoetan jaioa zera! (*Pikutegi ta neskamea, geroago ta liluratuago ixilka izketan ari dira beste iñoren kontu gabe, goiko atean*).
- Lizarbe —(*añituta*) (*urduri*) Nola?... Nor zan?... Nun jaio nintzan?... Esan!... Afen esan!
- Ana Jox.—(*ikaraz*) Gutxi baño ez nezakezu esan. Baña zure gogo-oñaze ori arintzeko lain esatea da zokit. Baita zure ama efukafia aldezte ere... Ez afen ba, gofotoz bere izena iraindu!... Gogo ta soñez aingeru bat bezin eder aratza zana, indafez galdua izan zan!
- Lizarbe —(*bat-batean*) Josu!
- Ana Jox.—Umezurtza zan... Bera zan baño zurtzago jaio ziñan egunean utzi zindun... Jaiotzean artu zinduten nere besoak, beste norik jasorik ez zendula...
- Txiroa naiz; orduan txiroago, eta efudunak zure jaiotza txindiz etzaldu ba'zuan ere ez zan, ezin zitekean zure jabe azaldu, ez zindun nai ere, ta erkiko Aur-etxera eraman bear izan zinduztan, naigabe aundiz. Ara eramanaren efuki iñork ba'du, nik det. Azketsi!
- Lizarbe —(*ikara aundiz*) Zer entzuten det?... Ez zera ezeren efudun. Maitasuna zor dizut!... Jauna, Jauna!...
- Ana Jox.—Zuganako maitasunak nere biotzean beti bizirik iraun du. Augatik joaten nitzaizun Anoeta jaunarengana, ikustaldiak egitera... Augatik nere biotz makalak artu duan zafazta nor zeran jakitean...
- Lizarbe —(*urduri*) Baña Ana Joxepa: nor nun ama? Nor nun aita? nun jaio nintzan?... nun? zer?
- Ana Jox.—Esan dezakezudan guzia esan dizut... baita esan nai ez nuana ere, baña zure amaren izena gofotatu ez dagizun, egin det... Ludi ontan laidotik ta bizi beafaren saminetik, argitara eman zindunean Bere'gana deituaz Jaungoikoak azkatu zuan. Ez afen ezetsi ba, Jaungoikoak maitez bereganatu zuan zure ama...

Lizarbe —(*maka!-ta biotz-beraz*) Ez Ana Joxepa, ez!... Eta nere aita?
Ana Jox.—Bere gaztaroan ordikeri ordu zatar baten egindako gaiztake-
riaz lotsa ta garbai dan jaun zar, zindoaren gogo-oñazea, afen,
itzal-izan zazu... Ez orentzat ere gofotorik...

Lizarbe —(*maka!*) Ezta... ezta...
—Azketsi... azketsi...

Lizarbe —Baita... baita... (*gora begira*) (*xamur*) Ama!... amatxo!... Ludi-
ko loi artean gofotagafi bilakatzen zinduztan... Zeruan Jauna-
ren altso zoriontsuan maitagafi arkitu zaitut... Azketsi ama-
txo!... azketsi...!... Maite... maite zaitut!... maite... maite...!...

ZAPIA.



BIGAREN EKITALDIA.

Ana Joxepa'ren sukaldea. Eskuitik lenen, orma ondoan maia ta alki bat. Gorago, kanporako atea.

Ezkefetik, lenen etxe bafurako atea; gorago, oraingo erako sutondoa.

Goian, erdi-erdian baratzenako mañadi-burura irikitzen dan atea. Bertatik oztifari munda ageri dira Antxela jaunaren jauregi bafutiko lantai edefak. Goiko ateen eskuitik arasa, oi bezela ontziz ornituta, ta ezkefetik orman kako bat. Kako ontatik zintzilik Ana Joxepa'k etxe-aldean jazten duan amantala.

LENENGO AGERALDIA.

Ander eta Ana Joxepa.

(Une labur-baten antzeztokia utsik. Bereala sartzen da Ander goiko atetik, eta arasara joan da, bertan zerbaiten bila bezela ibiltzen da, nai duanik arkitu gabe).

Ander —*(Ezkefeko atera joan da bafura deika) Ama!... (ixil-une baten ondoren) Ama!...*

Ana Jox.—*(Eskuitik sartuaz) Zer dek?*

Ander —*(bira emanda) A!... kanpoan al zifian?*

Ana Jox.—*Bai. Atxili'nean.*

Ander —*Aundia da!... Zeure buruaz lanik asko, ta ifioren kezka-nekeak gañetik artu bear.*

Ana Jox.—*Zer nai dek ba...? Onezkero onela bearko diat. Ez naute pakean uzten.*

Ander —*Nai ez dezulako.*

Ana Jox.—*Seme...! Bila datorzkidan guziak bidaldu nai izaten ditut, nere orde besten norbaitengana joan ditezela-ta, baña alperik! Gaxo nagola,... osasunaren kaltegarri zaidala ofela ibiltzea,... ezta! ao batetik erantzuten dute: "Beingo, ta gurera beintzat etofri zaiten. Zuzaz oituta gaude ta ez degu al baitik besterik nai" Ekiten dute afenka, ta nola ukatu?*

Bakoitzak bere leloa; Aberatsak, ia beren etxera juan ez; beren nai guzira bat beartuta ba'legoke bezela. Txiroak ia txiro diralako beren etxera joan nai ez detan; ezagun dala eskupeko onaren itxaropenik ez detala ta abar. Uste diat seme, gauza naizen arte, nai-ez ibili bearko naizela ifioren purtzilkeri guziak egiten. Eta etxean nagola pakean utziko baninduteke ezer ez!

Ander —Zere burua guztiz ondatu arte.

Ana Jox.—Nere burua ondatu..., onik ez ziak egiten, ez. Baña ez niok ik uste dekan bezin gaizki, Ander. Igertzen ziot nere buruari.

Ander —Obe ama, obe. Baña osalariak esaten dizu, zafasta ta biotz-ukitze guztiak kaltegarfi zaizkitzula; on naiz txar; naigabezko edo pozezko; ta zure lan guziak orixe besterik ez dakarkizute. Naigabea ta izu-aldia ugari.

Ana Jo.—Azketsi nazatela baña... osalariak erdi eroak dituk. Gaurkoak beintzat. (*Soñian daukan amantala kendu ta kakuan zintzilik zegona jantzitzen du, len soñian zeukana osterakakuan eskegiatz*)

Ander —Ba-zoaz beti bezela osalarien aurka. (*maitekor eta jolas-gura*) Osalari ikasiak, zu ta zu bezelakoak ez dakizuten gauz asko ta asko dakitela, amatxo. Gaxoak zaintzeko bai zuek, baña abek duten gaitza igerfi ta sendatzeko, osalariak.

Ana Jox.—Ixilik egon ai mutil! I beti ofetan aiz!... Osalariak gero ta erokeri aundiagoak esaten dizkitek-eta!... Biotz-ukitzeak kaltegarfi zaizkidala, ta ortaz nere burua zaintzeko... Edozeñek esango luke, gure bafuan igarotzen diran zafastadak, auzez oldoztuta geron naiz izaten ditugula! Ofenbeste ikasten duten jaun batzuk ori esan!

Ander —Baña artu arazten diguten gauz eta tokietatik alde egin genezake. Zenbait naigabe ta izutze gutxiago artuko zenduke... iltzen dagon urliaren, edo jaiotzen dagon berendiaren etxean laguntzen izango ez ba'ziña!... Bateko ta besteko gaxo, negar, eta estutasun artean; efi guziaren naigabeak zure bafuan artuaz bizi zera.

Len, etxean zure irabazia besterik ez zanean, zertan edo artan, bizitzeko bear genduna inguratu bear zendun, eta alegintzea beafeko. Gañera orduan osasuntsu ziñan edozer lan egin al izateko; baña orain... ez nazu ba ni biontzat lain irabazten detana? Zergatik zere burua bear baño len ondatu, ondo bizi besterik izan ezta?

Ana Jox.—Kendu nazak orain arteko nere bizieratik, eta ire ama, ezer egin gabe, oraindañoko xalxa gabe, itunez ilko dek.

Ander —Ene ama!... Ez ofenbesteraño! (*ixil-unea*) Utzi zazu ba, etxetikat inñofenera neke ia izu-aldiak artzera joate ofi; asko dezu etxera etortzen zaizkitzunak artzeko arazoa.

Ana Jox.—(*baiespenez*) Ortan zuzen abil, mutil; bateko miña ta besteko txaplataz, nik bear beste lan inguratzen zait; astia galdu-arazteko lagunik asko etofi ere bai. Baña al detan bitartean, nola ukatu nere laguntasuna afenka eskean datorkidanari?

Ander —Egin zazu, ortan nere menpe zaudela. Neronek ez dizudala usten. Eta... ez dizut utziko! Jaunari eskefrak, zuretzat lain ba-naiz. Gaur Antxeta jaunak ondo ordaintzen nau, ta ez ge-

ra geiagoren bear. Oraindaño lanik asko egin dezu. Atsedean beafean zaude... Orain beste batzuk egin bezate.

Ana Jox.—(*jostari*) Ofein aundikiro mintzatzten aiz semel... Baña egunaren erdian amaren sukaldean orain agon bezela egonda ordainduko ote au jauregiko nagusiak, ama lanik egin gabe eukitzeko bestean?

Ander —(*pañez*) Badu Antxeta jaunak nik dagidan lana baño kezka aundiagorik! Or dabil bere alaba-ordea zaindu eziñik, Lizarbe' tar Andoni jaunaz itz egin dezan.

Ana Jox.—Baña alpefik.

Ander —Ain alpefik ezej Ortik edo emendik, maiteok egunero elkar ikusten dute, ta... egunean bein baño geiagotan ere bai safi.

Ana Jox.—Ofetarako adi-adi dagona zaintzea, alpefik dek, eragozpenak jartzea, alpefikago; orduan eta maitaleak berenean sutsuago.

Ander —Oiek beintzat bai... Opa diot ba, ta biotzez, Lizarbe jaunari gure anderetxoa emaztetzat!...

Ana Jox.—Baita anderetxoari ere, Lizarbe jauna senartzat... Ezta?

Ander —Baita. Nagusiari kasketean jafi zaio, etxe jauntzarik ez dakafelako Elixabete'rentzat laingo ez dala; baña senar on-on bat ukatzen dio.

Ana Jox.—Eta aberatsa! Irabazpide aundi ta onak ditula esaten dute ezagutzen dutenak...

Ander —Baña... ez al dezu ezagutzen Antxeta jauna, ama?... Aundiki utsa da; diru beafik ez du; anderetxoak, gurasoenak eta gurasordezkoenak, guziak beretzat ditu. Jauregin, geroko nagusia ere, aundiki izan dedila, ta ez dute besterik bear.

Ana Jox.—Anderetxoarentzat baña, ez dago ludian Lizarbe, jaun on, azkar, bikain eta atsegiña baño gizeozko andikiagorik...

Ander —Eta... bereaz aterako da.

Ana Jox.—Beintzat, maite duan ori, edo besterik ez; esaten du.

Ander —(*zutinduaz*) Ofetan ei da, bai. Baña ba-noa. Atzo Peli'k eman zizkidan lore-azi batzun bila etofi naiz. Emen arasan utzi nitun, eta orain ez daude. Jaso egin al dituzu?

Ana Jox.—Bai. Ortik galdu litezkelako, mai-kutxan jafi ditut. (*Ana Joxepa, maiko kajoean begiratzera dioa, ta Ander bere ondoren. Goiko atsan Antxeta jauna agertzen da.*)

BIGAREN AGERALDIA.

Ana Joxepa, Ander eta Antxeta jauna.

Antxeta —(*atean geldituta*) Afatsalde on ama-seeoi,

Ander —(*itxumustuta*) Nagusia!

- Ana Jox.**—Jauna!... Afatsalde on dezazula zuk ere. Ongi etofi.
- Antxeta** —Sartu alba'nindeke...
- Ana Jox.**—Zure etxean zaude. Aufera. (*Antxeta auferatzen da. Ana Joxepa mai ondoan dagon alxia eskeintzera dioa*).
- Ander** —(*Antxeta'ri, aitzaki-naiez*) Lore-azi batzun bila etofita nengon...
- Antxeta** —Etzendun esan beafik. Badakizkizu nere etxeko zure bearkunak. Oiek bete ezkerero...
- Ana Jox.**—Bidezko da nagusiari atzalpen ori egitea.
- Antxeta** —Ander'gan uste osoa det.
- Ander** —Eskefikasko jauna.
- Ana Jox.**—(*alkia eskeñiaz*) Atsegin ba'zaizu gure sukaldean esertzea...
- Antxeta** —(*alkia artuaz*) Badakizu baietz, Ana Joxepa.
- Ana Jox.**—Bai. Ez dezu lenbizikoa... (*Antxeta esertzen da*)
- Ander** —(*Antxeta'ri*) Zure baimenaz, nere lanera noa.
- Antxeta** —Ez, Ander; geldi zaite emen unetxo baten. Ama-semeoi itzegin beafa det....
- Ander** —Menpeko nau.
- Ana Jox.**—(*beretzat*) zer ote dakar onek!
- Antxeta** —(*ixil-une baten ondoren*) Egun abetan, erbesteko jaun bat ikusten det emen sartzen.
- Ana Jox.**—(*Ander'i begituta*) Emen esaten danik... etikoa ez dana beintzat... Lizarbe jauna...
- Ander** —(*Ana Joxepa'ri begituta baita*) Bai...
- Antxeta** —(*ixil-une baten ondoren*) Bera. (*nausitasunez*) Zertara etortzen da?
- Ana Jox.**—(*añituta*) Jauna...! Aldia igarotzera edo...
- Ander** —Lendikako ezaguna detanez...
- Antxeta** —Lendikako ezaguna zuk? (*nardaz*) Kidea al dezu?
- Ander** —(*era onez*) Kidea ez. Bera jaun aberatsa; ni langile txiroa. Baña Lizarbe jaunak, bere kistar-izate ta zindotasunaz, beera-gokoa aintzat artzen daki. Ofela artu nindun ni ere.
- Antxeta** —(*ben*) Ez dituzu kistar-izate ta zindotasuna, gerekoitasunaz nastu bear, Ander.
- Ander** —Ez dakit zer esan nai dezun, jauna.
- Antxeta** —Lizarbe jauna, zure bear da noski...
- Ander** —Ez dakit zertako. (*ixil-unea*)
- Ana Jox.**—Azketsi, nagusi jauna; baña dirudinez, oker uste dezu.
- Antxeta** —Ez zaite nere usteak aztertzeraz sartu, Ana Joxepa.
- Ana Jox.**—Aztertzeraz, ez; baña ageri daude.
- Antxeta** —Zer esan nai dezu?
- Ana Jox.**—Argi itzeğin banezake...
- Antxeta** —Ori nai det.
- Ana Jox.**—(*ixil-une baten ondoren*) Ageri danez, Lizarbe jaunak, ala-

batzako dezun zure ilobatxoaz ezkondu nai du. Baita ilobatoak, Lizarbe jaunaz ere. Zu ezkontza ofen aurka zaude... Mofoi gaituzu... ta zure jauregi bafutian bizi gera... Maitaleai elkar-ikusí ta aitzea efaztu lezaiokegu,..... Ori da zuk uste dezuna nagusi jauna. Baña befiz diot: oker zaude.

Antxeta —Ez det nere usterik azaldu. Zuk diozu. Zerbaitek gogora dakarkizu.

Ana Jox.—Bai... egin dezun galdeak...

Antxeta —Etxe ontara zertara etortzen dan besterik ez det ga etu.

Ana Jox.—Egia. Oraindik ez diogu zure galdeari erantzun. Bña edestuko dizut zerbait.

Antxeta —(*zutinduta, nagusitasun aundiz*) Ez det edesti leafik. Nere agindu bat eraztera natorkizute: Ez det nai Liza be jauna etxe ontan sartzerik. Ama-semeok dakizute oratarako zer egin. (*abiatzen da*).

Ana Jox.—(*Antxeta geldi-arazi ta lengo alxia befiz eskañiaz*) Afen, ez zaitez ofenbestez joan, nagusi jauna. Entzun gurea ere. Befiro eseri zaite. (*Ander'i*) Itz egin zak, mutil.

Ana Jox.—Zertako? Ez det ezer entzun beafik. Nere agindua bete zazute ta asko det.

Ander —Bete eziña bada?

Antxeta —(*afituta*) Bete eziña?...

Ana Jox.—(*Antxeta'ri*) Entzun jauna. Afen eseri zaite. (*Ander'i*) Itz eginzak, mutil. (*Antxeta esertzen da*).

Ander —Gudaritzan ezagutu nuan. Garai artan jaun ori, españar gudarlostekoa zan; mofoitzan gerta zitzaidan euntzako buru. (*ixil-unea*) Oroituko zera noski, jauna, erderaz jakiñezagatik gerta zitzaidanaz, nere amak edestua zizun ba. (*Antxeta'k buruaz baietz dio*) Oroituko zera nere eñu-egíteaz, eta gudari-legez zegokidan zigofetik, euzkeldun nere kapitanak gaizkatu nindula ere...

Antxeta —Bai... bai...

Ander —Nere gaizkale ura, Lizarbe jaun auxe zan ba.

Ana Jox.—Asko zor diogu Antxeta jaunari.

Antxeta —Bai. Ez nekian... (*ixil-unea*).

Ander —Bost urte igaro dira ori zanetik. Bitarte ontan, ez det ifun ikusi, ezta bere befirik jakin ere, orain Ibagain'a etortzen asi dan arte...

Antxeta—(*nardaz*) Eta jakiña; orain emen beste mofoitza befi bat egiten asiko zintzaion.

Ander —(*era-egokiz*) Ez dirudi ezertako nere bear danik. Beintzat ez dit oraindaño ezer eskatu.

Ana Jox.—Len ere esan dizut jauna...

Antxeta —Esan dezu; baña jaun ofek etxe ontara egiten ditun ikerpe-

nak, besterik esaten dute.

Ana Jox.—Ofela uste ba' dezuz... Baña bere asistente izanaren amaz izketaldi bat egitea beste ziorik ez du onara ekartzen.

Antxeta —(*burutsu*) Etxera gezurti Ana Joxepa; sinisten ditzut. Baña nere etxe-bafutian neratu nagusi, ta esan det: Ez det nai etxe ontan jaun ori sartu dedin.

Ana Jox.—Jauna...!

Antxeta —Esan det. (*zutintzen da*).

Ander —Eskubide osoa dezu agindu nai dezuna erazteko; menpeko nazu ta zure etxean gaituzu... Beteko det, eta nere amak ere ofela egin naiko du... (*Ana Joxepa buru makur sutondora baztertzen da*) Baña ez diot ongile aundi zaidanari nere etxera safera ukatu nai, eta zure jauregi bafutitik at bizi lekua bila bearko det. (*Ana Joxepa afituta bezela, Ander'i adi-adi begitzer dio*).

Antxeta —Ander! Zure nagusi jaunaren aurka jeikitzen al zera?

Ander —(*era=onez*) Mofoi nazunez, menpeko ere bai, ta aufera ere ofela jafaitu nai det zure menpe; baña... jopu, inoiz ez!

Antxeta —(*zofoitz*) Afokeriak zure nagusiaren aurka jeiki arazten zaitu, Ander!

Ander —Ez! Zure agindua beteaz, nere eskubidea zaintzea beste okefik ez dagit.

Antxeta —(*nausitasunez*) Ongi da. Baña ez aitzu zure nagusiak beste eskubide batzut ditunik.

Ander —Ez, jauna. Eta dezun eskubidez ogi gabe utzitzen ba'nazu... Jaungoikoa erukioña da, ta ez nau nere amakin goseak iltzen utziko.

Ana Jox.—(*bat-batean Ander besarkatuaz*) Ondo erantzuna seme! Jaungoikoagan ustea jartzen dakien gizonak, ez dik ludikoen azperkeri bildur izan bear!

Antxeta —(*une baten Ana Joxepa'ri adi-adi begira egonda*) Ana Joxepa! Zu ere nagusiaren aurka?

Ana Jox.—Ez jauna! Zuzen dabilenaren alde! (*Antxeta asefe antzez goiko aterontz joaten da*).

Antxeta —(*atetik*) Ondo oldoztu egitera zoaztenaz! (*joaten da maladian bera*)

Ander —(*eseri ta bere maigañera botiaz*) Ezin izan besterik, ama!

Ana Jox.—Ondo mintzatu aiz seme. Baña ez orain emen eseri. Ua oraındaño bezela eure lanera... Eskubideak, zaindu; ta bearkunak, bete.

Ander —(*zutinduaz*) Entzun dezu Antxeta jaunak ere bere eskubideak ditula. Ez naiz luzaroko bere jauregiko lanean.

Ana Jox.—(*bere buru jabe*) Ez kezkarik izan. (*jostari*) Eta, zer diok orain ire amari. Ez lanik egiteko?... Ai mutil! Aberats etxetako

maladiak, labañak oi dituk, eta efex ifist egiten da.

Ander —(*oldozti*) Bai... bai... bai...!

Antxeta —(*mai-kutxatik zerbait artuta*) Tori lore-aziok. Ua eure lanera. (*joaten da Ander goitik maladian bera aienatzen dala*).

Ana Jox.—(*Ander'i jaraituta atean maladi buruan baratzara begira*)
A jauregiko nagusi afoal... Jaungoikoak lagun dagidala, ire as-
perkeriari nereaz erantzun ez dagiodan! (*une ontan, Marixa-
bel'ek eskui aldeko barutik deika*): "Ana Joxepa!... Aaaaana
Jooooxepa!

IRUGAREN AGEALDIA.

Ana Joxepa ta Marixabel.

Marix. —(*ojuka*) Ana Joxepaaaa!...

Ana Jox.—Ara! Emen da bere etxean egon ezin dan bat!... Aufera Ma-
rixabel.

Marix. —(*eskuitik sartuaz*) (*aur jaio befi bat dakar besoetan*) Afatsal-
de on Ana Joxepa.

Ana Jox.—Zuri ere Jaungoikoak ofela deizula.

Marix. —Garai ontan etxean egongo zerala-ta nere buruari esan diot:
Noan pitin baten Ana Joxepa'gana, nere umetxua artuta; ura
ere bakafik arkituko da, ta... laguna ez zaio gaizki etofiko be-
fiketa aldi bat eukitzeko.

Ana Jox.—Badakizu befiketa-zale ez naizela. Laguntasuna, atsegin
zait; baña befiketak, ez... (*alki bat eskañiaz*) Tori, eseri zait.

Marix. —(*exeriaz*) Esate bat da. Neri ere, ez da ezer emakume autu-
jario kale-zaleak baño amofu geiago ematen ditanik. Ezin di-
tut ikusi!

Onera natofela, Pilota'eneko Iñaxi arkitu det, eta... ara!
aren jarduna beko Antoni dala-ta-ez-dala! Ura gaizki esateal

Ana Jox.—(*ziriz*) Eta zuk, gaizki esaten ez entzuteafen, ixil-ixilik alde
gingo ziñon, ezta?

Marix. —Alde... Egon naiz ori egiteko ere, bai; baña badakizu: adis-
kide bati ezetsi ori ez egiteafen berakin irauñ det; beti da ofe-
lakotxea-ta... Esan diot: Zertan ofela aintzat artzen ditun Mari-
lotsagabe ofen gauzak? Ez al zekiñagu guziok ori nor dan?
Beti gangar, alper, zikin bat izan den ori, ta ofelakoaz eure bu-
rua bat-egin? ez nik beintzat!

Ana Jox.—(*ixekaz*) Ofa zein era onez mintzatu zeran!

Marix. —Noski. Baña Iñaxi bera ere, bestea bezin nolabaitekoa da,
bata bestea baño gangar, mataxa-jario kale-zaleagoak, eta etxe-
pe baten ezin elkar ondo ait. Biak ere, bakoitza bere tokian

sukalde baztafak txukuntzen egongo balirake, ez luteke ofen-
beste naspil erabiliko. Baña... utik! elkañen antzekoak dira, oien
artean sartu...! ez ni beintzat!

Ana Jox.—(*ziri-geiagoz*) Ikusten det bai; ikusten det...

Marix.—Bereala alde egin diot. Ez nintzan aren befiketak entzun
gura-ta. Or konpon!

Ana Jox.—Ondo egin dezu.

Marix.—Nik? Bai orixe! Geienez ordu-bete egingo nuan berekin.
aize bat prexkuago zegon kale-mutur artan! Alde egin bear
izan det. Bestela... nere senafak arkitu ba'nindu an aur txikia
besoan detala...! ez det oldoztu ere nai nola ekingo zidan etxean!
Bai...! or konpon! egin, eta emen etofi natzaizu.

Ana Jox.—Zure senafak afazoi du. Ez dira onen aur txikiak ofela era-
bilí bear. Aulak izaten dira-ta, ardura aundia bear izaten dute.

Marix.—Aulak?... Au ez beintzat. Añi koxkofa baño gogofagoa dator.

Ana Jox.—(*auñari begituaz*) Obe... obe... Edefa dago!... Añ lo edefa
dauka! Ai ene Marixabell! Nolako atsedeen edefa eukiko luken
onek orain bere seaskan etzandal...

Marix.—Nere magalean ere ez dago gaizki.

Ana Jox.—Baña, aña seaskan dala, norberak lan asko egin dezake
etxe-aldean, nik beintzat ala egin oi nuan...

Marix.—(*entzungor eginda, aña esnatzera balijoake bezela, lotaratzeko
bere burua atzera ta auñara igitzen du, zutinduta*) Looo...
looo... looo! (*goiko atean geldituta kanpora begira*) Au baratza
alde edefa daukazu Ana Joxepa!... Etxe-inguruko au izango da
zurea?

Ana Jox.—(*sutondoan zerbait egiten dabilela*) Bai. Guretzat lantzen de-
guna.

Marix.—Eta ezitik aruntzkoa nagusiarena, ezta?

Ana Jox.—(*itun*) Guzia nagusiarena.

Marix.—A! Jakiña! Baña nagusiarentzat lantzen dezutena.

Ana Jox.—(*oarkabe*) Baita.

Marix.—Abek sail izugafiak ditu Jauregi'k!... Abek loretegi edefak!
abek zuaiztiak!... Ikusgafia!... Ez du lan gutxi egiten Ander'ek!

Ana Jox.—Bearko, ogia irabazi nai ba'da...

Marix.—Añ txukun dauka guzia!... Bai Jauregi'tik onarako bide-
txigofa ere apain daukala!... Ezañun da bertatik nagusiak ibil-
tzen dirala...

Ana Jox.—(*bere lanari jaraituaz*) Baita... baita...

Marix.—(*Ana Joxepa'gana urbilduta*) Entzun detanez, naigabe aundia
du nagusiak bere ilobatxoak egin nai duan ezkontzaz, e?

Ana Jox.—(*ben=ben*) Ta zuri zer?

Marix.—Ezer ez baña; Ibergain guzian aoz-ao dabilen kontua da-ta...

Ana Jox.—Zertaz jarduna ere, bear izaten da.

Marix. —Zu ere, aoz-ao zabilz...

Ana Jox.—Ni?... Zer dala-ta?

Marix. —Alegia... senar-gaia egunoro emen izaten dezula...; maiteok zure bidez elkar-aitzen dirala,...

Ana Jox.—(zofotz) Befiketak!

Marix. —Ain befiketak...! Esaten jardun nintzan Kontzez-Odolki'ri ni noiz-nai emen izaten naizela baña, oraindik ez zaidala egokitu ez mutil, ez nexka emen arkitzerik...

Ana Jox.—Zerbaiten jakin-miña erabiliko dezu bai zuk, zabiltzan tokian.

Marix. —Ez ba! Ez det onara etofi beafik oiek ikusteko. Goizean-goiz elizatik etxera nere atari aufetik igarotzen dira.

Ana Jox. Ortik oldoztu ba bitarteko beafik ez dutela elkar aitzeko.

Marix. —Ez dirudi, Baña badakizu: eragozpenak dituzten maitaleak laguntzale bear izan oi dira.

Ana Jox.—(bere arteko afotasunaz) Bai ta ofelako aundiki batzuk ni bezelako baten bear!

Marix. —Nor zu baño artuago uri ontako aundikiaz? Gauz guzieta-rako zu bear zaituzte. Antxeta jaunaren jauregian, zer esanik ez.

Ana Jox.—Oiek ez dira nere bear-ta...

Marix. —(jardun=aldakera) Leiotik goizero beroiei begira egoten naiz. Ura bikoitz edefa! Anderetxo Elixabete bera ain lirain edefa, eta senar-gaia baita ain gizaseme bikaña! Ona ta aberatsa dala dasate guziak... Zergatik ba Antxeta jauna eskontza ofen aurka?

Ana Jox.—(asefe) Ez daukat befiketako betik, eta ez neri ofetaz ezer galdetu. Ez bezte ezertaz ere.

Mari. —Ez... ez... ez... (aufari begitu, ta bere soñari eragiñaz) Loooooo! (goiko atelderontz joanda baratzarontz begira) Auxe da pofusala daukazuna Ana Joxepa!... Gurean ere artuko litzake.

Ana Jox.—Ba-dezu baratza. zertan zuk ere sail on bat jafi ez?

Marix. —Nere senafak astirik ere ez du izaten-ta!

Ana Jox.—Eta zuk atxuferako gogorik ez, Marixabel.

Marix. —Gogorik ez edo... Artuko nituzke ba eder-eder batzuk...

Ana Jox.—(entzungor eginda beretzat) Beti eskea.

Marix. —Jan ezin dezakezuten beste daukazu. Alpefik galtzeko... (ixil-unea). (Eskuiko atean Lizarbe jauna agertzen da) (Marixabel'ek ikustean) A!

LAUGARĒN AGEĀRALDIA.

Ana Joxepa, Marixabel eta Lizarbe.

Lizarbe —(atetik) Afatsalde on, Jaungoikoak deizutela.

Marix. —(uzkur) Oi...!

Ana Jox.—(*atsegiñez*) Baita zuri ere, Lizarbe jauna.

Lizarbe —Deitu gabe sartu natzaizute...

Ana Jox.—(*bereala*) Ala bear ere.

Lizarbe —Zuen artekoa etentera etofi ote naiz?

Ana Jox.—Ez orixe!

Lizarbe —Ez nuke nai beintzat...

Marix. —(*uzkur*) Ez jauna; ez.

Ana Jox.—Marixabel alditxo bat igarotzera etofita zegon emen; eta etxera joan beafa du garaia eldu zaio-ta. (*joaten da ezkefeko atetik*).

Marix. —(*beretzat*) Bidaldu egin nai nau.

Lizarbe —(*Marixabel' i*) Aur-zai?

Marix. —(*atseginduta*) Bai, jauna; jaiotzen diranak azi ta zaindu egin bear.

Lizarbe —Jaio-befia edo dezu...

Marix. —Bai jauna; ilabete besterik ez du.

Lizarbe —(*aritututa*) oi! Gaxoa!

Ana Jox.—(*poñu batzuk eskuan ditula ezkefetik irtenaz*) Gaztetxoegi luzaroan etxetik kanpoan eukitzeko (*Marixabel' i poñuak emanaz*) Tori Marixabel, eder-edefak dituzu. Zoaz etxera ta aur ori seaskan ipiñi.

Marix. —(*poñuak artuaz*) Esketikasko.

Ana Jox.—(*aufari pa-eman, eta Marixabel' i leun-leun eskuiko alde erakutsiaz*) Zoaz ba, eta ufengo nai dezun arte.

Marix. —Bai... bai, banoa (*Lizarbe' ri*) Agur jauna.

Lizarbe —Agur.

Marix. —Agur, Ana Joxepa.

Ana Jox.—Agur. (*joaten da Marixabel eskuitik*).

BOSGAÑEN AGEÑALDIA.

Ana Joxepa ta Lizarbe.

Lizarbe —(*aritututa*) Baña; Ana Joxepa! Andretxo ori etxetik bidaldu egin dezu!

Ana Jox.—(*Lizarbe' ri maiondoko alxia eskeñiaz*) Ez da ala ere asafetuko. Eseri zaitte... Bidaldu ez ba'neu, ez zan joango...

Lizarbe —Eta ni etofi naizelako bidaldu dezu?

Ana Jox.—Jakiña. Ez zuan emen zertan egonik.

Lizarbe —Asafetuko da.

Ana Jox.—Bai obe.

Lizarbe —Orduan...

Ana Jox.—Ez zazu kezkarik izan. Udazkeneko euli makala baño itsas-kofago da gaxoa. Ezin gañetik kendu det...

Lizarbe —Orain bezela eman egingo diozu-ta!

Ana Jox.—Gutxitan emendik utzik ateratzen da, bai... Baña eseri zaitte.

Lizarbe —(*eseriaz, alai*) Ez al nazu ni bidaldu nai?

Ana Jox.—Ez orixe!... Zu emen ikustea beafeko egin zait. Bi notin berdiñezak maite izan ditut zugar: Jaungoikoak ala naita, notin bi oiek bat eginga arkitu ditudanean, maitasun biak ere bat eginga nere biotz gaxoa zugarako samurtasunez irazeki dute; ta... azketsi ausardia ba'da, baña seme ba'zinduzket bezela nere ondoan eukitzeko yoranez nauka beti... Gaur nor zeran oldoztean, ori, atso txiro onentzat ausarkeria ote dan ustez gelditzen naiz baña...!

Lizarbe —(*bat-baten sutinduta*) Ez Jaungoikoafen ofelakorik uste-izan, (*Ana Joxepa'ri itzal eta samurtasunez bekokian muxu-emanaz*) Maitasunak, maitasuna sortzen du, zureak ere bai nigan; eta ezin zait egunik igaro zurekin egonalditxo bat egitera etofi gabe... (*samur*) Ludi ontan danik andre maitagafiena zera nereztzat Ana Joxepa... Nere lenengo intziriaz efukitu ziñana... nere lenengo ifipartxuaz atsegin artu zenduna... Eta... ai!... baita... nere ama efukafiari itxaropenezko itz pozkafiz bere zoritxafa arin lu, ta il zanean, begi eder eta gozo iduritzen ditudan aiek betiko itxi ziñizkona...

Ana Jox.—(*yoranez*) Orduan, azketsi didazu jakin nai zendun zure jaiotzaren eskutua azaldu nai eza?

Lizarbe —Zergatik ez, eziña ba'da?

Ana Jox.—Iñoiz ere baño eziñago gaur.

Lizarbe —Eta ez daki iñork?

Ana Jox.—Ni besterik ez da iñor ludian nor zeran dakienik.

Lizarbe —Neronek ezin nezake jakin?

Ana Jox.—Ezin nezakezu esan.

Lizarbe —Orduan, gorde zazu maiteki zure ixilpeko ori; eta iltzen zereanean, ni baño lenago ba'zera, eraman zaiozu Jaungoikoari, ni ere Bere altsora naizenean ofen jakitun egin nadin.

Ana Jox.—(*biotz=ukituta*) On-ona zera jauna!

Lizarbe —(*bareago*) Baña... zergatik "jauna" deitzen nazu?... Ez ba-det ludian gurasoaren itzal eta maitasuna zor dagionik zu besterik?

Ana Jox.—(*asnaz=luzez*) Geroko nagusi-gai zaitut... itzala zor dizut...

Lizarbe —(*itun*) Zure nagusi-gaia!... Ortik nere zoritxafa!... Ai Elixabetere nere-tarikoa ba'litz!... (*ixil-unea*) Nor zanik jakin gabe, ezagutu ordutik maite det... Geroago ta eziñago uste detan maitasuna...

Ana Jox.—(*zerbait azaldatuta*) Zer? Inki-manki nabaitzen al dezu bera?

Lizarbe —Ez orixe!... Elixabete'k maitasun sendoa dit....

Ana Jox.—Orduan....

Lizarbe — Nik baño obeto dakizu edo, Antxeta jauna nor dan. Beren artatik ezerk eta iñork ateratzen ez ditunetakoa. Zioak aldatu, edo aurka ditunak makurtu bearko; bere erabakiak leanean zutik jafai dezaten.... Bere ilobaren senartzat ni nai ez izateko ditun zioak, badakizu: nere izatasunaren zergatian irasi ditu; eta oiek aldatu-eziñak dira.

Ana Jox.—Maitasunak al aundia du, Lizarbe Jauna.

Lizarbe —Deitu nazazu Andoni, ofela legor: Andoni; iñork baño lenago ikasitakoa dezu-ta...

Ana Jox.—(pozañen) Ofela nai dezunez... Andoni ba. Baña eseri gaittean. (esertzen dira) Maitasunak al aundia du, Andoni. Ez da ez dezakenik. Zure maitea berean sendo ba'da: Zergatik itxaropena galdu? Nork esan dizu Antxeta jaunak amoregin ez dezakela, bere alabatzako iloba maiteak dizun maitasunari? Jaun ori biotz-gea ote?...

Lizarbe —(siñizgogor) Aundikiak, beren izen aundiak eskatzen duanaren afean, biotzari entzungor egiten diote.

Ana Jox.—Ofela ba'da ere, beste eraz ezin danean, Elixabete'k bere buruaz agindu lezake nai duan zoriona lortzeko.

Lizarbe —Ori da samingafi zaidana!... Ain maite duten gurasotzakoen aurka egin-arazi bea!al... Eta besterik ezin!... Nere zoritxa!al... (ixil-unea).

Ana Jox.—Ez zazu Jaungoikoa'gan usterik galdu. Berak ez lezakenik ez da...

Lizarbe —Itxaropen ori det...

Ana Jox.—Etzaitu Berak utziko... (goitik baratzako maladian gora datoñen norbaitek: "Agur Miren garbi-garbia")

Ana Jox.—(bat-batez zutinduta) Orban gabe sortua! (Lizarbe'ri) Elixabete dator.

Lizarbe —(bat-batez zutinduta baita) Elixabete? (agertzen da au goiko atean),

SEIGAÑEN AGEÑALDIA.

—
Ana Joxepa, Lizarbe ta Elixabete.

Lizarbe —(Elixabete ikustean) Maite!

Elix. —(Ikaratuta) Andoni!... Zu emen...

Lizarbe —(maiteki) Ni emen, Elixabetel!

Elix. —Ez nuan uste...

Lizarbe —Ofengatik egokitu zait, zu beñiz ikusteko poza...

Elix. —(tamal) Eta neri, ikusi ta alde egin beafaren naigabea...

Lizarbe —(afenka) Ez zaite juan, Elixabete.

Elix. —Zu emen zaudela, ezin nindeke bertan egon.

Lizarbe —Orduan... ni joango naiz!

Ana Jox.—Ofenbestez, ez dago ziorik.

Elix. —Bai, Ana Joxepa...

Ana Jox.—Zuek emen egoteaz geien bildur bear dana, ni naiz; ezta baña ofenbeste. Atoz aufera anderetxo; eta une labur baten bederik, exeri zaite.

Lizarbe —Artez ari da Ana Joxepa; Jaungoikoak nai izan du guk orain emen elkar arkitzea. Bera gure maitasunaren laguntza-
le degu.

Ana Jox.—(*Jostari*) Elixabete'ri dagion sari bat da. Orain ere, onegitera zetofen noski.

Elix. —Ia okefuste dezun.

Ana Jox.—Oi-eza litzake. (*lizarbe'ri*) Zure maitetxoaren goimaitasun eta eskuzabaltasunari eskefak, Ibergain'go sendi efukafi guziak ia-ia poztu ditut.

Elix. —Asko maite nazu-ta, dagidan guzia on eta aundi arkitzen dezu.

Lizarbe —Ez da ofengatik bakafik izango. Ana Joxepa'k ezagumen ona du, ez da zalekeriak itsutzen dutenetakoa.

Ana Jox —(*jostari*) (*Lizarbe'ri*) Aizu: ez da inor Elixabete ezagututa beregana zaletuko ez danik.

Lizarbe —(*Jostari*) Beztela... galdetu neri. Ezta?

Ana Jox.—Ziñaldari jartzen zaitut...

Elix. —(*atsegíñez*) Ara bi emen!...

Ana Jox.—Nere bizi guzian etxerik-etxe gaixozai eta abar nabilela, amaika zoritxar, bear-izan, eta landeferi ikusi izan det. Al nuana egiten nuan, baña, diru beafa zegon tokian nik ezin ezer egin; nerau naikoa txiro-ta. Ofela, zenbaiten bear-izanak ain urbiletik nabaituaz nere biotzak igaro izan ditun naigabeak zenbatu eta edestu eziñ ala dira... Zenbat aldiz nere-artean oldoztu izandet: "onelakoren diruak ba'nituzke, bestelakori emango nioke poza, bear duan gauz artarako eramnaz!" eta abar... Beti ofelakoxe ametsetan, poztu beafez, mikaxtu egiten nuan nere bizitza.....

Jaungoikoaren efukiak azkenik ez du-ta, sortu zuan Jau-regi'n emakume antzeko aingerutxo au, eta ofa nun detan bear guzirako beronen sakela sabalik....

Lizarbe —(*pozetan*) Sakela, ta biotza ezta?

Ana Jox.—Ongi diozu: sakela ta biotza.

Elix. —Zuek ezin ezer txafik niñan arki... Ori da guzia.

Lizarbe —Ez dagon tokian, ezin arki.

Ana Jox.—(*berean*) Ibergain'en ez da inor gaur, jakiñean ba'naiz beintzat, zoritxafean nor lagundua ez duanik. Anderetxo, —esaten diot—onlako, osagai beafean dago, ta nundik ez du, Beste-

olakok, zer jantzirik ez du... Angoak, zer janik ez dute. Beste artakoak, landeferiak jota daude... Guzientzat zerbait ematen dit, eta guziak poz eta eskefenez beren aingeru ongi-letzat onesitzen dute....

Elix. —(bereal) Zer ba?... Esan egiten al dezu ortarako norik ematen dizun?...

Ana Jox.—Batzutan esan; eta, beste batzutan... esan beafik ez. Ez al daki ba Ibargain guziak Ana Joxepa Xalxape'k beretik ezin egin ditezkeela diru emate oiek?... Ez aldakite ba, emengo txiroak, beren naigabe-aringafi sortu zindula Jaungoikoak?... Bai orixe!... (alki bat eskeñiaz) Tira, tira eseri zaite; txiroak zure zorion-eske egiten dituzten otoitzak, usterik gutxien de-zunean berau ekatiko dizute-ta. (Elixabete esertzen da).

Lizarbe —Zorion ori, Elixabete'rentzat bakafik izango ote da?...

Ana Jox.—(beste alki bat Elixabete'ren ondoan ipiñiaz) (pafez). Ofi... beronek erantzun lezaioke, nik baño obeto. Eseri zaite.

Elix. —(zutinduaz) Eseri... ez. Joan egin bear naiz...

Ana Jox.—Joango zera! (sutondora joan, eta zerbait aniolatzen ekiten dio).

Lizarbe —Joan...! (maiteki) Elixabete...! Zeren bildur zera?...

Elix. —(maiteki, baña itun) Ain samingafi zaidanaz mintzatzen jafi nai al nazu?

Lizarbe —O! ez! maitel... Samingafi zaizun guzia zugandik alde-araztea nere gain balegoke...! (ixil-une laburra).

Elix. —Ana Joxepa'kin egonalditxo bat egitera nentofen... Ez nuan uste zu emen arkitzerik...

Lizarbe —Badakizu sukalde ontan ditudala Ana Joxepa'ren aoran, nere ama efukafiaren maitasunez igurtzitako itz gozo estitsuak, damaten bizitz-mingotzaren gozagafi.... Baita zure gogo aratzak emen utzitzen duan onoiemen usai edefetan biotza gozatu zale naizela ere...

Elix. —(xamur) Andoni...!... (ixil-unea) (Elixabete oarkabe eseri egiten da, bera begira geldituaz).

Lizarbe —(exeriaz baita) Egingo ote nau Jaungoikoak izate guzia zeru antzekoa eman dizun aingeru maite ofen jabe?

Elix. —Ez diot besterik eskatzen. Bereganako bide dan bizitz au biok elkartu ta igarotzea baño...

Lizarbe —(Elixabete'ri eskuak artuaz) Ain zoriongafi zaizkit zure maitasun-itzak. Elixabete!...

Elix. —Naigabe samifetatik ito-arazi nai didaten maitasuna...

Lizarbe —(biotz-beraz) Gaxoa!... Ez da neretzat neke lafiagorik, zure naigabe zio naizela oldoztea baño.

Elix. —Zure maitasuna nere biziaren zergatia da, Andoni.

Lizarbe —(zorionez) maitetxo!... (ixil-unea maiteki alkafi begira)

Ana Jox.—(*beretzat*) (*arasatik otañtxo bat ateriaz*) Lusagafik ez emen... Sapaira bila joan bearako... (*abiatzen da ezkeñera*) (*Lizarbe ta Elixabete'ri begira geldituaz*) Bikoitz zoriontsua... Ez ditu Antxeta jaunak ikusten!... (*joaten da ezkeñetik*).

ZAZPIGAÑEN AGEÑALDIA.

Lizarbe ta Elixabete.

Elix. —Gaur gogor eraso didate osaba-izebak zure maitasuna ezintzat utzitzeko eskatzen...

Lizarbe —(*urduari*) Eta, zer erantzun diezu?

Elix. —Ez naizela nere biotz jabe ori egin al izateko.

Lizarbe —(*zorarazia*) Ene kutuna!..... (*ixil=unea*) zer adibide zizuten gaur?

Elix. —Betikoa. Aundikitariko izateak ezartzen dizkidan bear-izan afoak...

Lizarbe —(*itun*) Iñoiz osatu ezin nezaken akatza...!

Elix. —Zugan akatz uste ez detan zioa...

Lizarbe —(*pozez*) Ain ona zaitut Elixabete!..... Esan: Biotza alde-utzi eginda, otz-otz iraditu al ba'zeinke, zer usteko zenduke zure osaba-izebaen adibide ofezaz?

Elix. —Adimena biotzari lotuta uste detana, ber-bera; ofetxek lotu dit-eta... Dizudan maitasunaren zergatia, zure izakera kistar erazko on atsegiña da. Zure zindotasun eta jakintza. Zeran guzia. Bizitz ontan Goikoa'gana bidean bear detan laguna..... zugan arki det, eta ez det besterik nai.

Lizarbe —(*biotz-ukituta*) Elixabete! Maitetxo! Jaungoikoak betiko lo kafiz lotuko du, bekoak azkatu nai dutena!

Elix. —Ofela uste det. (*ixil=une luzea*) (*sartzen da Ana Joxepa ezkeñetik*).

ZORTZIGAÑEN AGEÑALDIA.

Lizarbe, Elixabete ta Ana Joxepa.

Ana Jox.—(*eskuan dakañen otañtxoa arasa-gañean utziaz*) Andoni: uste det, orain zuk emendik alde egitea, on litzakela. Ez asko luzatu... (*bat-batean oartuta bezela zutintzen dira biak*.)

Lizarbe —Egia. Norbait letorke, ta gu biok emen arkitzetik, zuretzat kaltea etofi.

Ana Jox.—Zuengatik letorzkidan kalteak pozik artuko nituzke. Ez da neregatik...

Lizarbe —Zure biotza beti gure alde...

Ana Jox.—(*erdi-pañez*) Artez, edo ez; biotza geienez oi da maite ditunen alde. Nerea baña, oraingoan artez. Zuaz ba, Elixabete'n gatik.

Elix. —Ez. Neu noa.

Lizarbe —Ni.

Ana Jox.—Zu, bai, Andoni. Zoaz.... Zure biotz edefak atso txiro onengana seme-maitasunez ekafi zaitu; eta ofen sari, Jaungoikoak, Elixabete emen arkituaz, gerora eman nai dizun zoriona bein befiz nabai-arazi dizu....

Lizarbe —(*Ana Joxepa'ri bekokian muxu=emanaz*) Tori... nere ama gaixoari eman nai niokenaren ordañez! (*Elixabete'ri esku biak artu, ta maite-maite begira egon ondoren*) Agur maitetxo. (*joaten da eskuitik*) (*Elixabete ta Ana Joxepa'k ateraño jafaitzen diote*) (*biak atetik kanpora esanaz*): Agur!

BEDERATZIGAREN AGEÑALDIA.

Elixabete ta Ana Joxepa.

Ana Jox.—(*bañura datozela, mañkoak igurtziaz*) (*biotz=beraz*) Ain ona da!

Elix. —(*Lafitasun zartada baten Ana Joxepa besarkatuaz*) Ain zoritxafeko naiz!

Ana Jox.—Baretu zaite, anderetxo. Jaungoikoak guzia lezake, ta Bere esku utzi dezun gauza, berak zuzenduko dizu...

Elix. —Itxaropen ofek nere gogoia indartzen du. Baña... (*tamal*) geruago ta zailago nere begietan agertzen da...

Ana Jox.—Beste ofenbeste gertatzen zait. Ez det sumatzen zure osaba jaunak zuen eskontza ontzat artzeko, zerk beretik atera lezaken...

Elix. —Ene!... Egunetik-egunera berean sendoagutzen da.... Au da eguna gaur ematen ari zaidana!.... Ez det nai-izan lenaz gañera Andoni naigabetu gertatzen zaidan guzia edestuz... Nere gogo-oñazea zuri azalduta zerbait arindu naiaz netorkizun!...

Ana Jox.—Gaxoa!... Arestian, zure osaba jauna izan degu emen, zerbait asefe-xamar agindu bat ematen.

Elix. —Zer zan?

Ana Jox.—Ontzat artu ezin dezaiokegun agindua: Andoni'ri onara etortzea, guk galeraztea nai du... Ez duala nai berea dan etxean Andoni sartu dedin.

Elix. —Eta...? Zer erantzun diozute?

Ana Jox.—Ander emen zegon; eta, agindu ori bete al izateko, beste etxe batera joan bear gerala bizitzera, erantzun dio; ez duala nai ain ongile izan zaio jaun ofi bizi geran etxean safera ukatu.

Elix. — Ander'ek zuzen erantzun dio.... Asefetuko zan nere osaba?

Ana Jox.— Guztiz... Zemaiez mintzatu zaigu joatean.

Elix. — Auek naigabeak!...

Ana Jox.— Guziak amaitu dira!...

Elix. — Ala bitez...!... Andoni'ri esan egin al diozu gerta zaizutena?

Ana Jox.— Ez, ez, ez! Ez nioke ofelako naigaberik eman nail... Ezta nere buruari ere, bera gurean ez ikustearen atsekabea...!

Elix. — (naigabez) Josu!... Josu!... Nere maitasunak zuentzat ondore txafak ote dakarzki?... Zer neretzat samin aundiagorik?

Ana Jox.— Ez zaite estutu, anderetxo, Jaungoikoak lagunduko gaitu!... Ez al nazu ikusten zein bare nagon gerorako ikuspegia gaur beltz azaldu zaidan afen.

Elix. — O! Ez!... Nik al detan artean, ez dezu gerokoaren bildufik... Baña, Ana Joxepa: nere osaba-izebaen itsukeriak, biotza zatitzen dit.... Guraso ba'nituzke bezin maite azi naute; nere bizian auen utsunerik ez nabaitzeraño.... Oraindaño ez det inoiz ezertan umezurtzaren samiña zer dan igefi, eta nere biziko une gafantzituenean, lortu nai detan zorion aurka jafi zaizkit!...

Ana Jox.— Ez da len bezin maite ez zaituztelako, Elixabete. Ez ofelakorik uste-izan. Gizartean dezun izen aundikiaren eraspena da, zure maitasun aurka jeiki dana.

Elix. — Ofek dakar nere zoritxafa!... Ofengatik nabaitzen det gaur umezurtz izatearen utsunea biotz bafuan!

Ana Jox.— Zergatik ba?

Elix. — Nere amaren biotzak, nere biotzaren samiña adituko zualako,

Ana Jox.— (ezpaiez) E...! Amak ere, bizitz ontako eraspennen alde biotzari uko egiten ba-dakite. Beintzat, zuzen ustean....

Elix. — (urduri) Ez baña nere amak!

Ana Jox.— (erukiz) Gaxoa! Naigabeak edozer esan-arazten dizu...

Elix. — Nola edozer?... Ez dezu on-ustean nere ama zana?

Ana Jox.— Guztiz on-ustean... Baretu zaite Elixabete. Ez da maite ez zaituztelako. Zuretarikoen artean, bearkun deuna da sendiaren izen andikiari iraun araztea...

Arazo ori da zure maitasuna galerazten datořena... Eta, ez zaite ainbeste maitatu zaituztenen aurka jafi. Oker daude, baña on-ustez...

Elix. — (oartuta) Artez mintzatzan zera Ana Joxepa. On-ona zera... Baleike neri naigabeak erokeriak esan-araztea... Maite ditut nere osaba-izebak, eta ziñez maite naute...

Zure ondoan, nere ama zanaren oroipena maĩtagafi datorkit... Beratzaz mintzatzan zeran bakoitzean, zuri entzunaz iduritu detan bere antz eder zoragafia, nere pozik xamufena da... (alkiak artuaz) Atoz ba, ta eseri nere ondoan.... (exertzen dira) Esan... esan... Baleike ama bat bere alabaren zorion-aurka jartzea?...

Ana Jox.—Batak zoriona arkitzea uste duan gauzan, besteak zoritzaña edo uste baleu, biak artez elkafen aurka lirake...

Elix. —Adibidez: nere ama ta ni...

Ana Jox.—Baleike...

Elix. —Nola ba zu auzi ontan nere alde zaude?

Ana Jox.—Ez dakit ba... Dizudan onginaiak zukanontz gainberatuko nindun edo...

Elix. —Didazun onginaiak..., ori, nere ama izan ezta. Zenbat beartuko ez ote leuke ama bat alabaganako onginaiak!....

Ofengatik nere naigabeak, zure ondoan iduritzen ikasi detan ama xamufaren utsunea gogo bafuan itun nabaitzen du, eta bizi guzian lenengo aldiz orain, umezurtz naizela konturatu naiz..... Eta zure sukaldera nator, nere jauregian ezin arki detan poz amatar bila...

Ana Jox.—Gaxoa!... Zergatik oraindano bezela ez zera ixurtzen alabaxamurtasunaz zure izebaren biotzean?

Elix. —Alpefik da!...

Ana Jox.—Alpefik ez. Ez etsi, ta jafaitu oraindano bezela, zeruan daukazun ama zure izebagan ikusten... Ez aztu baita Antxeta jaun zure osabak maite zaitunik, eta ez zatzaio adipetu nairik joan alpefik da-ta. Jo biotzera maitasunak beartzen ez duanik ez danez... (*ixil-unea*).

Elix. —Zuri entzunda igartzen det, ezin nezakela artez nererik lortu, gurasotzakoen biozkada bat bide baizik...

Ana Jox.—Ez det ori esan, era ortaz onu eman, besterik ez... Zu zera oarkabe ofela uste dezuna, ta aldeztuko zaituzten biotz bila zabiltz...

Elix. —(*bere onetik at*) Ez dakit zer nai detan; ezta zer uste detanik ere: Andoni maite det, eta nere osaba-izebaen aurka joan beafa, mingafi zait. Baña ezin nezake besterik: Andoni!... Andoni!... Andoni!...

Ana Jox.—(*erukiz*) Gaxoa!

Elix. —Erotu bear naiz.

Ana Jox.—(*maiteki*) Elixabetel... Jaso goruntz zure biotza, ta Jaungoikoa'gan itxaron... Zure maitasuna zuzen aratza da, ta Berak onetsiko du.

Elix. —(*ixil-une baten ondoren*) Zure itzak baretu ta sendotu egiten naute erabat. Nai ez baneu ere, zukan nere amaren gogoa arkituko nuke. Zuk bakañik nere inguruan biotz-ondora jausten zaizkidan itzak dituzu. (*gizaseme abotz batek eskuian barutik: "e...up! Ana Joxepa"!*)

Ana Jox.—Norbait dator.

Elix. —Joan egingo naiz.

Ana Jox.—Ez origatik,

- Elix. — Bai. Bakafik egon-gura naiz. Banoa. (*abotzak: "Ana Joxepa!"*)
Ana Jox.—(*abotzari erantzunaz*) Aufferal
Elix. — Gero arte, edo biar arte; Ana Joxepa.
Ana Jox.— Nai dezun arte... Baña ez zaite joan bakafik egotera. Zoaz, zeruan dezun amatxo maitea, Jauregi'n izebaren biotzean bila-tzera. Bertan arki dezakezu.
Elix. — Bai. Baña lenago, zeruan detanari eman nai nioken muxua zuri eman nai dizut baita. (*lantzantzen du*) (*eskuiko atean Az-peiti agertzen da*) Agur!
Ana Jox.— Agur, anderetxo! (*joaten da Elixabete goiko atetik*).

AMARGAREN AGEÑALDIA.

Ana Joxepa ta Azpeiti.

- Azpeiti — (*atetik*) Noiztik dira aberats jauregietako anderetxo eder zorañiak, txiro etxetako atso zar zimelak muxuka jan zale?
Ana Jox.— (*pañez*) Ara bestea!
Azpeiti — (*sartuaz*) Noiztik baña, noiztik?
Ana Jox.— Mutil... ez al dakik ofenbeste?... Gure Jaun Gurutziltzatuak ludian goi-maitasuna erein zuanetik.
Azpeiti — Ez da ba, azi eder ori iñork erein zuan antz aundirik arkitzen batzutan.
Ana Jox.— Beste batzutan bai baña... Ikusi dek, Azpeiti.
Azpeiti — Ikusi det, bai... Izan ere zuk Ana Josepa, aparteko era dezu aberats eta txiro, goiko ta beko guziak zureganatzeko!
Ana Jox.— Geiegi batzutan...
Azpeiti — Orain bezela: ez dezu nere beafik, baña, etofi natzaizu.
Ana Jox.— Zer dakafek?
Azpeiti — (*Jaka jasota besamutuñ erakutzi*) Ara: erlekizten zital bat atera zait emen, eta miñez nauka.
Ana Jox.— (*eskutik elduta begituaz*) Baita zitala daukazu ba... Enplastutxo bat egingo diot.
Azpeiti — Nai dezuna egiozu. Atxufaz kendu nai badidazu ere, berdín zait, kendu ezkeru.
Ana Jox.— Au astakirtena!
Azpeiti — Egia da-ta...
Ana Jox.— (*obeto begituaz*) Enplastua edo... Eldu-xamaña daukak... zulatuta ere bazegek.
Azpeiti — Ai, ai, ai, ai, ai, ai, aaaa...! Afayea! Oiek dira beatzak!
Ana Jox.— Mutil...! Ikutzea besterik ez diat egin! Ona ago i atxufaz kentzen uzteko.
Azpeiti — (*asnaz luze artuaz*) Min eman diazu ba!
Ana Jox.— Izan ere, gizona zkoa baño gauza makalagorik ezda!.....

Orain tirakiño pixka bat jafiko diat, ia zertara dan. (*eskui aldetik bañunan ume abotz batek ojuka "Ana Joxepa"*)

Azpeiti — Auferaaaa!....

Ana Jox.—(*jostari*) Ik zer dakik nai detan edo ez?

Azpeiti — Onuzkero alpefik da ba. Dana-dala artu egin bear dezu. (*eskuiko atean Pepitatxo agertzen da. Baldan jantzita dator bi akeña-mototz belafi gañetan kalartsu gofiaz lotuta zut=zu=tik ditula*).

Azpeiti —(*ikustean, eta abotz me=meaz ixeka=antzez*) Oooooo.... iiiii
Pi....pi....tatxo!....

AMAIKAGAREN AGEÑALDIA.

Ana Joxepa, Lizarbe ta Pepitatxo.

Pepitatxo—(*uzkur*) Amak...esan...dit...umea ao-eriz daukagula-ta, ez-ti pixka bat emateko.

Ana Jox.—Eta ez al dakin iñongan sartzean, "Agur Miren", "egunon" "afatsaldeon" edo zerbait esaten? Txakufen antzera iñor agurtu gabe? Esaten diñat ba nik, baña alpefik! Beti berdín!... Ez al dakafen ezta eramateko ontzirik?

Pepit. —(*sakaletik kikara bat ateriaz*) (*uzkufago*) Bai.... emen... (*artzen dio*).

Azpeiti —Oi! Lotsagabe lotsatia!.... (*joaten da Ana Joxepa ezkefetik*)

AMABIGAREN AGEÑALDIA.

Azpeiti ta Pepitatxo.

Azpeiti —(*Pepitatxo'gana urbilduta, oni akeña-mototz batetik elduaz*) Deitu nazan orain kalean bezela: "Xapu, xapu, xapu"... Tira: deitu nazan!

Pepit. —Ez det nail

Azpeiti —(*teink=egiñaz*) Deitu nazan ba!

Pepit. —(*erdi-negafez*) Ez det nail... Ai, ai, ai, ai, ai!

Azpeiti —(*teinkaka*) Deitu ba; deitu...

Pepit. —Ai, ai ai, ai, i!... Amari! (*sartzen da ezkefetik Ana Joxepa, esku baten kikaratxua, ta bestean kaxatxo bat ditula*).

Ana Jox.—Zer dabilek,* mutil? Utzi eio^x pakean! (*Pepitatxo'ri kikarra emanaz*) Tori: eraman.

Azpeiti —Ez baña bidean jan e?²... (*joaten da Pepitatxo eskuitik*).

Ana Jox.—Ori ere... baleike!

AMAIRUGAÑEN AGERALDIA.

Azpeiti, Ana Joxepa ta gero Pepitatxo.

Ana Jox.—(*kaxatxua mai-gañean utzi*az) Tira ator i ere zerbait egin dagiogun besa mutur ofi. (*ateratzen ditu kaxatxotik eun zi-rinda batzuk eta beste kikaratxo bat. Eun puxka txikitxo batekin kikaratik osagaia artu ta Azpeiti besamutufean jartzen dio; gero zi-rindaz lotuaz. Bitarte guzian izketan jafaitzen dute*).

Azpeiti — Nun dezu semea?

Ana Jox.—Esan beafik ez: Jauregi'ko loretegeran edo... Or nunbait lanean.

Azpeiti — Lanari utzitzeko ordua ere badator ba...

Ana Jox.—Iluntzen asi da bai... (*ixil-unea Ana Joxepa'k bere lana amaituaz*) Onek asko gozatuko dik orain, ta biar ikusiko diat....

Pepit. — (*eskuiko atean eskutuka agertzen da*) (*amofu biziz*) Xapu, xapu, xapu, xapu! (*juatenda igesi*)

Azpeiti — (*ate ondoraño jafaitu ta bertan jafaitzen ba'lijoa bezela anak erabili*az) Nik aflatuko aut!

Ana Jox.—Ori nexka-koxkor lotsagabea!

Azpeiti — Ez da Ibargain'en berdinduko duanik. (*goiko atean gelditu ta Baratzar ontz begira An Ander!*) (*beatzak aoran sartu ta txistu joaz*) Fiiiiiiii...it!

Ana Jox.—(*lañituta*) Zer egiten dek, mutill!

Azpeiti — Ander'i deitu...

Ana Jox.—Jaungoikoafen! Utzi zaiok pakean! (*bere-artean*) Jolaserako onak gaude gaur!

Azpeiti — (*eskua jasota norbait agurtuaz*) An! Ikusi nau!

Ana Jox.—(*Azpeiti'ri eskutik teintaka*) Alde zak ortik mutill bafabasa! Ez dakik nagusia begira legokena?

Azpeiti — Ta zer?... Ez litzaioke ezer gertatuko. (*beatz puntak batuta eskua jasoaz*) Zuek Jauregi'n, gaur onelaxe zaudete: Goi-goian.

Ana Jox.—Bai uste.

Azpeiti — Uste ta izan.... Ikusi egin bear da geroko nagusi gaiak zenbat maite duan!

Ana Jox.—(*pozik*) Lizarbe jaunak?

Azpeiti — Bai.

Ana Jox.—Ufuti-xamar zegok jaun ori Jauregi'ko nagusi izatez...

Azpeiti — Antxeta jaunak ezkontza ori ontzat artu nai ez dualako?

Ana Jox.—Jakiña...

Azpeiti — U...! Ofelako eragozpenen ondorea, ezkontza segurua,

Ana Jox.—Bai ote?

Azpeiti — Bai enetxua bai...

Ana Jox.—Ala gerta dedila ba,

Azpeiti (*eskuak sakalean zerbaiten bila dabilzkila*) Zuk ori nai, e?... Artez zabiltz.... Eta zertako esatea! Lizarbe jauna, ez Jauregi'ko anderetxuaren lain efege-alaba baten lain da... Ori da gizona! Ori!... Ez beste andinaiko, buruarin, nolabaiteko asko... Ofek ez dio, zenbait, aberatsek bezela, langile txiroari goitik beera destañez begitzen... Guretakoaz itz-egin zale da guztiz...Eta nolako arduraz guretarikoen gora-berak entzun, onu-eman, eta erabakitzen ditu!... Ezagun du asko jakina dala...

Ana Jox.—Bai orixe!

Azpeiti —Eta.... zer naizu! Ofelakoai onginaiz begitzen zaie, ta itzal-
-onez baita. Baña.... beste, zenbait afo, andiustez aizatutako kalder oiei.... naita ere ezin beakurtu!... Beren afokeriak gofotagari egiten ditu. Ara: nik ofelakoai, atzekaldian... “bonba” jafiko nioteke...

Ana Jox.—(*bereala*) (*ikaratuta*) Josu maitea! zeee?

Azpeiti —(*bare-bare*) Bonba bat. Ez det esaten, lertzen danean mila zatitan puzkatu ditzaten, ez naiz ofen gaiztoa. Bai baña bere indafez, batere miñik eman gabe, ilargiraño jaurti, ta antxen katigatuta geldí ditezen. Txiroai beti goitik bera begitu nai digutenez, ortaz an aseko lirake-ta.

Ana Jox.—Ja, ja, ja, ja! Au Azpeiti au!

Azpeiti —(*Ana Joxepa'ri eskupera zerbait emanaz*) Tori!

Ana Jox.—Zer?... Ez, ez, ez! Kendu akit emendik, nik ez diat uskeri augatik ordaintzerik bear ta.

Aspeiti —Aberats al zaude?

Ana Jox.—Aberats ez baña, zer uste dek: tirakilo pixka batengatik laurleko aundia artuko diatela? Merkeak irtengo dik ire erlekistenak!

Azpeiti —Ez dizut esaten tirakilo pizka augatik dala; baita gero ere egin bear dizkidazun enplastuagatik. Ez dezu ba esan...

Ana Jox.—Oraindik enplastuak eta... ikutuak egin bear dizkiogu ofi sendatuko ba'da.

Azpeiti —E! Ez neri ikuturik aitatu! Tira, artu. Auzef ordaindu nai zaitut, bestela... ilaren azken-xamafean gaude, ta utzik geldituko zera.

Ana Jox.—Gelditu nadila ba. Nik ez diat iri dirurik artu nai...

Azpeiti —(*mai gañean indafez utziaz*) Tori. Lanak bere saria bear du.

AMALAUAREN AGEÁLDIA.

Ana Joxepa, Azpeiti ta Ander.

Ander —(*goitik sartuaz*) Zer dabilek Azpeiti?

Azpeiti —Ementxe, ire amangana etofita, Pelotarako lagunak irten zidak besamutufean.

- Ander** —Zer dek ba?
- Azpeiti** —Erlekistena.
- Ander** —Lagun ona...
- Ana Jox.**—Bestela ere pelotan gutxi jokutzen dezu zuk. Iñori arazi...
- Azpeiti** —(Ander'i bereala) Goazemak mutil. Zapafadea zetofek eta.
- Ana Jox.**—Goazen? Nora orain?
- Azpeiti** —Eguneko lanaldia egin degu-ta, sagardo pizka bat eratera.
- Ander** —Bereala zaizu emen.
- Ana Jox.**—Aparia ere bereala izango da (*abiatzen dira biak eskuiko aldera*)
- Ander** —(atetik) (*jostari*) Agur Ana...Jo...xe...pa...Xal...xa...pe.
- Azpeiti** —Zergatik deitzen zaituzte "Xalxape?"
- Ana Jox.**—Eta, zergatik iri "Xapu"?
- Azpeiti** —Azpeitafa naizelako.
- Ana Jox.**—Eta azpeitiafai zergatik?
- Azpeiti** —Oraintzen ari gera ofen aztafena ateratzen; gaurdaño iñork ez daki-ta. (*joaten dira eskuitik Ander eta Azpeiti*).
- Ana Jox.**—(sutondorotz dijoala) Ori mutil eroa! Ja, ja, ja!... Bizitz ontako ordu lafiak aztu-arazteko, zer nolako pafegafia! (*Lusagar zuritzen ekiten dio*).
- Ander** —(eskuitik beriz sartuta) (*izilpeka*) Izan al da Lizarbe jauna, ama?
- Ana Jox.**—Bai. Beti bezela.
- Ander** —Ez ziñon baña nagusiaz izan dezuna edestuko?
- Ana Jox.**—Ez orixe! Naigabetuko litzake!
- Ander** —Ofengatik ba. Zuk kezkatzen nazu ama. Ez dio on andirik egingo zure osasunari nagusiaren ateraldi ofek!
- Ana Jox.**—Ara mutil: egundo baño lasai ta obeto arkitzen naiz. Bestetan ezerez batek makaltzen nau, ta gaur sendo-sendo nago. Joari kezka gabe, nik aparía gertu bitartean.
- Ander** —Ofela ba'da, pozik noa. Azpeiti zai daukat. Gero arte.
- Ana Jox.**—Agur seme. (*joaten da Ander eskuitik*).

AMABOSGAREN AGEÑALDIA.

Ana Joxepa, berealaxe Antxeta jauna.

Ana Jox.—(beretzat) Jaunari ezkefak, nere gaxo ta nekeen aringafi seme on eta maitaria ba-det beintzat. Gaztaroan negar samín ugari egiña naiz. Senar nolabaiteko-xamafa, Jaungoikoak barka zegiola-ta, neronek lan egin bear seme-alabatxoentzat ogia irabazteko, abek azi bear, amaika neke samín igaroa naiz!... Semetxo au geldituta besteak il zitzaizkidan baita... Aiek atseka-beak!..... Jaungoikoak baña, zartzarorako pozkafi utzi zidan.

Ander on au. Berari eskefak nere azken egunak Etxeko zorion eta pake gozamenenez ematen dizkit-eta... (*ixil-unea lanean ari dala*) Ozkifi dago... iluntzen dijoa... baratzako atea itxitzea on izango det. (*joaten da goiko atera, ateari elduta itxitzera dijoala*) Oil... norbait dator emen!... (*ixil-unea*) Nagusia dirudi... Ez?... Bai!... bai... bera da. (*atea zabalik utzita bafuratuaz*) Zer ote dakar onek garai ontan! (*maladia igotzeko ufatzak entzuten dira*) (*agertzen da Antxeta jauna goiko atean*).

Antxeta — (*atetik*) Afatsalde on.

Ana Jox. — Baita zuri ere, nagusia.

Antxeta — Ordu txafean nator edo..., beintzat, ikusi detanez atea itxitzera zijoazen.

Ana Jox. — Nagusia artzeko, ez da etxe ontan ordu txafik, jauna. Bada-kizu: zartu naiz, aitzakiz betea bestetik, eta iluntzeko ozkifitik nere burua gorde nairik atea itxitzera ninjoan.

Antxeta — Ondo egiña. Gure adiñean, ardura guziak gutxi... (*Antxeta jaunak itxitzten du atea, ta Ana Joxepa'gana urbiltzen da*) Ander bere lana amaituta etxeratu danez, befiro biokin itz-egitera nendofen.

Ana Jox. — Ofa bal Nere semea egunoro lanaldia egin ondoren, oitura duan bezela, apal aurretik sagardo pixka bat edatera joan da.

Antxeta — (*gogo=biur*) Aguro alde egin du!

Ana Jox. — Bereala. Ez ditu amar iruroin etxean egin.

Antxeta — Ez, ez.

Ana Jox. — Baña eseri zaite. (*alkia eskeintzen dio*).

Antxeta — (*exeriaz*) Burutik kendu ezinda nago zuen lengo ateraldia...

Ana Jox. — (*era=onez*) Gu ere ba... zerbait gogoan degula gelditu gera...

Antxeta — Damutu ba'zerate...

Ana Jox. — (*aritututa*) Damutu?... Zertaz damu-bear gera, jauna?

Antxeta — (*asefe=antzez*) Oraindik ofetan zera Ana Joxepa?... Ederki!... Ori da zuen nagusi jaunari diozuten itzala!.... Ez nuan zuegan-dik auxe uste!...

Ana Jox. — Ez zuan usteko... eta azketsi. Baña ez nik ere ez nuan au uste berofengandik.

Antxeta — (*bizi*) Erotu egin al zera Ana Joxepa, zure nagusiari ofen goitik-bera begitzeko?

Ana Jox. — (*beti era=egokiz*) Dagokidan tokitik begitzen diot. Goitik-bera ba'da, azketsi; ez naiz ofen efudun...

Antxeta — (*urduri zutinduta*) Zu ez zaude ondo, Ana Joxepa! burutik edo dagizul...

Ana Jox. — Jaungoikoari eskefak, sentzudun nago.

Antxeta — Ez dakit...! ez dakit...! Zuretzat izan naizenaz, itzalik-ez eta biufikeri au orain?

Ana Jox. — Arteza dan gauzan, biufikeria ikusi nai ba'dezu...

- Antxeta** — Zer da ba, ori ezta?
- Ana Jox.** — Jauna: zure agindua betetzeko gertu gaudela ikusi dezu.
- Antxeta** — Bete... eta ez. Esan dizutet, ez detala iñola ere nai, Lizarbe jauna nere jauregi bafutian sartu dedin...
- Ana Jox.** — Eta gu bizi geran etxe au, zurea izan-ta, zure jauregi bafutian dagonez, galerazteko jaun ofi bertara etortzea.
- Antxeta** — (*nagusitasunez*) Ori da nere agindua.
- Ana Jox.** — Gureztat bete eziña. Esan zazu zergatik.
- Antxeta** — Oraindik zurean jafaitzen dezu?
- Ana Jox.** — Nerean ez. Esan dizu Ander'ek: Menpeko gaituzu, ta zure agindua betetzeko gaude. Ofengatik, ain oparo orain arte eman diguzun bizi-tokia utzi ta beste bat bilatu beafean gera.
- Antxeta** — Ez dizutet bizi-tokia ukatzen!
- Ana Jox.** — Ez, jauna. Baña gure bizi-tokian agintzea bai, ukatzen dizugu.
- Antxeta** — Eta ezin dezakezute nagusi jaunari zor diozuten itzalez, Lizarbe jaunari emen sartzea galerazo?
- Ana Jox.** — Eskefonak beragana beartuak gauzka, baita. Gertatzen dana ba'leki, gure on-beafez, bera izango litzake etortzea utziko leukena; baña ori baita ama-semeontzat mingafi litzake; gurekin emen ikustez poz aundia degu-ta... Ez degu naigabetu nai zuk dagiozun ezespren befi au aitzen emanda. Ezta ain ongile zaigun notin bat geregandik alde-arazita geure buruai kalte ori egin nai ere. Onela usteko du Ander'ek.
- Antxeta** — (*batera ta bestera urduri ta asefe dabilela*) Zuen jarkerak Ibergain'en atera bear duan iskanbiñla zait mingafi!... Oste-xearen mingain likitzetan nere izen garbia ibili beaña igingafi...
- Ana Jox.** — Uste dezu ori gabe-re ez zabiltzala efiaren mingañean?... Uste dezu Ibergain guziak ez dakiela zure ilobatxoak egin nai duan ezkontzari gofoto díozula?
- Antxeta** — Zirzil galanta atera zait, alaba ba'neu bezin maite azi detan iloba!
- Ana Jox.** — (*minduta*) Zirziñla, Elixabete'ri, bera dan bezin on, maitagarfia izan-ta!
- Antxeta** — (*amoru biziz*) Ona? ta nolabaiteko ezkontza ofetzaz bere sendiaren izen andiki garbia loitu nai du?... Ona! ta beretzat ain guraso-orde maitetsuen aurka jeikitzeke ausardia du?... Ona...? ...Ai Ana Joxepa! Ez nabil ufuti egin nai duan erokeri ontara zuk limurtu dezula uste izateaz!
- Ana Jox.** — (*minduta*) Ori ere ba'dek?... Ez ba uste-izan ofelakorik, oker zaude-ta.
- Antxeta** — (*asefe*) Ukatzen ausartzen zera?
- Ana Jox.** — Ez naiz gezurtia...
- Antxeta** — Ez dakit ba egia ukatzen duanari nola deitu lezaioken.
- Ana Jox.** — Badiruri eza gutzen ez nazula... Nere bizi guzian ondo artua

izan naiz zure jauregian... On-ustez deitu nazute nere lanegiñen bear izan zeratenean, eta begiko diran notiñai oi bezela oparo ordaindu nazute beti, ta zuen laguntza ta babes erukitsua neretzat izan dira.... Zaartu naizenerako, nere semeari eman diozun ogibideaz, atsedean ta zoriona ekafi didazu; eta orain, bat-batean ofela gaitzetsitzen nazu?... Gezurti nazpiltzaleztat naukazu?

Antxeta —(*bizi*) Bai!... Ofela ordaintzen dituzu, aitor-befi zeran gure on-egiñak! Ofela, ain oparo eman dizugun gaurko biziera kezka gabea! Erokeri batez gurasotzakoen aurka jafi dan gazteari, gaitzbide ofetara bultz-egiñaz; gure naigabeari ixeka egiñaz...

Ana Jox.—Nik?

Antxeta —Zuk!...

Ana Jox.—Ni zure aurka?

Antxeta —Bai!... Ni ta nere sendiaren aurka egotea da, jatofi ilun eta izengabeko edozein batekin ezkondu nai duan nere iloba buru-ariñari ofetara bultz egin eta laguntzea!... Izen loiez kutsutu bat, gure antziñako jatofia naztu ta beeratu nai izatea... zure nagusi jaunai, azpikeria egitea. Itzal aundia zor diozun sendia oñazpiratu nai izatea...

Ana Jox.—(*bizi-bizi*) Naiko da jauna! Naikoa... Ez, geiegi oraindaño esan dezuna. Ez dizut utziko geiagorik esaten... Lizarbe jaunak jatofi ilun, loiez kutsutua ba'du, zure efuz du!

Antxeta —Zer?

Ana Jox.—Zer?...

Antxeta —Zer da esan dezuna, edo esan nai dezuna?

Ana Jox.—(*sendo*) Esan detana!..... Zure obenaren kutsua efugabe bere izatean daraman gizajoa ezessitzen ari zera!

Antxeta —(*ikaratuta*) Ana Joxepa...!!!

Ana Jox.—(*otz-otz*) Lizarbe'tar Andoni jauna, Efotatxo'ko Katalin gaxoaren semea da...

Antxeta —(*izu*) Zer ezafi nai didazu ofezaz?

Ana Jox.—Nik ezer ez. Zerofek zure buruari ezafi ziñona oroi-arazten dizut: Badakizu ludiaren begietan garbi agertzen dezun zure izen aundikia, nere begietan obenduta ageri dala ezkontza loituaz egin zendun oben izugafiaz...

Antxeta —(*ikara biziz, baña afo*) Nola ausartzen zera, zure nagusi jaunari ofela mintzatzen?

Ana Jox.—(*berean*) Ondo dakizu zor dizudan itzal ona bear bezela gorde dizudala beti, ez dizut iñoiz aipatu gauza au, ta ez nizon aipatuko ere; baña afokeriak, efurik ez degunon aurka jeiki zaitu, ta... iñoiz esan nai ez nizuna esatera beartzen nazu: Lizarbe'tar Andoni... zure semea da!

Antxeta —(*dar-dar*) Ana Joxepa!!!!...

Ana Jox.—Zuk indafez galdu zendun neskatxa efukafiak, nere besoe-
tan argitara eman zuan semea.... Ezafi giñon izenik ere ja-
kin nai izan-ez zendun zure semea....

Antxeta —(*ikaraz-ikaraz*) Ene Jaungoikoa...

Ana Jox—Txindiz eztali zendun zure obenaren semea....

Antxeta —Ana Joxepa!... Ana Joxepa!... Egiz?...

Ana Jox.—Egiz, jauna, egiz!

Antxeta —(*apal eta ikara aundiz*) Nola baña, nola au?.. Zuk... zuk...
nola dakizu? Ez zendun ba aur ura erkiko Aur-etxera era-
man?

Ana Jox.—Bai jauna, baña ugatzatu, ta daukan izena ezafi ondoren....

Antxeta —Eta... eta... (*ikara aundiz*) ori... ori berak badaki?... iñork
badaki?...

Ana Jox.—Une au arte, ez du ludian neronek bestek jakin, orain bere
aitak daki: zuk. Besteak iñork ez. Ezta berak ere. Eta... gaur-
daño bezela neretzat bakafik gordeko nuan ixilpean, beste
bizitzan Jaungoikoaren magalean utzizeko; baña, ez dizut utzi
nai zure eñuaren lotsea bere gain daraman efugabea, dagio-
zun ezesprenak mintzen!.... Ez dizut utziko, iraindu nazun
bezela iraintzen, ez naiz ezkontza ori egitearen efudun-eta!....

Ez dizut utziko, Lizarbe jaunaren izen iluna nere afean
lotsagafi jaurtitzen!... Zure semearen jatofi iluna, aundikiok
zuen izenok garbi agertzeko, gizartera aztintzen dituzuten or-
banen ikufa da. Bere zindotasuna, izen aundiki guzien gañe-
tik jartzen duan Jaungoikoaren emaitza!

ZAPIA.



IRUGAREN EKITALDIA.

Antxeta jaunaren jauregia. Loretegi zaindu edefa. Eskuitik jauregi-atartea ageri da, maladi zabal labufa loretegiara dala. Beronen afean, ezkefera, egon-toki egoki bat, loretegieta oi bezelako mai ta eserlekuak inguruan dituala. Eskuitik ezkefera, lenengo aldetik, jauregi ondoan ziarego-tokitik aufera, bidea. Beste bidea jauregiaren goiko-aldean aienatzen dala. Txori abesti ta eguzkiaren alaitasunak alaitutako goiz liluragaña.

LENENGO AGEÑALDIA.

Elixabete ta Lizarbe.

(*Elixabete maladian zerbait igota, ta Lizarbe onen bafenean*).

Elix. —Zoaz, Andoni, zoaz... Nere osaba goizeroko bere ibilaldia eginda laister da emen, eta ez det nai bertan arkitu zaitzan.

Lizarbe —Ez dezu esaten, lendik aldakuntz aundia eginda dagola?...

Elix. —Aundienetako!... Ez litzake asefetuko zu emen arkituko ba'zindu... Baña,.. bere samiñari itzal-artu nai diot, eta... zoaz, Andoni; zoaz...

Lizarbe —Ezin aitu zaitut, maitetxo. Zure osaba ez litzakela asefetuko orain, ni emen arkitzeaz..., lendik aldakuntz aundia eginda dagola diozu... baña bere samiñari itzal-artu nai diozula-ta, bidaldu egiten nazu. Ulergaitza guzi au neretzat Elixabete.

Elix. —Bai neretzat ere Andoni... Osabaren oraingo aldakuntz ulergaitz eskutu au, lengo bere aurka-egite gogor guzia baño mingaño zait. (*ixil-unea*).

Len, ez zuan zure izenik entzun ere nai. Elkafekin nabaitzen gindun bakoitzean, bere asefe gogoñaz atsekabe izugafiak ematen zizkidan. Orain, ilabetetik onuzkoan, bera ari zait gure ezkontza auferatu ta antolatu naiez, maitasun xamufa, dagin guzian agertzen didala... Baña... ain itun!... ezin jasan det, ageri zaion gogo-oñazea!

Lizarbe —Orduan... ez det ikusten zure osabaren aldakuntz ori. Edo beintzat, len bezin nere arerio da.

Elix. —Ez, Len ez zuan iñola ere nai, ni zurekin ezkontzerik; orain, len-bai-len elkartu gaitezela nai du...

Lizarbe —Eta nola zera nerekin emen arkitzeak eman lezaioken samiñaren bildur? Ulergaitza guzi aul (*ixil-unea*) Nere ustez dizun maitasunak ofetara jafi du. Etsi egin du berak nai edo ez

elkafeekin ezkonduko gerala, ta lengo aurka-egite gogor ura utzi du. *Nai-ta-ezetsi*; baña len bezin nere arerio. *Oñek samintzen du.*

Elix. —(*xamur*) *Ez, Andonil... Igartzen diot maitasuna artu dizula. Len ezetsi egiten zindun; orain zure ona poz-pozik entzuten du. Len, zure guzia txar arkitzen zuan; orain berak ontzen du...*

Lizarbe —*Ala ere ez nau ikusi nai!*

Elix. —*Nai ez...*

Lizarbe —*Berak orain onetsi duan gure maitasuna mingafi zaio...*

Elix. —*Gure zoriona mikaztera datoñen eskutu ituna! (*ixil=unea*) (*itun*) Ezin ulertu det beregan gertatzen dana!... Atzo, esan zidanez, ezkontzen geran egun berean gugandik betiko aldendu-ko da, izebarekin atzefira joanaz... (*negarez*) Nik ez dakit zer oldoztu, ez dakit zer esan nere osabatza!*

Lizarbe —(*itun*) *Senartzat artzera zuazenaren jatofi eskutuak ematen dion igiña aundia dala.*

Elix. —*Ez oñelakorik uste-izan, Andonil!*

Lizarbe —(*gogo-oñazez*) *Ezin nezake besterik uste izan!*

Elix. —(*añenez*) *Andonil!*

Lizarbe —*Dizudan maitasun aundi-aundiak, zugana ain lotua ez ba' ninduke, ni izango nintzake zure ondotik betiko alde-egingo lukena!*

Elix. —(*samin aundiz*) *Zer esaten didazu?*

Lizarbe —*Ez da neretzat ezer ain mingafi, zure zoritxar-zio naizela ikustea baño.*

Elix. —*Zu gabe ez neukake zorionik...*

Lizarbe —*Ezta nerekin ere.*

Elix. —*Zurekin, osoa.*

Lizarbe —*Ez da zorionsu, biotz naigabetua. Zure osabaren oñazeak samintzen zaitu. Bidezkoa da...*

Elix. —*Eta zure maitasunak samin ori jasankor egiten dit...*

Lizarbe —*Ni gabe izango ez zenduken samiña...*

Elix. —*Zu gabe, bizitza bera litzaket samingafi...*

Lizarbe —(*atsegiñez*) *Elixabetel!... maitel!... Zu bai zerala nere gogo-oñaze lariatzen gozagafia!... nere bizitz ituna alaitzeko Jaungoikoak sortu zindun gotzon zoragafia!... Zer ez nuke egingo zure zoriona lortzeagatik!*

Elix. —(*xamur=xamur*) *Eta nik zureagatik!...*

Lizarbe —*Elixabetel!...*

Elix. —*Andonil! (*ixil-aldi xamuña*) Baña...zoaz, Andoni; zoaz... Gero ikusiko gera...*

Lizarbe —*Bai...bai...ba-noa... Zurekin orain egin detan egonaldí onetzaz oldoztuaz nere baitan atsegin artzera... Gero egingo degunaz ames egitera...*

Elix. —*Maitel!... (*eskua emanaz*) Zoaz, zoaz...*

Lizarbe —(eskua estutuaz) Bai noa... bai noa...Agur... (abiatzen da ezkeferontz, uratz batzuk emanda beñiz Elixabete'ri begira geldituaz) Agur maitetxo! (bat=batean eskuian lenengo aldera begira) Zure osaba dator! (joaten da ezkefetik) (Elixabete laisterka etxean sartzen da)

BIGAREN AGEËELDIA.

Antxeta jauna bakarik.

Antxeta —Sartzen da eskuitik adi—adi ezkefera begira—(geldi-geldi ta biotz ikaraz) Nere semea!..... Nere oben izugafiarena ondore oroigafia!..... Aintzat artzea ez dagokidan seme, neretzat orain maitagafia!... (ixil-unea adi=adi begira) (zerbait atsegiñez) Gizonezko bikaña.... Eta ikusten danez, zindo, azkar, jakintsua.... (bat=baten bira eman eta ezkeferontz exerlekua artzera dijoala) Josu! Josu!.... Igefi gabe, beregana zaletzen dijoakit biotza... jaungoiko maitea!..... Azketsi!..... Ezkontza loituaz izan nuan seme ori, ezin nezake nere emazte on-ona iraindu gabe aintzat artu!..... Ezin...ezin!..... Ene!... Ene Jaungoikoa!... Zuk dakizu ondo beste seme-alabarik eman ez diozun efukafi oni, nai-ta-ez dijoakidala biotza oben-bidez sortutako semearengana!... Azketsi!... azketsi!... (naigabe aundia ezagun duala, itun exertzen da) (ixil=aldi laburra).

Afagiakiak dira zure erabakiak Jauna!.... Zanik ere oroitzen ez nintzan semea dakarkidazu etxera, nere alabatzakoa-ren senar....! Jauna! Jauna!.... Ezin nezake seme bezela aintzat artuaz berekin nere biotzik gozatu, eta semetzako ematen didazu?... Zuk dakizu zergatik! Baña.... nere emazte-gaxoa! nere Teresa maitea!.... Nola nezake seme ofekin bizi nere emazteari irain egin gabe?... Iñola ere ez!.... Jauna! Jauna!... Ai au nere gogo-oñaze lafia!.... Nere oben gaiztoaren nekea! Lagun zaidazu!... (ixil-unea)

Iñork ez ba'leki!.... baña jauregi bafutian det guziaren beñi dakiena: Ana Joxepa.... Oraindaño ixilpean ain zintzo gorde izandu, ta aufera ere gordeko du.... Baña... bere begietan nere emazte gaxoa burbeituta, irainduta, agertzen da, ta ez det iñola ere ori egingo. Ez....!... Ez....!... (ixil-unea)

Ez diot nere seme efugabeari zoriona galerazo nai; ezta baña nere emazte onari, agerian naiz eskutuan zor diodan lotsa ona galdu nai ere.... Berekin joan, joan egingo naiz, ufuti...ufuti...betiko...betiko....nere semearen igesi...igesi... (buruz=bera gelditzen da) (ezkefetik sartzen da Ander baratzetan oi bezelako burpil bakardun esku=burditxo bat dakafela)

IRUGAREN AGEĀALDIA.

Antxeta, Ander, ta bereala Terese ta Elixabete.

Antxeta —(*Ander ikustean*) On iristen al dezu belafa mozteko tramankulo beĀia, Ander?

Ander —Gutziz ona, jauna. Goiko zumardian det, ara noa ba, bertan moztu-aldi bat eĀitera. (*beretzat*) Au adizkide aldia du beĀiz nagusiak neretzat.

Antxeta —Ona da beraz?

Ander —On-ona. Berdin ta aguro mozten du.

Antxeta —Tira ba...txindia kosta dan ezkeru ondo kostea izan bedi.

Andua. —Ala da ba. Pozik naiz berekin. (*jaureĀiko maĀadi buruan Teresa ta Elixabete azaltzen dira*)

Elix. —(*maĀadi goitik*) Nik agindutako lora-sorta bidaldu al dezu, Ander?

Ander —(*eskuiko goiko bidera dijoala*) Bai, anderetxo.

Elix. —Eskefikasko.

Ander —Ez da zergatik.

Terese —(*maĀadian bera datoĀela*) Arte aundiaren azpiko eserlekuan txakufarentzat utzi dizuten lepoko beĀia jaso al dezu?

Andua. —Jaso det, bai andrea. (*joaten da*) (*Terese andrea ta Elixabete jeixten dira Antxeta'Āana inguratuz*)

LAUGAREN AGEĀALDIA.

Antxeta, Terese ta Elixabete.

Terese —(*bigun*) Ezagun da goiz alai atseĀiĀa dagola gaurko au, senar maitea. Goizoroko ibilaldia eĀinda ere etxeratu gabe zabiltz.

Antxeta —Eguraldi edefak, berentzaz gozartu gaitzen ematen dizkigu Jaungoikoak.

Terese —Ondo ikasia dezu zuk ori, bai...

Elix. —Bizitzen jakitea da-ta....

Antxeta —(*Elixabete'ri xamurtasun itunez*) Ni baĀo obeto gozartu zera zu, goiz alai onen liluraz...

Elix. —Obeto... Ezin neurtu lezaken gauza da ori, osaba. Bakoi-tzak, bere beĀi bakafik, daki.

Antxeta —Norberrea, nabaitu eĀiten da; iĀorena iĀeĀi; oĀela norbera ta iĀoren beĀi jakiten da.

Elix. —Ez da beti zuzen iĀeĀi oi....

Antxeta —Zuri zuzen iĀertzen ez dizunak, Elixabete, ez du ezagumen argi-argia....

Elix. —Ja, ja, ja! (*Antxeta'ren ondoan esertzen da, baita Terese ere zumezko besaulki bat urbilduta*) (*Antxeta zutindu eĀiten da*)

- Antxeta** —(*itun-itun*) Ni orain etxe-aldera noa. Badakizute gosaldu gabe nagola-ta.
- Terese** —(*añenez*) Bertara ekariko dizute!
- Antxeta** —Ez. Naigo det etxean.
- Terese** —Ara...! Gu etofi geran orduko ba-zoaz....
- Antxeta** —Bereala nazute emen.
- Terese** —Bai... bai!
- Elix.** —(*zutinduta*) Nik lagunduko dizut...
- Antxeta** —(*esertzeko keñu egiñaz*) Ez, geldi zaitte izebarekin. (*Terese'ri*) Laister nazu emen Terese. (*joaten da maladian gora*).

BOSGAËREN AGEËALDIA.

Terese ta Elixabete.

- Terese** —(*Antxeta'ri begira ixil-aldi bat eman ondoren*) Au da au!... Gu nora, bera beste aldera. Esan leike gure igesi dabilela beti...
- Elix.** —Ilabete ontan ofela dirudi. (*Terese'ren ondoan eseriaz*) (*samiñez*) A izeba, izeba! Ez det samin aundiagorik osabaren uzkur-tasun ofen zio, ni naizela oldoztea baño!
- Terese** —Zu bakarik ba'ziñake, ez luke nigandik ere alde egingo...
- Elix.** —Nerekin zaudenean izango da...
- Terese** —Ez, maite. Zurekin ba'nago, ta ez ba'nago. Berdin. Badirudi nere aufean ikara sortzen zaiola, bildurtu egiten dala... (*itun-aundiz*) Ez dakit, ez dakit...! Nere senafa ez dago ondo..., ez dago ondo..., gogo-gaxoa edo du... Bildur naiz... bildur naiz...
- Elix.** —Ala ere, ni ez ba'nintzake gaxo ofen zio!...
- Terese** —Ez dirudi. Esan dizut... Baña bai zure ezkontza dala-ta, bere izakera len ez bezela ulergaitza ageri dala.... Lenengo ez zuan entzun ere nai Lizarbe'tar ori zure senartzat. Izugañi asefetzen zan, eta ofetarako zitun zioak, on iritzi arazi zizkidan neri ere. Orain... guztiz bestera dago, edo beintzat, ez dizula zoriontsu izatea galerazo nai-ta, bare-bare, zure naira jafita, ezkontza auferatu ta antolatu naiez dabil. Baña... ain itun!... ain aldakuntz aundia egin du bere izakeran, ain dago berez oi ez bezelakoa, ezin igañi det gertatzen zaionik...
- Elix.** —Badirudi nai-ta-naiez onartzen duan nere ezkontz onen samina burua nastu bear diola edo... Nik ez dakit... ez dakit...!
- Terese** —Ofela izanda, baña zergatik nitzaz ain uzkur?
- Elix.** —Egia...! (*ixil-unea*).
- Terese** —(*aldaketa egiñaz*) Baña... bai, bai! Zure ezkontzak naztu du!.... Elixabete!... Ezin al dezakezu maitasun ori utzi?
- Elix.** —(*bereala*) Ene, izeba! Nik Andoni utzi?... Ofela uste dezu biotzaz nai dana egiten dala?...!

- Terese** —Ez...!... Badakit biotzaz nai danik egin ezin dala. Baña maitasun bat beste maitasun aundiago bateri opaldu lezaioke... Ez al dezu Andoni baño geigo maite, alaba izanda bezin maite azi zaitun zure osaba, zure aitatzakoa?
- Elix.** —(*lañi*) Izeba! Nik baño lenagotik dakizu-ta, bat da gurasoari oi zaion maitasuna, ta beste bat gure betiko lagun izan-go danari artzen zaiona. Zio artez eta zuzen batengatik ez ba'da, gure burua ukatu bear ez diogun maitasuna.
- Terese** —(*bere buru jabe*) Uste dezu, zure osabak ditun zioak, zuzenak ez dirala?
- Elix.** —Len zitunak baldin ba'dira, nere ezkontza samingafi dagiotenak, osabaren zioak, ludi ontako afokerietan oñafia dute.
- Terese** —Afokeria deitzen diezu, zuretarikoai dagokien omenari?
- Elix.** —Ez dizut ukatuko. Zerbait ofela irizten diot-eta... Nik baña, omen guzien gañekotzat daukat bakoitzaren zindotasuna. Ludiko izen aundiki ta ospatsu guzien gañetik, Lizarbe'tar Andoni'ren kistartasun eta zindotasuna.
- Terese** —(*itun*) Ez dago zuretik aterako zaitunik.... (*ixil-unea*) Zure lengoari beste izen aundiki bat ezafi lezaiokezuna.... Josu! Josu!.... Ez daude gure aurretikoak begira!.... sasiko gízajo batena ezartzera zoaz!
- Elix.** —(*Terese limurtu nairik laztanduaz*) Izeba!... Euzkotafa da!... Gure abizenak, ofela izatez beste gabe dira andiki. Abendaren andikitasuna dute berentzat guziak... Afo-afu egotziko diot nereari Lizarbe'rena!
- Terese** —Ustekeri beñiak. Zure senar-gaiak egotziko zizkitzun ezta?
- Elix.** —Ez, izeba! Naigo nuke ofela ba'litz! Nere izen andikiari, bere izen andikiago bat opaldu eziña da bere samiña....
- Terese** —A! Ikusten dezu nola duan aintzat zure senar-gaiak jato-fiaren andikitasuna?
- Elix.** —Baña, bere jatofi iluna, gure zorionaren eragozpen jafi zai-gulako....
- Terese** —(*Sinisgor*) Ez dakit... ez dakit... zureaz berea anditzeafen ez ote dan ibilikol!
- Elix.** —Ez, izeba! Nor nintzan jakin baño lenagotik maite nindun...
- Terese** —Ori... esan egiten da...
- Elix.** —Ez, izeba. Ondo dakit ofela dala.
- Terese** —Baleike... baleike... Beintzat, bera dala-ta, gure jauregian gendun zorionak betiko alde egin du....
- Elix.** —(*negafez*) Ez ofelakorik esan, izeba!...
- Terese** —Nola ez?... Badakizu, zure ezkontz eguna baño len, betiko elkañengandik alden du bear gerala. Osa'ak ofela nai du. Berarekin atzefira narama betiko... betikol... (*negafari ematen dio*).
- Elix.** —Ez izeba, ori ezin ditekela... Ni naiz emendik alde egitea da-

- gokidana, ta ni juango naiz!...
- Terese** —Ez dizu osabak laketuko. Zurea da jauregia. Bertako alaba naiz, zure ama zan bezela; baña ni baño nagusiago zan, eta gure gurasoak bera oñordetu zuten, Zuri dagokizu ba, emen jafaitzea. Zuri zure senafez jaio nintzan jauregian zorionak ifipar dagizun bitartean, atzetiko bakartasunean, nagegabe itunak begiak betiko itxiko dizkit. (*negafez jafaitzen du*).
- Elix.** —(*negafez baita*) Ez oril! Nere zoriona jauregi ontan, zuenaz batera gozartu ezin ba'det, untz eta lafak estaldu dezan utziko det. Zuek gabe, Lizarbe'tar bateri dagokion etxe apal baten ezkutatuko det nere zoriona! (*Terese'k negafez besarkatzen du*) O!..., O!... Mila aldiz naigo nuan nere osabaren lengo aurka-egite gogofa, oraingo onartze itun au baño! (*ixilune luzea*) (*Jauregi'ko mañadi-buruan Antxeta agertzen da*) (*ikustean*) Osaba dator...!
- Terese** —(*urduri, malkoak legortu ta bere burua bare agertu nairik*) Orain, ixo! Ez deigula igefil!
- Elix.** —(*bere buru=jabe*) O, ez! ez!... Ezin genezakegu onela jafaitu! Nik osaba nereratu nai det! Maite ba'nau: zergatik ez?

SEIGAÑEN AGEÑALDIA.

Terese andrea, Elixabete ta Antxeta jauna.

- Antxeta** —(*maladian bera datofela, beretzat*) Badiruri nere emazteak negar egin duala. Josu! Josu! Ba det orain ere, inola ere erabaki ezin nezaken autuatzaz zerbait!... Jauna! Jauna!...
- Elix.** —(*negafez. Antxeta'ri elduaz*) Osaba!... Osaba!... atoz, atoz!
- Antxeta** —(*biotz-ikaraz*) Zer dezu, Elixabete?... Zer dezute, Terese? (*Terese arpegia estalduta, buru makur negafez gelditzen da*)
- Elix.** —Ezin genezakegu onela jafaitu! Lertu bear du nere biotzak!
- Antxeta** —Zer dezu?
- Elix.** —Oraintxe izebak esan dit, nere ezkontza baño len, nigan-dik betiko alde egin beafez zeratela....
- Antxeta** —Atzo esan nizun beste ofenbeste.
- Elix.** —Baña ez nuan guztiz aintzat artu. Izebaren esanez etsi det.
- Antxeta** —Ofela da ba...
- Elix.** —Zergatik, osaba, zergatik?...
- Antxeta** —(*itun*) Jakitea ez dagokizunik ez zazula galdetu.
- Elix.** —(*negafez*) Baña...
- Antxeta** —Ez dizut ba orain ontzat emanen, egin nai dezun ezkontza?
- Elix.** —Egitera zuazenak, besterik esaten du...
- Antxeta** —Ez du baña besterik esan nai...
- Elix.** —Azalpen geiago gabe, ezin nezake besterik uste izan.

- Antxeta** —(*naigabe aundiz*) Egiz... dirudina usteko dezu... Baña Elixabete: Ez al nazu ikusten zure zorion alde arduratuta?...
Elix. —Ez det zorionik, zuen zoritxar bidez...
Antxeta —Zeri deitzen diozu zure zoritxara?...
Elix. —Nigandik alde-egitera beartzen zaituzten zioak sortu dizuten gogo-onaizari...
Antxeta —Arindu ezin dezakezun onazea...
Elix. —Bai: nere zoritxar-bidez...
Antxeta —Zure zoriona, gaur zerbaít pozkafi zait...
Elix. —Zerbaít... bai; ikusten det maite nazula-ta... Ofen aurka baña, andiki izateak ezartzen dizkitzun bearkunak dituzu... Jafi zera nere ezkontza onartzeraño, didazun maitasunak nere zoriona nai arazten dizulako; baña beste bearkun luditar oiek, zure sendiaren izen aundikia, beste ilun, loitu batez lotzera dijoan zure alabatzakoa betiko uztera beartzen zaitu... Ofela bakafik aditu diteke nitzaz egiten ari zerana.
Antxeta —(*naigabe aundiz*) Nai dezuna uste izateko eskubidedun zera Elixabete, beste azalpenik egiten ez dizudan bitartean, baña... afen eskatzen dizut, maita zazu orain arte bezela zure osaba efukafia!
Elix. —(*lañi*) Eta... utzi egingo al nazu? (*erotuta bezela*) Ez, afen! ez, afen ofelakorik! (*Terese lastanduz*) Izeba! Izeba maitea! zuk ere utzi egingo al nazu?
Terese —(*naigabe aundiz*) Zure ofetan jafaitzeak guzior zoritxara dakar, eta... ez dezu ain maite azi zaituzten gurasotzakoen efukirik.
Elix. —(*negafez*) Utzi egiten nazute!
Terese —Bear ez zenduken ezkontza egitera zoazelako...
Elix. —Baldintz on guziak ditun gizona da senartzat artzera nuana!
Elix. —(*efukiz*) Bai, bai!... Bai, Elixabete! Zure ezkontza onetsi egiten det!
Elix. —Baña ori dala-ta betiko jaurtitzen nazu zure altzotik! (*samin aundiz lufera begira*) Ama!... Amatxo!... Aita!... Aitatxo!... Zeruan zaituztedan nere aita-ama maiteak!... Zuek ez zenduten ofela utziko zuen alabarik...! ...zuek maiteago izango ninduzuten!... Aitatxo...! ...A...ma...txo...
Terese —(*erotuta bezela Elixabete bat-batean besarkatuaz*) Elixabete! Elixabete! Ona emen zure ama! Ona emen zerukoak bere ordez utzi zizuna!..... Berak egingo zuan ori, egin nai detana..... Artez diozu: ez zindun arek inoiz utziko ta. Ez nik ere!... Ez!... ez!... ez!... (*besarkatuta gelditzen dira Terese ta Elixabete*).
Antxeta —(*ikaratuta, dar-darka, zer dañin ez dakienak bezela*) Zer..? zer...?... Terese!... Zu...zu...zu...
Elix. —Ni, bai, ni nere alabarentzat izango naiz. Nere Elixabete'rentzat!

Antxeta —Zu... baña... zu... Josu! Josu!... Jauna! jauna! zer da au?... Zer...? ni... (*ezkefetik laisterka estu=estu, lafi aundiz Marixabel agertzen da*).

SEIGAREN AGEÑALDIA.

Lengoak eta Marixabel.

Marix. —(*lafi=lafi ojuka*) Jaunak! Jaunak!... Ander! Ander!... nun da Ander? (*Antxeta, Terese ta Elixabete izututa bezela gelditzen dira Marixabel'i begira*).

Terese —Zer da? zer da?

Elix. —Zer gertatzen da?

Marix. —Ana... Joxepa... il!

Irurak —Il?...

Terese —Josu maitea!

Antxeta —Ene Jaungoikoa!

Marix. —Il.. edo... bai, bai! Ilda dago ura!... Nun da Ander? Bere bila bidaldu nau...

Antxeta —Ander'en bila?...

Marix. —Bai, Lizarbe jaunak bidaldu nau.

Elix. —Bertan al dago?

Marix. —Bai. Nik oraintxe etortzea egin det egunoro bezela Ana Joxepa'gana, eta bertan arkitu det Lizarbe jauna Ana Joxepa ilik besoetan duala, iñoren laguntasun gabe... Sukaldeko atetik onera deika jardun omen du... baña alpefik, ez diozutela entzuten, eta Ander'en bila bidaldu nau... Josu!...

Elix. —Jaungoiko aundia! Ana Joxepa il dala!

Terese —Ni joango naiz bere etxera, Andoni'ri laguntzera, ta zoaz zu Ander'en bila.

Antxeta —Bai, bai! goiko zumardian dago, zoaz, zoaz... Jaungoikoa!

Terese —Goazen Marixabel! (*joaten dira biak ezkefetik laisterka*) (*baita Elixabete ere eskuitik, goiko bidetik*).

ZAZPIGAREN AGEÑALDIA.

Antxeta bakafik.

Antxeta —(*ixil=une baten ondoren, arituta, nun dagoen ere ez dakienaren antzez*) Zer da aul... Ana Joxepa il!... ..il! Jaungoiko maitea! zer da au?... Une lafi ontan, zer egin ez nekien, nere semearen befi zekien notin bakafa zereganatu dezu?... Jauna!... Jauna!... Zer adierazo nai didazu onezaz?... Jauna!... Jauna!... Ene Jaungoiko efukiofa!... Zer nai dezu nitzaz..... (*ixil=unea*) (*beretzat*) Ana Joxepa il!... gaxoa!... Jaungoikoak artu dezala bere altzo gozoan!... Ona, ona izan da neretzat, nere obenaren ondore ituna, ain zintzo gorde du ba!... gaxoa...

(ixil-unea) Il da... il da... berekin eraman du ludi ontatik niaz zekien guzia.Jauna! Zure begietan bakafik da orain Lizarbe'tar Andoni nere semea..... Niganatu nezake, iñoren begietan nere emazterik iraindu gabe... Jauna!... Azketsi nere lengo obena ta ontzat artu nere gaurko erabakia!..... Zuk bakafik, zuk bakafik dakizu, nere ondora artuko detan alabatzakoaren senafa, seme detanik... Zuk bakafik... Niaz efuki zeran Jaun maitea. Onetsi nere erabakia... onetsi... bai... onetsi... Zuk, ofela nai izan dezu, nere seme efugabearen maitez.... Zuk... zuk... nai dezu ofela ...bai,... bai... bai... (sarten da Lizarbe ezkeretik.)

ZORTZIGAREN AGEÑALDIA.

Antxeta ta Lizarbe.

Lizarbe —(apa!) Jauna...!

Antxeta —(urduri) Zer?...

Lizarbe —Azketsi, zuganaño ba'nator...

Antxeta —Nere etxea, zure dezu...

Lizarbe —Esketikasko jauna... Ander'en bila nendofen....

Antxeta —Ain zuzen, goi-xamafetik da gaur lanean, eta bereala da emen. Elixabete bere bila juana da....

Lizarbe —Bere amaren il-beña itunak emango dion zafazta samiña zerbait arindu ote nezaioken edo... Gertatzen dana esan al diozute?

Antxeta —Ez dakit. Juan zan Elixabete bere bila esan dizudan bezela...

Lizarbe —Zure emazte andereak ere ofela esan dit ara etofi danean.... Berekin eta Marixabel'ekin utzi det ba il dan gaxoa....

Antxeta —Nola izanda?...

Lizarbe —Berekin aldía igarotzen nengon, ofetan nuan ba nere atsegiña, batez ere, ludi ontara efukafi jaio nintzanean, bere besoetan artu ninduna bera zala esan zidanetik....

Antxeta —(zerbait urduri) Bera zala?...

Lizarbe —Bai. Azketsi, baña alabeafak zureganatuta naukanez, ordu samin ontan, ezin gordeko dizut, andretxo txiro ofetan jafita neukala, guraso bati, oi zaion maitasuna.... Ez dit iñoiz esan nai izan gurasoak nortzuk nitunik, baña, nigan berentzat gofoto zana, Ana Joxepa onak, maitasun biurtu dit....

Antxeta —(zerbait lasaituta) Gaxoa! On-ona zan!....

Lizarbe —Eta on-egiten il da... Bere ondoan exerita nengon, orduan-txe ari zitzaidan bereustez nere gurasoen obena nere begietan arindu nairik, aientzat oroipen maitaria nigan ikusi nai zuan ba, ta.... onginaí ofen biotz-ikutzea jasan ezinda bezela, bat baten nere besoetara ilik erori da....

Antxeta —Gaxoa!

Lizarbe —Berekin eraman du Jaungoikoagana, jakin nai nuken, nere jaiotzaren ezkutua...

Antxeta — Zertako dezu ori jakitea?

Lizarbe — Zuk galde ori, jauna?

Antxeta — Bai...! zertako?...

Lizarbe — (*ixil-une labur baten ondoren*) Egia...! Zertako!... Jakin edo ez, beti izango naiz... naizena: sasiko efukafi bat....

Antxeta — Eta nor diran ez dakizun zure aita-ama oien ordezko maitasuna aín maite zaitun zure Elixabete'ren gurasotzakoak eskeintzen ba'dizute, sasiko efukafi nabaituko al zera?

Lizarbe — (*Añituta*) Jauna!... zer esan nai didazu?...

Antxeta — Gure Jaungoiko onak, guraso bezela maitatu dezun andre txiro gaxoa Bere'gana eraman dizun ordu berean, maitasun ofen sari, Antxeta'tar Endika ta bere emaztearena ematen dizula, beren ondoan, zure emaztetxoaz zoriontsu izan zaitean.

Lizarbe — (*añituta, zer egin ez dakiela*) Jauna!

Antxeta — (*besarkatuaz*) Andoni!... Seme! (*goitik, ezkefetik Elixabete agertzen da*)

BEDERATZIGAREN AGEÑALDIA.

Lengoak eta Elixabete.

Elix. — (*besteak besarkatuta ikustez añitu=ta*) Jaungoikoa! zer da au?

Antxeta — Elixabete! atoz!

Elix. — (*zer esan ez dakiela*) Ander'en bila nintzan...

Lizarbe — Bere bila etofi naiz ni ere!

Antxeta — (*Elixabete'ri*) Ander'en bila etofi da zure maitea, gurasotzat maite zuana il zaion ordu ontan, Jaungoikoagana joan zaionaren ordezkoa, nigan arkitu du...

Elix. — Osaba!

Antxeta — Osaba, ez; zuen ondoan bizi ta il nai duan zuen aital (*besarkatzen ditu biak*) (*Ezkefetik Terese azaltzen da*)

AMARGAREN AGEÑALDIA.

Lengoak, Terese, bereala Ander.

Terese — (*besteak elkartuta ikustean*) Zer...?

Antxeta — Ezer ez. Zuk bezela, zeruan diran Elixabete'ren aita-amak egingo luketena egin nai detala!

Terese — Jaungoikoari eskefak!

Ander — (*eskubitik, goitik lañi sartuaz*) Ama!... Nere ama?... (*oñaze aundiz*) nere ama?...

Lizarbe — (*Ander'gana joan eta besarkatuaz*) Zure ta nere ama zana!

AZKENA.